



BOOKTEGI

itxuraz zoragarria

JOSEBA KOLDO ORTEGA



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

JOSEBA KOLDO ORTEGA

itxuraz zoragarria

Lala eta Jakerren kasuak

Hitzaurrea. Egileak argitu nahi duena.

Istorio honetan gure herri eta hirietan sektakide batzuk satanzaletasuna eta meza beltzak ospatzen arituko dira. Ez edonolako satanzaletasun, ordea, odoltsuena eta girorik ilunenekoa. Testuinguru honetan eraiki da nobela beltz hau.

Honaino helduta, galdera bat erantzun behar izanen litzateke. Nola idatzi eleberri beltz bat, satanzaletasuna jorratzen delarik, gai horretan “sinetsi” gabe? Zein jarrera hartu orduan? Egileak ezin izan du ez apologiarik egin, ezta jarrera mesprezagarri garbirik hartu ere. Dena den, batzuetan nabaritutako da parafernalia, ospakizun eta erritu odoltsuak deskribatzen direnean idazleak gauza hauek irrigarritzat hartzen dituela. Egoera batzuk surrealistikak izanen dira; izan ere, idazki honetan gaia tratatu da ikuspuntu eta helburu ludiko batekin. Hala ere, batzuetan ezin da iritzia saihestu, nahi eta nahi ez satanzaletasunak eleberrian dena bustitzen duenean.

Dudarik gabe, kalterik egiten ez den bitartean, errespetatu egin behar ditugu sinesmen guztiak. Istorio honetan zehar torturak eta erailketak suertatuko dira. Nolanahi ere, praktika hauek, izan meza beltzak edo akelarreak, ez dute zerikusirik antzinako euskal usadio eta erlijioarekin. Antzinako erlijioan ilargiaren zikloari jarraituz euskal jendeak elkarketak ospatzen zituen. Edozein modutan, liburu hau ez da saiakera, baina bolada luze batean, banpirismoa, likantropia eta antzeko modei erantzunez, kanpotik ekarritako gai hauei kritika egin nahi izan diegu. Bestelakoak ziren, diferentzia handiz, kristautasuna zabaldu aurretik gure herriak omen zituen sinesmen eta mitoak. Oso desberdinak ziren ilargia eta naturaren zikloen arabera antzinakoek ospatzen zituzten gurtzeak eta bilerak. Bereziki Mari jainkosari izaten zitzaion sinesmenak ez zuten zerikusirik beranduago asmatuak akelarreekin.

Aipatu behar da Inkisizioak, “*benetako erlijio bakarra*” inposatzeko, antzinako jakinduriak sorginkeriatzat hartuta, gehienetan emakumezkoak ziren sendagile tradizionalen kontra jo zuela. Duela mende batzuk, Ofizio Santuak, antzinako sinesmenak eta sendabide tradizionalak erabiltzeagatik, ustezko sorginak atxilotu eta tortura bidezko galdeketak eginez aitortzera behartu zituen. Sorginkeriak egitea eta akelarreak ospatzea leporatuta, hainbat emakume zigor larrietara eta heriotzera kondenatu zituen.

Joseba Koldo Ortega

Barañainen, 2024ko apirilaren 12an.

X - Egunkari batera igorritako eskutitz irekia.

“Satan, askatasunaren profeta.”

Euskal Herriko herritarrok: berri on bat helarazi nahi dizuet, batzuentzat kezagarria izan daitekeen arren. Hemendik aurrera, benetako sinesmen, pentsaera eta errito satanikoak zabalduko ditugu. Ahal bada geure ospakizunak publiko egitea erabaki dugu. Besteek adina eskubide dugu geure bilerak ospatzeko, beldurrik gabe, eta ezinezko bilakatzen bada hiriko eremu itxi eta ezkutuetan edo mendian eta naturan elkartuko gara. Egunez ez bada gaez, urruneko leku, baseliza eta leku garaietako zelaietan egingo ditugu gure elkarketak, beharbada leku ezkutuetan: mendi eta basoetako soilunetan .

Gure lagundian satanzaletasuna erlijio bezala hartzen duten jarraitzaileek meza beltzak ospatzen dituzte, kristauek, katolikoek edo beste korrente batzuetakoek beren erara egiten duten bezala. Sakrifizioak eta sexu praktikak egitea, baita drogak erabiltzea leporatzen digute. Badakigu batzuek gu lotsagabeki larrutu nahi izango gaituztela eta ospea zikindu. Satanzale batzuek deabruaren omenez antolatzen dituzte mezak, kristau batzuen iritzian sakrilegoak direnak. Esan egiten dute beraien mezen antzera egiten direla eta alderantzizko gurutzeak, ostiak eta odola burla eginez erabiltzen direla. Kristaok zuen ospakizunen perbertsioak eta gaizkia goratzea ikusten eta ulertzen duzuen horretan, bestelako helburu bat izaten da.

Batzuek kritikatu egiten gaituzte. Zabaldu nahi dute guk animaliak, haurrak eta neska birjinak hiltzen ditugula. Ez sinetsi! Izango dira talde erradikal batzuk pertsona batzuei odol piska bat ateratzen dietenak, edota animaliak sakrifizikatzen dituztenak. Horiek gutxi dira. Guk normalean odola erabiltzen dugu kontsagrazio erritoetarako. Sekta batzuek ostia eta odolarekin jolas egiten dute emakume biluztu batzuei gorputzean marrazkiak egiteko. Egia da Satanzale teista sinestunek meza kristauen ospakizunen alderantzizkotasuna lantzen dutela, baina ez zuena zikintzeko, Satan goresteke eta bere mezua zabaltzeko baizik. Gurutzea, aldarea erabiltzea, otoi egitea eta erritoak ospatzea ez dira zuek kristauonak bakarrik. Guk ere geure erara erabiltzeko eta ospatzeko eskubidea dugu. Zeinuak ez dira garrantzitsuenak: berdin dio kalizan ardoa edo odola erabiltzeak. Ez dizue axola ospatzen duten batzuk biluzik egoteak edo beste batzuek beltzez janzteak, batzuetan maskaratuta zuen mendekurik ez jasotzeko.

Dena den, sinestunak aparte, ateoontzat Satan askatasunaren eredu eta adibidea da. Erlijioaz gain, haren irakaspenen arabera abstinentziaren aldean induljentzia praktikatzen dugu, nahiz eta barkamena eta bihozberatasuna geure bidea ez den. Gure praktika eta printzipioak mugarik gabeko sexualitatea eta zentzumenen gozamina dira. Hitz batean: askatasuna.

Hori dela eta, deia eta gonbidapena luzatzen dizkizuegu gure lagunartera hurbiltzeko eta sare sozialetan sartzeko. Hemendik aurrera, denbora luzerik pasa gabe, meza beltzak, Satanen aldeko erritoak eta bilerak ospatuko ditugu. Hauexetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Izan zaitetze pertsona askeak!

Satanen jarraitzaileak

1 - Itxurak ezkututzen duena. Bizilagunak.

2019ko maiatzak 3, ortziralea

Iluntasuna zen nagusi. Aurrean, bi farolek ez zuten etheen arteko kalea erabat argitzen. Han nonbait egongo zen bidea ez zen sumatzen. Argitasun lausotu zurixka zen lainoaren eraginez. Gainerakoa guztiz ilun zegoen. Ezkilaren kanpaikada bakar batek ordua eman zuen, oihartzun ia amaigabea emanek. Beldurrezko pelikula bateko eskena zela zirudien, baina oso erreala zen. Ilunaren atzean are ilunagoa zen zerbait bazen eta ez zen etxe horma bat. Ez zen ezer materiala eta aireak karga berezia zeukan. Ziur asko zientziak ez zuen ezer antzemango. Horretaz gain, arraroa zen inguru hartan natura edo animalia baten zurrumurrurik ez entzutea: ez kilkerrik, ez txoririk, zuhaitz-hostoen mar-mara, haize beraren zitzurik, ezta normalean entzuten zen erreka hurbilaren murmuriorik ere. Baten batek, bertzerik gabe, han gaizkia zela erranen zuen.

Eguraldi ona eta egun eguzkitsua zenean paisaia ezin ederragoa zen. Zaila zen leku atseginagorik topatzea. Udan, iluntze azkarrak izaten ziren mendebaldean astroa ezkututzen zenean. Ilundutakoan inor ez zebilen kalean, ez auzo hartan behinik behik. Elorrieta auzoa, plaza baten inguruan osatutako zortzi etxe-multzoa, herriko erdigune eta bidetik hirurehun metrora izanik, oihanean galdutako etxe bakoiti eta triste bihurtzen zen argitasuna izan ezean. Ordura arteko etxarte eta inguru polita zenak, behin ilundu eta lainoa altxatzen zenean, gezurra zirudien baina infernuko ingurunea ematen zuen. Azken aldian, arratsetan hala izaten zen. Errekatik abiatuta, behetik sortzen zen lainoak inguru osoa hartzen zuen, pixkana-pixkana.

Paisaia menditsua zen hura. Inguruan basoak eta mendi-tontorrak nabarmentzen ziren. Udaberria zenez, dena berde gama ikusgarrietan agertzen zen, ilunagoa pinudi eskasetan, berde argiakoak haritz, pago eta bertzelako zuhaitzen hosto-erorkorren arabera. Belardiek koadro berde intentsuetan eta hurbilago baratza eta soroek bizitasun handia erakusten zuten.

Haran haietan herriak txikiak ziren, txukunak eta ikusgarriak. Paisaia hartan herriak eta auzoak etxe-multzo anitz ziren barreiatuta. Batetik bertzera kilometro eskasen bat izaten zen. Etxe gehienak, betiko etxe tradizionalak ziren, mende pare bat edo gehiago zutenak, gehienetan harria aterata eta paretak enkalatuta zituztenak. Baserri estilokoak ziren etxebizitzak. Gainera, orduko, animalia gutxi zuten etxebizitzetako beheko pisuetan, ez behirik ezta ardirik. Nekazaritzaz eta abeltzaintzaz bizi ziren gutxiek herri multzoetatik aparte, etxalde eta nabeetan izaten zituzten animaliak. Etxe berriak, txaletak eta pisu moderno batzuk bazeuden haraneko herriburuan, Erburun; hala ere, ez ziren asko nabarmentzen.

Iratzeta herrian udaletxeaz gain, baziren hotel-balneario bat, dendatxo bat, bi taberna-jatetxe eta landetxe batzuk. Baina, edozeren gainetik herri txiki txukuna zen. Berrehun biztanle zituen eta hirurogei bat etxe herrigunean; baserri, borda eta sakabanatutako auzoetako bertzelako etxebizitza batzuk aparte. Bertako biztanleez gain, bisitari anitz zituzten, asteburuetan eta udaldian batik bat. Baziren Arandi haranari Suitza txikia deitzen ziotenak.

Ondoko herriburuan, Erburun, herri-kaskoan betiko hiru solairuko etxe tradizionalak ziren gehienak; dendak, tabernak, tailerrak beheko solairuetan zituztenak. Auzo berrian, pisu eta etxe moderno batzuek gainera, zerbitzugunea, denda, supermerkatu, lantegi eta tailer txiki batzuk topatzen ahal ziren. Osasun etxea eta eskolak ere kanpoan ziren mendebaldeko bidean.

Gaztea zen Dani. Hogeita hamar bat urtekoa, beltzarana, handikotea, argala eta serioa zirudien hasiera batean, zeren eta edonorekin hizketan hasi bezain pronto adiskidetasuna transmititzen baitzuen, lasaitasuna. Egun osoan lan egin ondoren, astegunetan zerbait afaldutakoan, balkoira ateratzen zen lasaitasunaz gozatzeko. Gurasoak egongelan zeuden eta telebistako serie baten atal bat ikusi ondoren oheratuko ziren. Berak lasaitasun momentu hura pasatu ondoren zerbeza baten ondoan bere gelako besaulkian eserita irakurtzen ematen zituen ordu batzuk. Arrats hartan, dena den, bazuen zer pentsatu eta kaleko iluntasunari edota argitasun lainotsuari begira zegoen. Egun haietan Dani urduri ibili zen. Herrira heldu berria zen Maria Teresarekin geratu zen biharamunean, larunbatean, ingurua erakusteko. Dani Saldias, herrian jaio eta herrian bizi zen eta handik gutxitan mugitzen zen. Gizon gaztea ez zen gixajo bat, baina kostatuta emakume harekin lasai izatea. Maria Teresa, Tesa, aparta zen, ederra eta atsegina. Ile gaztainakara eta aurpegi polita zituen eta begi ederrek begirada sorgingarria ematen zioten. Dena den, Dani beldur zen harekin.

Iluntze ikusgarriaren ondoren, aurreko egunean bezala, balkoitik Danik iluntasuna eta lainoa nagusitzen ari zirela ikusi zuen. Bat-batean itzal bat mugitu zen kaletik. Pertsona bat etxeen horma ondotik pasa zen ikusia ez izateko. Dena den, presagatik edo, ez zen inguratzen ibili eta bi etxeen artean farolek argitutako pasartetik pasa zen. Inork ezin izanzen zuen haren itxura asmatu. Kaputxadun sudadera gris batek ezinezko bihurtzen zuen nor zen jakitea. Handik gutxira, inguruko inorena ez zen motor bat entzun zen auzotik herrira urruntzen.

Dani astean sei egunetan joaten zen lanera, bere supermerkatura. Lan-egunetan, larunbatean izan ezik, bi joan-etorri egiten zituen etxetik lanera eta itzuli. Gurasoak jubilatu berritan, bertze langile bat hartu zuen gizonak. Supermerkatuak, hirurehun bat metro koadrotan, saltoki zabalean salgaiak apaletan, biltegi handi bat, komuna eta bulego txikia zituen, baita ordaintzeko kutxa, zinta eta guzti. Danik han ematen zuen egun osoa edo ia osoa, hogeitahiru bat urteko Nekanerren laguntzaz gehienetan. Eskerrak lan gutxiko momentuetan txandakatzen ziren! Nekane hurbil bizi zen eta nahiago zuen berandu hasi, eguerdian lanaldia luzatu eta arratsaldean goiz bukatu. Dani zen irekitzen zuena. Eguerdian etxetik pasatzen zen bazkaltzeko, itzultzen zen eta arratsaldeko zortzietan ixten zuen. Biek lan gutxi zutenean aprobetxatzen zuten garbiketara eta horniketara egiteko. Nekane neska modernoa eta polita zen, ilea nahita urdindua zuena; nolana ere, atsegina eta oso langilea zen emakume gaztea.

Erburun biztanle gehienak bertakoak ziren edo bailarako bertze herrietakoak. Gutxi ziren kanpotarrak. Hala ere, udaran batik batik, bisitari eta udatiar aunitz izaten zituzten eta ohitura zuten tratuan ibiltzen bertzeekin.

Danik herriburuan ikasi zuen txikitik. Ikasketak osatzeko, hirian egin zituen egonaldiez aparte, ez zen bere jaioterritik gehiegi mugitu. Familia-etxean bizi eta Erburun, bizitokitik bi kilometrorara, familiakoa izandako dendan egiten zuen lan. Txikitako lagunekin pasatzen zituen ordu libreak. Kuadrillako Anarekin izan zuen amodiozko harreman luze eta bizikidetzatza bakarra. Erburun pisu batean bi urtez elkarrekin bizi izan ziren, aurreko urtean harreman hura eten arte. Gurasoenera itzulita, bazirudien bizitza osoa herri haietan emanen zuela. Ez zuen aldaketarik espero, ondoko etxera bizilagun berriak agertu arte.

Gizonak ez zekien ondoko etxe handia, Argiñenea deitua, saldu egin zutela, adineko bikote bat ikusi zuen arte. Aurreko familiakoek aspaldian utzi zuten etxea hirian bizi zirelako. Bat-batean igeltseroak eta bertze gremioetako langile anitz agertu ziren eta udazken-neguan konponketak egin zituzten. Kanpoaldean ia ez zuten ezer aldatu; barnean, berriz, sukalde-komunak eta birmoldaketa asko egin zituzten bizitzeko moduan utzi arte. Kanpotik, behin hormak garbitu eta zurituta, auzo hartako bertzeak bezalako etxe polit eta txukuna utzi zuten. Landare loreduak jarri zituzten leihoetako buztinezko loreontzi zabal ederretan; lorategia, ordea, sasiak hartuta zegoen.

Aurreko hilabeteen agertu ziren irizartarrak bizitzera. Fernando eta Maria Luisa hirurogeita borts bat urte inguruko bikotekideak ziren eta jubilatuta zeuden. Ostalaritzan arituta eta diru pixka bat eginda, mendialdeko herri hartan aurkitu zuten betiko etxebizitza. Ez ziren ingurukoak, baina Gipuzkoako euskaldunak izateaz gain ingurua ezagutzen zuten arazorik gabe hasi ziren harremanetan bertakoekin. Lasaiak eta atseginak ziren eta hasieran ez zuten ezer deigarrik egin. Noizean behin, lagun, ezagun edota familiakoen bisitaz gain ez zuten ezer berezirik egiten. Ez ziren gutxi bisitatzera joaten zirenak, batzuk bakarrik eta bertze batzuk bikoteka edo lagun talde txikietan. Dena den, guztiek bazuten aire desberdin bat. Ingurukoak ez zirelako izango zen, baina herriko eta inguruko batek baino gehiagok aipatu zuen bizitzera etorri berriek eta baita haiek bisitatzera etortzen zirenek ere beldurra sortzen zirela. Egun batean bi gazte agertu ziren ondoko etxean asteburua pasatzera: Lukas hogeita hamar urteko gizon kirolzale eta dotore bat eta Maria Teresa, hogeita borts bat urteko emakume eder bat. Biak, etorri berrien seme-alabak zirela entzun zuten herritarrek.

Danik, aurreko astelehenean etxera bazkaltzera agertu zenean ikusi zuen Maria Teresa lehenengoz. Zirimiria ari zuen. Aspaldian ez zuen atertzen. Etxearen ondoko belardian landare eta loreak aztertzen ari zen, kukubilka. Emakumeak, gizon gaztea etxean sartzera zihoala ikusi zuenean, altxatu eta ia agurtu gabe, Erburun lorategiko gaiak eta tresnak saltzen zituen dendarik ba ote zegoen galdetu zion. Gizona jota geratu zen. Maria Teresa oso ederra zen. Emakume puska zen. Dani metro-laurogei pasakoa zen eta Maria Teresa txandalean eta zapatiletan zentimetro pare bat baxuagoa zen, liraina, baina biribiltasunak neurrian erakusten zituen eta aurpegia edozein txoratze modukoa zuen; ilea kizkur luze gaztaintara. Aurpegian aho polita, ezpain lodi-gorriak, sudur txiki-zuzena eta bekain nabarmenen azpian begi berde eta betile luzeak zituen. Ez zirudien makilatuta zegoenik. Segurtasuna erakusten zuen, bere edertasunaren jakitun. Hala ere, hura inkontzientea izanen zen, tratu eta jarrera lagunkoiak erakusten baitzituen. Irribarreak ezagutzera gonbidatzen zuen eta ahotsa suabea eta sakona zuen.

Daniren negozioa janari denda bat zen, baina aspaldian sartu zituen salmenta handiko eta garbiketa produktuak. Danik supermerkatu batean bezala zuen antolatuta eta lorategietarako produktu batzuk ere saltzen zituen. Saltzen ez zituen bakarrak arrain eta haragi freskoak ziren. Izoztuen aldea ere bazuen. Bertako produktuek ere leku handia zuten saltokian. Inguruko baserrietan produzitzen ziren barazkiak, kontserba batzuk, hestekiak eta gaztak salmentan izaten ziren. Danik frankizia baten laguntzaz modernizatu zuen saltokia urte batzuk lehenago. Dena informatizatuta zuen eta fruta-barazkiak norberak pisatzen ahal zituen. Saltokiaren azkeneko aldean lorategirako tresna batzuk, ongariak, loreontziak, haziak eta abar saltzen zituen. Danik erantzun zion emakume ederrari.

- Gure dendan lorategi-gaiak saltzen ditugu. Zer behar duzu?
- Lan horretarako eskularruak, guraizeak, lurra mugitzeko aitzur eta pala txikiak; ongarriak eta landare eder batzuen haziak behar ditut.
- Gauza gehienak baditut, bertzela kilometro batzuk egin beharko dituzu hiriburuan topatzeko.
- Iribarreak hortz zuri txiki batzuk erakutsi zituen. Ahots atseginez gaiarekin jarraitu zuen.
- Non duzue denda? Lehenbailehen erosi nahi ditut tresnak lorategia behar bezala martxan jartzeko.
- Erburuko sarreran, gasolindegia pasa eta ezker aldean. “*Supermerkatu*” letra handiz ikusiko duzu. Arratsaldeko lauretan han izanen naiz.
- Handik agertuko naiz bostak edo seiak aldera.
- Ongi etorri gure auzora. Orain bazkaltzera joan behar dut.

Arratsalde hartan bertan lorategirako tresna eta hazi batzuk erosi zituen emakume gazteak eta etxeratu zenerako Danik lanean topatu zuen emakumea. Bien artean hurbiltasuna sentitu zuten eta gizonak eginkizun hartaz galdetu zion.

- Arratsalde on! Zer moduz ari zara lanean?
- Ondo. Gaur inausten hasi naiz. Dena den, ongarria behar dut eta lehen aipatu didazu zure dendakoa baino hobea lortu ahal dudala. Zergatik? Non lor dezaket hobea?
- Dendako ongarriak kimikoak dira eta onak kasu batzuetan, baina zure landare hauetarako auzoko Pellok badu ongarri aproposa: ardienea.
- Lagunduko didazu Pello delako horri ongarria erosten?
- Gustura. Nahi baduzu ongarria lortzen eta ondoko bizilagunak aurkezten laguntzen ahal dizut.

Orduan hasi ziren elkarrekin ibiltzen eta harremanetan, Tesak egun batzuk eskatu baitzituen lantokian. Ez zuten adierazi, baina bazekiten hurrengo egunetan elkar topatuko zutela eguerdian edo arratsaldean eta laguntasun harremana zela beraiena. Ez zuten bertzelako sentimendurik haien artean, Tesaren partez behintzat. Tesa deitzeko eskatu baitzion emakumeak gizon gazteari. Danik, bertzalde, ez zekien zer izanen zen beraien artekoa, baina garbi zuen emakumeak laguntasun harremana baino ez zuela nahi eta berak aski zuen momentuz emakume eder eta erakargarriarekin denbora-pasa haiekin. Egun pare bat pasata, betiko lagun bezala jokatzeko zuten biek, konfiantzaz.

Ondoko etxeko Joxepi alarguna zen eta berehala izan zuen Maria Luisaren berri. Bizilagun berriak ohitura zuen jendearekin harremanetan eta erakutsi zuen modu onak zituela. Joxepi urte batzuk zaharragoa izanda ere, belaunaldi berekoak ziren eta berehala izan zuten zertaz hitz egin. Biek, amak izaki, seme-alaba eta familiakoen beharrak zituzten kezka nagusi. Errezeta eta kontserba-pote batzuk trukatu zituzten. Hala ere, aste gutxi pasa ondoren, Maria Luisak desberdina zela erakutsi zuen. Ia ez zion emakume zaharrari agurtzen. Inporta zitzaizkion bakarrak etxekoak eta iluntzean bisitan agertzen zitzaizkion arrotzak ziren. Berehala, zergatik ez zekitela, formalitateaz gain bi emakumeek ez zuten elkarrekiko konfiantzarik sentitzen.

Joxepi etxeko emakume eta jostun ona baino ez zen, umila eta konplikaziorik gabekoa; Marisa, berriz, sofistikatua zen. Interes desberdinak zituen eta bazuen bere etxeko eta bisitariengan aginte eta ezkutuko kontrol berezi bat. Bera zen bisitari-gizataldearen eme agintaria, zer eginkizun eta helburu zituzten garbi ez bazegoen ere. Joxepik berehala sumatu zuen ezkutuko asmoren bat eta harremana agurretara eta gutxi gehiagora mugatu zuen.

Fernando gizon atseginagoa zen eta ondoko tabernan agertu zenetik herriko adineko bezeroen kuadrillan sartu eta bertze bat gehiago izan zen. Egunero, normalean arratsaldero elkartu eta solasetan, kartetan eta txikitoak edaten ematen zuten denbora. Gizonari nabari zitzaion mundua zuela eta bertzelako kezka eta bizipenak zituela. Edonola ere, umetan antzeko herri batean hazi zen eta bikotekideek nahita aukeratu zuten herri hura erretiratzeko. Bazirudien aurreko bizitza atzean utzi nahi zutela.

Lukas gutxitan joaten zen Iratzetara. Joaten zenean lagun batekin izaten zen eta ia ez zen gurasoen etxetik ateratzen. Bilbon bizi eta lan egiten zuen diseinu eta publizitate enpresa batean. Paolarekin hasiberritan hagitz maiteminduta zeuden eta nabari zen. Danik, orduko, gutxi ezagutzen zuen Tesa. Emakume isila zen. Egun batzuk lehenago topatu zuenetik ia egunero ikusten zuen etxera heltzean. Denbora horretan pixkanaka gehiago ezagutu zuten elkar.

Ateri egin zuen arratsalde batean, zirimirari ez zuenean, inguruak ezagutzeko geratu ziren Tesa eta Dani. Bide batetik jo zuten, herria garaiera batetik ikusi arte. Hari begira Tesak aipamen bat egin zuen:

–Zuen herria ederra da, baina gauza eder guztiek bezala badu ezkutuko alderdi bat –mutilak ez zuten horrelakorik espero.

–Nola erran duzu? Zer erran nahi duzu? –Bi esaldiak adierazi orduko tonto sentitu zen.

–Erran bai, “*rran-rran*” dut. Nolako hitzak zuenak! Baina ez dakit zergatik *erran* egin dudan! Beti pentsatu dut irudi hoberenaren atzean zerbait txarra ezkututzen dela. Ez al zaizu iruditzen?

–Danik begiratu zion emakume ederrari.

–Zu ederra zara eta ez duzu ezer txarrik egiten –neskak begiratu zion.

–Ez nauzu ezagutzen –erantzun zion, begirada alderatuz.

–Zuri begiratzea aski da ona zarela jakiteko.

–Ni ez nago hain ziur. Zu bai zarela ona eta... ederra!

–Ni ederra? Zu brometan zabilta! –Harrituta zegoen. Emakume hark harritu egiten zuen. Gizon gaztea ez zen inondik ere itsusia, baina berari ederra deitzea ere gehiegixko iruditu zitzaion.

Hurrengo egunean, ortzegun arratsaldean, Erburun ibili ziren bi lagunak, bertan buelta bat egiteko eta denbora pasatzeko. Hala ere, Danik lagun-taldekoak aurkeztu zizkionean, ez zitzaizkion neskari gustatu. Nahiago zuen bakarka ibili, Danirekin bai, baina ez zuen bere lagunekin deus ere nahi. Tesa oso berezia zen. Lagun haiek utzi eta herrixkara bueltan Tesa mintzatu zen Danirekin.

–Zure lagunak kontra ez dut ezer, baina..., zaratatsuak dira eta nahiago dut zurekin bakarka ibili.

–Izaskun, Ana eta Gotzone ikasiak dira eta ez dira oso arruntak.

–Ez da ikasiak izan ala ez. Neska horiek atseginak dira eta hitz egin daiteke haiekin. Andoni eta Santi ere ez dira babu batzuk, baina nik... ez ditut lagun horiek behar. Zaratatsuak iruditu zaizkit. Zurekin desberdina da. Zurekin gustura sentitzen naiz.

Tesa ederra zen, baina arras desberdina pertsonalitatearen aldetik, arraroa ez esateagatik. Gauza arraroen artean ateratzeko beldurra zegoen. Tesa ez zen gauzez ateratzen. Are gehiago,

ilundu ondoren etxean sartzen zen eta ez zuen inorekin egon nahi. Bere gelan sartu egiten zen. Danik horretaz galdetu zionean bere txikitako pasarte bitxi bat kontatu zion.

–Behin, gaztetxea nintzenean lagun batzuekin gauez atera nintzen eta oso gauza larria gertatu zitzaidan –emakumearen aurpegiak izu, ikara adierazten zuen.

–Tesa, hori aspaldian gertatu zen, ezta?

–Ez dakizu oraindik nola dudan gogoan!

–Saiatu zaitetz poliki. Inguru honetan ez duzu arazorik izanen –bat-batean izuaz gainera haserrea ere adierazten zuen emakumearen aurpegiak.

–Dani, ez dakizu zen den ilunean bahitua izatea eta begiak estalita egunetan pasatzea.

–Herri hauetan ez dabil gaizkilerik. Badira burugogor eta zakar samar diren pertsonak, baina bihotz onekoak dira guztiak.

–Berdin dio herri txiki hauetan edo Medellinen. Ezin naiz argitasunik gabe bizi. Kolonbian normal, arazorik gabe bizi nintzen txikitan, hura gertatu zen arte. Medellinen bizi izan gara duela bi urte arte –une batez isilik geratu zen emakumea eta seriotasunez eman zuen sententzia misterioitsua–. Hemen ere gaizkia nabari da.

Bi lagunak beraien auzora heldu ziren. Ilunabar ederrari begira elkar agurtu zuten, hurrengo egunera arte. Nor bere etxera aldentzen ari zirela, Tesak azkeneko komentario isila egin zuen:

–Ilunabar ederrak iluntasunari bidea egiten dion bezala, horrela agertuko da hemendik gaizkia.

Ortzirale arratsaldean berriro elkartu ziren bi lagunak. Danik hitz batzuk gurutzatu zituen Tesarekin. Estreinakoz izan zituzten desadostasunak. Dani susmoak hartuta zegoen. Tesak desenkusa arraroak egiten zituen etxetik gauez ez ateratzeko. Ez zuen ahaleginik egingo aldatzeko. Gizona hurbildu zitzaion eta galdetu egin zion:

–Tesa, zer egiten duzue etxean, gaututakoan? –emakumeak momentuz ez zion erantzun. Zuzen begira geratu zen. Garbi zegoen haserretu zela; baina bere burua eta hitzak kontrolatuz erantzun zion azkenean.

–Nik ez dut ezer egiten. Oheratu baino lehen irakurtzea gustatzen zait –gizonak orduan ala inoiz ez zuela nahikoa adorerik izanen pentsatuz, bere susmoa adierazi zion.

–Zuen etxean, disimulatzen saiatzen bazarete ere, musika entzun eta argitasun berezia ikusten da.

–Argitasun... berezia? Gure amari gustatzen zaio gauean kandelak piztea eta opera entzutea. Baina, ez dut ulertzen zure baieztapena... Ezin al dute musika entzun, ala? Zergatik egiten dituzu galdera hauek? –Nabari zen asko haserretu zela.

–Gauean, hamabiak baino lehen, kanpotar jendea etortzen da isilka eta ia banaka sartzen dira zuen etxera... –emakumeak moztu zion lehor.

–Aizu..., gurasoen lagun melomanoak elkartzen dira eta musika entzuten dute. Zergatik ibiltzen zara gu zelatatzen?

–Ez naiz horretan ibiltzen. Zu agurtu ondoren balkoian geratzen naiz airea hartzen eta ikusi izan ditut. Askotan ordu biak arte nire gauzetan aritzen naiz gelan eta kasualitatez argitasun misterioitsuak, musika eta zure lagun horiek isilka ateratzen ikusi izan ditut. Dena den...

–Bota behingoz zure susmo horiek! –Tesak, ia oihuka, paparretik heldu zion Daniri.

–Lasai, Tesa. Imajinatzen nuen zu orgia batean. Iruditzen zitzaidan gezurra kontatzen zenidala... Barkatu –emakumea gehiago haserretu zen eta erantzun zion.

–Dani, gu ez gara... Lagunak baino ez gara. Hala ere, esango dizut gurasoen lagun horiek ez dutela algararik sortu nahi. Inguru zabaletik etortzen dira afaldu ondoren eta musika entzuten aritzen dira –emakumea lasaiago zegoen, dena azaldu izan balu bezala. Dani gaizki sentitu zen.

–Barkatu. Oso arraro jokatu duzu nire lagunak errefusatuz eta giro misteriotsu horrekin etxean ezkutatuz.

–Lasaitasuna gustatzeagatik naiz arraroa? Ezin da lagun musikazale eta isilak eduki? Aipatuko diet gurasoei zu musika saio batera gonbidatzeko –emakumeak jarraitu zuen azalpenarekin–. Bai, arrazoi duzu. Jende berezia eta arraroa da. Begira, ez dira desatseginak, baina niri melomano eta elitista horiek ez naute erakartzen –Dani harritu zen Tesak errandakoagatik. Berehala erantzun zion.

–Zu ere elitista zara! Ez zaizu edonor gustatzen. –Orduan Tesa bere burua lasaitzen saiatu zen. Aurreko eguneko arratsaldean Tesak izan zuen jarreraz mintzatzen ari zen Dani.

–Begira, nik lasaitasuna behar dut. Zure lagunak oso atseginak dira, baina oso zaratatsuak ere bai. Zu, berriz, pertsona lasaia zara. Ni zurekin gustura nago eta ez dut harremana pikutara bota nahi. Zuk ez al duzu berdin pentsatzen? –Ez zuten gehiago hitz egin. Erdi haserre agurtu zuten elkar.

Maiatzak 4, larunbata.

Hurrengo eguean, larunbat goizean, ondoko herrian gizon bat agertu zen hilik, erailik, herri nagusirako bide ondoan, Erburuko sarreran. Zerbitzugunean, gasolindegia bertzaldean topatu zuten. Zibilek eta foruzainek hartu zuten ikerketaren kargu. Lekuko batzuek berehala zabaldu zuten labankadaz hil eta bidetik erraz ikusteko moduan utzi zutela koitadua, odolez blai, prakak eta galtzontziloa jaitsita eta zakila airean.

Aurreko gauean, ortziraletan, euritsua izanda ere, gizajoa lagunekin tabernaz taberna ibili zen eta erdi mozkor etxera aldera joan omen zen ordu txikietan. Ezaguna zen. Antxon Goñi, berrogei bat urtekoa zen, dibortziatua, azken aldian gurasoekin bizi zena. Obretan egiten zuen lan. Langile ona zen, baina bere arazoa zen denbora librean edatea gustatzen zitzaiola eta emakume gazteen atzetik joateko itxura egiten zuela. Eskerrak denek ezagutzen zuten eta bazekiten asmo txarrik ez zuela. Mozkortzea eta emakumezale izatea ziren bere arazo-sortzaileak maila pertsonalean. Ez zuen bertzelako arazorik sortzen, ahobero izatea ez bazen. Batzuek uste zuten bera bezalako hiruzpalau lagunekin edaten eta iji-aja solas eta brometan ibili ondoren, mozkortuta prostituta bati deituko ziola.

Egunean zehar herrian nabaritu zen zibilak ikertzen eta galderak egiten aritu zirela. Dena den, herritarren artean zabaldu zen eraiketa kanpotar batzuek egingo zutela. Gautxoriek ez zuten uste bertako inork horretan parte hartuko zuenik. Gauean, gauerdia pasata, auto batean emakume eder bat eta bi gizon kanpotar heldu zirela zabaldu zuten. Haien berririk ez zegoela ere komentatu zuten. Ikerketek bide zaila hartu zuten. Zibilekin batera foruzainak ere ikertzen ari zirela ikusita ere, pista onik aurkituko ote zuten zalantzan jarri zuten batzuek.

Dani lanean aritu zen eguerdira arte, larunbat guztietan bezala. Esamesen jakitun, uste zuen herriko norbaitek kanpotarren autoa eta hiru susmagarriak ikusiko zituela. Lekukoek eta bere

ingurukoek gaizkileen bertzelako berririk ezean uste haiek ondorioztatu zituzten. Dendariak bezeroen solasetatik lortu zuen informazioa, baina ez zion ezer inori komentatu. Eguerdian lana bukatutakoan joan zen etxera bazkaltzera. Danik etxekoekin bazkaldu eta lo-kuluxka ederra egin zuen, arratsaldea libre zuelako. Arratsalde erdian Tesaren bila joan zenean haren amak esan zion alaba aurreko gauean Donostiara abiatu zela. Danik ez zion sinetsi, hark ez baitzuen bidaiatuko zuenik aipatu, are gutxiago ilunatasunari zion beldurra kontuan izanda. Beraz, susmoak alboratuta, lagunengana jo zuen. Poteatu ondoren elkarrekin afaldu zuten, larunbatetan ohitura zuten bezala. Gauean ondoko herri batera joan ziren dantzatzera eta ongi pasatzera. Gustura aritu ziren, goizeko ordu txikietan herrira itzuli ziren arte.

Gizona etxera heltzean berriro gogoratu zen Tesarekin. Gau osoan zehar, tarteka, etortzen zitzaion kezka. Pentsatu zuen Tesa haserre egonen zela edo erailketa harekin beldurtuta, ez zuela inorekin egon nahi izanen. Une batean irizartarren etxean, Argiñenean, norbait sartu zen lorategiko atetik. Ziurrenez zelatatzen arituko zen zuhaizka baten atzetik. Gauaren isiltasunean gazteari iruditu zitzaion etxe barnetik opera edo meza ospakizunaren antzeko kantu baten doinu eta ahotsak entzun zituela. Hurbiltzean ez zuen deus ere entzun. Arraroa egin zitzaion bertzelako mugimendurik sumatu ez zelako. Bere buruaren engainua edo edandako alkoholaren ondorioz asmatu izango zirelakoan etxera eta ohera abiatu zen zuzenean, nekatuta eta logaleak jota.

Igande goizean auzoko Joxepi kolpez zaurituta eta konortetik gabe aurkitu zuten. Oso arraroa izan zen. Patxi auzokide jubilatuak, goizeko ibilaldia egitera atera zenean, atea irekita eta barneko argiak piztuta aurkitu zuen emakumearen etxea. Sartu zenean, sukaldean topatu zuen lurrean etzanda, konortetik gabe eta erdi hilik.

2 - Katiren desagertpena.

Maiatzak 3, ortziralea

Euria ari zuen. Goizeko bederatziak pasa ziren eta Iruñeko alde zaharreko kaleetan mugimendua handia zen. Dendak, bulegoak eta tabernak eguneroko eginkizunetan hasiak ziren.

Lala, ikertzaile pribatua, presaka zebilen aterkia irekita San Nikolaseko jendearen artean. Zigi-zaga egin zuen tabernen aurretik, aterkien azpian poliki mugitzen zirenak saihestuz. Sei metro atzerago betaurreko eta kazadora beltzeko gizaseme bat disimuluz jarraitzen ari zitzaion. Emakumea, beltzaran, altua, liraina eta polita zen eta arin ibiltzeak ez zizkion grazia eta edertasuna kentzen. Bihotz irudiko aurpegiak, itxuraz aparte nolabaiteko seriotasuna erakusten zuen. Hala ere, pertsona atsegina eta lagunkoia izango zela nabari zen. Jantzera simple eta garbia zen berea: praka tejanoak, burdeos koloreko atorra eta larruzko kazadora marroia.

Taberna batean sartu zen. Aterkia sarreran utzita, barra aurrean eta mahaietan bilatu zuen zelatari ezaguna. Ez topatzean, kafe bat eskatu zuen. Ez zen berandutzeaz harritu, bai baitzekien Maika ez zela oso adeitsua. Neska hark kaleko kontu ilunez ematen zien informazioa eta desagertutako neska bat aurkitzeko behar zuten. Azken aldian desagertutako pertsona batzuen kasuak izan zituzten Lalak eta Jakerrek: ustezko bahitu bat topatzeaz aparte, etxetik ihes egindako mutil nerabea bilatzen eman zuten aurreko astea eta orduantxe Kati Sotas Arregi, 18 urteko neska gazte bat. Kasu zaila izango zela uste zuen.

Kafea bukatu zuenean barra gainean zegoen egunkaria hartu zuen. Venezuelako estatu-kolpearen saiakeraz erreportaje luzea gainbegiratu zuen. Madurok jarraitzen zuen boterean eta gatazkaren azkeneko hilketa eta istiluak kontatzen zituzten. Guaidok eta Lopezek herritarrei kalera ateratzeko deia luzatzen zieten. Lala nahiko nekatuta zegoen gaiarekin eta bestelako berriak bilatu zituen.

Udal eta autonomia hauteskundeetarako kanpainaurrean ari ziren. Nafarroako eskuinen aliantzako buruak Aldaketakoei boteretik erauzteko kristoren promesak egiten zituen, ezinezko agintzak. Nafarroako eskuinak boterean izanda ere, hogeitau urteetan bideratu ez zituztenak: AHTa, AP-15 dohainik, zuntza optikoa... Aurreko igandean Madrileko korteetarako hauteskunde orokorrak eskuinak galdu zituen sozialisten mesedetan; hala ere, eskuin muturrak diputatu asko lortu zituen estreinakoz eta Nafarroako bost diputatuetatik bi eskuinekoak ziren. Estatuko Gorteetarako hauteskunde ondorengo marean gobernurako aliantzak ziren hizpide, baina Nafarroako hauteskundeetarako aurrekanpaina hasia zen aspaldi.

Lalak Maika ikusi zuen tabernan sartzen. Maika kalekume hutsa zen. Hogeitau urteko gaztea trapitxeoz bizi zen, drogak salerosiz. Droga menpean, Iruñeko mundu ilunarekin harremanetan aritzen zen. Lalak susmatzen zuen zaldia ere hartzen zuela. Ez zen berarekin fidatzen, bi ahoko ezpata bailitza beharrezko informazioa edonori saltzen ahal baitzion eta kontraespioitza eginez kaltegarria izan zitekeen. Hala ere, Lalak ikertzen zituen kasuetan behar zituen hura bezalako zelatariak. Horretan pentsatzen ari zela, Maika agertu zen. Ia hitz egin gabe, buruz

elkar agurtuta, kaña pare bat eskatu, ordaindu eta taberna barnean libre zegoen mahai batean eseri ziren. Lala galdetzen hasi zitzaion.

–Maika, zer jakin duzu?

–Gauza handirik ez. Kati izeneko neskarik ez da agertu gure inguruan. Ziur izena aldatu duela. Entzun dut Arrosadiako etxe batean hemengo neska bat sartu dela. Galdetu egingen dut hari buruz. Agian bera izanen da... –Lalak moztu zion.

–Etxe batean aipatzen duzunean, prostituzio-etxe batean erran nahi duzu?

–Bai. Dirua lortzeko eta bizitzeko modu bat da hori. Niri ez zait gustatzen kabroikeriak jasaten ez ditudalako... Eta diruaz hitz eginda, emadazu nirea.

–Informazio garbirik eman gabe? Kati adinez nagusia da, baina buruz ez dabil oso ongi eta botikarik gabe haserrealdiak eta maniak izaten ditu. Izena aldatuta ere, eskuineko belarri eta lepoan erredura bat du nabarmen eta beti eramaten du zapi bat lepoan, biluzik egonda ere. Informazioa egiaztatzen didazunean emanen dizut dirua.

–Ados. Beranduago edo jakinen dut. Deituko dizut dirua jasotzeko –erran zuen bezain laster garagardoa bukatu eta aldendu zen, agurtu gabe.

Ikertzailea une batez geratu zen egoeraren gainean pentsatzen. Maika gai zen hogeituro eurogatik edozer egiteko. Ez zuen dudarik desagertutako neskaz galdetuko zuela, baina baita diruagatik informazioa ezkutatzeko ere. Bertze informatzaile fidagarriagorik bilatu behar zuten Iruñean eta inguruetan. Gorkak, Maitek edota Lorentxok jakinen zuten bilatzen. Aulkitik altxatu eta tabernatik atera zen. Bazuen bulegoko lan atzeratua eta ahal izanez gero gehiena egin nahi zuen arratsaldean, asteburuan libre ibiltzeko. Tabernaren sarrera ondoan, lehen atzetik ibilitako gizonak egunkaria utzi eta Lalari begira geratu zen. Gizonak jarraitu zuen. Ateri zegoen. Emakumea kaletik ibili zen, taldeak eta paseatzaileak saihestuz. Gustuko tabernan sartu zen ohitura zuen bezala ogitartekoak eskatzeko. Bertako Fermi eramateko moduan jasotako ogitartekoak ordaindu zizkion eta agurtu zuen. Lalak bere jarraitzailea ezagutu zuen. Bertze ikertzaile pribatu bat zen, norbaitek bere ibilerak ezagutzeko kontratatutak zuena. Ziur bezero batek kontratatu aurretik lan egiteko moduak ezagutu nahi izango zuen. Lala ohituta zegoen ikertua izateko. Laster jakingo zuen nor izango zen bezero hura.

Lala bulegora heldu zenean Jaker beti bezala topatu zuen, bere lan-habian ordenagailuen aurrean lanean eta kristalezko botila bat ur ondoan. Askotan orduak pasatzen zituen handik mugitu gabe. Tarteka mugitu behar zuen: ariketa batzuk egiten zituen gorputza mugiarazteko eta noski komunera joateko. Emakumeak musu bat eman zion gizonari eta utzi zuen lanean. Biak lankide eta bikotekideak ziren. Lala, Lara Lasa, kriminalista zen eta Jakerrekin ateratzen hasi zenean jarri zen ikertzaile pribatu lanetan. Orduan Jakerrek ziber-delitu arloan laguntzen zion ikertzaile pribatu bati, Manu Elkanori. Ikasketak bukatzen ari zela, Jaker senargaiaren eskutik hasi zen Lala ikerketa praktikatzen. Bi urte pasa ziren, baina lustroak pasa zirela zirudien. Lala zen ikerketa enpresan nagusia, Jaker ziber-delituetan espezialista eta Lorentxo, Maite eta Gorka laguntzaileak ziren, zelatatze lanetan tarteka ibiltzen zirenak.

Samuel Jaka, ezizenez Jaker, ikerketa-bulego hartan izarra zen. Bere ziber-ikerketek lan gehiena ematen zieten, baina Lala zen kasuak zuzentzen zituena. Nahiz eta arlo horretan lagundu, Lalak teknologia berrietan ez zuen lankidearen maila eta trebezia. Dena den, Lala zen ikerketarako sena eta intuizioa zituena eta baita kriminologiaz ezagupen gehien zuena. Jaker agurtuta, emakumea lan batzuk egiten hasi zen. Hasteko, Katiren kasuko azken mugimenduak

txostenean jaso behar zituen labur. Horiexek ziren bere eginbehar berezkoenak: txostenak egin eta probak jasotzen zituen ordenagailuan, hodeian eta USB-memoria batzuetan. Horretaz gainera, ikerketa-hariak eta erabaki garrantzitsuenak berak hartzen zituen Jakarren adostasun osoz. Alde administratiboak ere betetzen zituen: beraien eta laguntzaileen kotizazioak, aseguruak eta ogasun kontuak.

Handik gutxira atsedean egin zuten bi lankide-bikotekideek. Goiz erdian, ogitartekoak, garagardoak eta kafeak hartu ohi zituzten atsedean eta indarra hartzeko eta hitz egiteko. Jakerrri abisatu ondoren sukaldara sartu zen kafetera prestatzera. Gizona animotsu agertu zen.

–Ez dakizu nolako gosea dudan! Bokata txikiegia iruditzen zait. Eskatu al didazu txorizo-tortillakoa ezta?

–Bai, tripontzi hori! Zer nolako suertea zurea! Jaten duzunarekin ez zara loditzen. Nik, berriz, kontuz ibili behar dut gehiegi ez loditzeko. –Jaker altua eta liraina zen, beltzaran erakargarria eta Lala ez zen lodia, baina mardul samarra zen eta garaiera onekoa. Lala aurpegi ederrekoa zen, begi ilun eta ile beltzekoa. Bikote polita osatzen zuten. Jakerrek ohiturazko erantzuna eman zion.

–Zuk ez duzu gramorik soberan. Emakumerik ederrena zara –gizonak musu bat eman ondoren bere eginkizunaz galdetu zion.

–Katiren berririk izan al duzu?

–Ez. Zelatari horrek ez dit laguntza handirik ematen. Ez naiz fido. Bertze norbait fidagarriagoa behar genuke. Gorkarekin hitz egin behar dut honetaz –Jaker ados zegoen.

–Arrazoi duzu. Gorkak ongi ezagutzen ditu hemengo drogazale gazteen lagunartekoak. –Momentu batez ogitartekoak jateari ekin zioten. Handik gutxira garagardo trago bat egin ondoren Lalak jarraitu zuen solasaldia.

–Zer moduz zure ikerketa?

–Ari naiz ari! Luze joko du lanak. Enpresa horretan segurtasuna ez da behar bezalakoa eta sistema osoa ezabatu ezean, informazioak eta edukiak berreskuratuta lan handia dut sistema garbitzeko. Dena ongi uzteko egun batzuk behar ditut. Dena den, ez dut arazo handirik aurrikusten lan honetan. Konplikatuagoa ikusten dut desagertutako neska hori topatzea.

Azken aldian desagertutako pertsona batzuk bilatzen aritu ziren. Kasu bereziak ziren antza zenez, hasiera batean ematen ez bazuen ere. Adineko gizon bat desagertu zen. Hiru aste pasa zirenean, ikertzaileei komentatu zieten gizonak tontakeria bat egin zezakeela. Familiakoekin haserretuta, emaztearekin dibortziazteketan, bere bizitzaz nekatuta eta nazkatuta, bankutik dirutza atera eta desagertu zen. Ordura arte poliziek ez omen zuten gauza handirik egin eta Lalak denbora eman zuen familia, lagun eta ezagunekin gizonaren ezkutalekua bilatzeko. Bere alaba bat peskizan ibilia zen, baina ez zuen ezer lortu. Lalak egunak pasa zituen galdetzen eta ikertzen, gogoz egin ere. Azkenean, egoera larriaz konturatuta, haren lagun batek pista bat eman zion Lalari: inork bilatuko ez zuen *Costa del Sol*-en, Marbellako apartamentu batean ezkutatzeko asmoa zuela. Lalak berak bilatu zuen eta telefonoz konbentzitu zuen gizona bizi-seinaleak emateko eta egoera normaltzeko. Hark onartu egin zuen familiako batzuekin telefonoz hitz egitea eta lagun batekin egon behar zuela, konfiantzako batekin alegia. Arazoa onbideratu omen zen.

Bertze kasu batean mutil nerabe bat topatu zuten. Erraza izan zen, sare sozialetan harremanetan jarri baitzen lagunekin. Hala ere, Katiren desagerketak kezkatu zuen Lala. Lalak dei egin zion Maikari Katiz galdetzeko.

–Maika, zer dakizu Katiri buruz?

–Deus ez. Pisuan agertu den neska Galiziakoa da, ez da Kati. Hari buruzko informazioa izanez gero deituko dizut. –Komunikazioa eten zuten. Lalak bazekien gezurretan zela, bertzela aipatuko zion gogoz bilatzen jarraituko zuela eta dirua eskatuko zion berriro. Ziur Katiren berri izan zuela eta txuloak, isiltzeko, diru gehiago eman ziola. Informatzaile hura ez zen fidagarria eta utzi behar zuten.

Orduan gogoratu zuen Gorkarekin hitz egin behar zuela, berehala. Momentu hartan bertan egin behar zuen. Bertze salatari edo informatzaile fidagarriago bat behar zuten droga eta prostituzioaren giroetan. Gorkak baietz erran zion. Ezagutzen zuen diruagatik bere burua salduko ez zuen pertsona bat. Ramiro familia onekoa zen eta gazte-gaztea zenetik droga-munduan sartuta zegoen. Bere izaera eta arrazionaltasunari esker kontrolatuta zuen menpekotasuna. Familiaren dirua eta lanpostu ona zeuzkan eta lortu zuen hainbertze maite zuen plazerraz aparte, bizitza normala eramatea. Horrek ez zuen erran nahi mundu horretako gauzak gustukoak zituela. Koka “ona” lortzera joaten zenean bertze drogazaleak ikusten zituen. Drogazale gehien-gehienek bizimodu larria pairatzen zuten eta edozein gauza egiten zuten eguneroko anoa, dosia eskuratzeko: gezurrak bota, xantaia egin, lapurtu, prostituzioan erori eta behar bazen jendea kolpatu edo hil. Berak ez bezala, bizitza nazkagarria izaten zuten, gehienetan emakumeak prostituitzen ziren eta gizonak, behar zuten droga lortzeko, hura aizundu edo adulteratu eta gamelu lanetan ibiltzen ziren. Okerrena zen droga-mafien jokaera. Behin baino gehiagotan droga munduan agintzen zuten mafiosoek lehorraldia inposatzen zuten salneurria handitzeko, droga adulteratzeko edo menpekoak gehiago kontrolatzeko. Mafiosorik malapartatuenak gorrotatzen zituen, dirua lortzeko bizitza miserableak eramatera behartzen baitzituzten drogazale gaixoak. Gaizki eramaten zuen gazteak bihozgabe bihurtzea. Neska adingabe polit haiek gorputza alokatzera eta bizitza saltzera eramaten zituzten nazkagarriek, bortxakeria eta gaiztakeriarik okerrenak jasatera eta egitera behartzen zituzten.

Droga falta zenean, zaleak bilatzen ibiltzen ziren eta edozer egiteko gauza ziren. Mafiako buruek egoera aprobetxatzen zuten neurri gabe. Ramirok ezin zuen hura jasan eta aspaldian ikasi zuen koka ona nori erosi eta badaezpada kopuru handian gordetzen zuen berarentzat eta lagun bakan batzuentzat. Oso garbi zuen ezin zuela egoera aldatu; baina, ahal zuena egiten eta eginen zuen gaizkilerik makurrenen kontra.

Handik ordu gutxitara, Gorkak deitu zion Lalari Ramiroren erantzuna emateko.

–Ramirok kontatu dit prostituta drogazale gazte batzuk ezagutzen dituela eta haiek kontatu diote pisu batean bertako neska bat agertu dela. Bihar informazio gehiago emanen diote.

–Gorka, uste al duzu gizon hori fidatzekoa dela?

–Bai. Arraroa irudituko zaizu, baina ez dut dudarik. Beste batean kontatuko dizut bere historia. Orain utzi behar zaitut.

–Eta prest egonen da guri laguntzeko eta informazioa pasatzeko?

–Bai. Ez dut uste arazorik izango duen. Hitz eginen dugu bihar.

Azken aldian, drogan eroritako gazte gehiago antzeman zuten poliziek. Asteburu guztietan alkoholak jotako neska-mutil gazteek istiluak sortzen zituzten; baina, kezkarriena zen droga gogorrengatik gaindosiak jotako gazteen kasua. Larrialdietan ahal zutena egiten zuten eta batzuetan hil egiten ziren; edonola ere, poliziek ez zuten droga sareetako arduradunik topatu.

Hilabete batzuk lehenago, gaizkile-talde berri bat agertu zela sumatzen zuten poliziek. Delitu gehiago gertatzen ari zen, baina aldaketa kualitatiboa ere bazen. Lehen baino delitu gehiago antzeman zuten joko ilegalean. Asteburuetan, baina baita astez ere joko-partida ilegalak antolatzen zituzten, poker eta erruletan. Kiroletako emaitzen inguruan ere dirutza mugitzen zen, kontrolatu gabeko apustuetan. Joko delitu haiek gaizkile mafia berri batek bultzatzen zuen. Baina, baziren delitu larriagoak: prostituzioa eta drogen salmenta, esaterako. Drogetan, koka eta heroinaz aparte, meta-anfetamina mota desberdin batzuk sintetizatzen zituzten gaizkileek. Laborategietan Kristal, Speed eta MDMA mota berriak sortu zituzten kopuru handitan. Bertze meta-anfetaminek bezala, Speedak berotu eta animatu egiten zuen jendea. Speed edo Kristal deitzen zioten drogari itxura eta ohituraren arabera.

Poliziek drogekin harrapatutako gizajo eta gaixoak oso gazteak ziren eta neska batzuk prostituzioan erori ziren. Dena den, gezurra iruditu arren, baziren nazkagarriagoak izaten ahal ziren delituak: zine snuff edota bestelako bortizkeria batzuk.

3 - Ikara zabaldu zen herri baketsuan.

Maiatzak 5, igandea

Igandean Dani berandu esnatu zen. Aitak kontatu zion semeari Joxepiri gertatutakoa eta eguerdiko poteoan jakin zuena. Zibilek inguruko etxeetako biztanleei galdeketak egiten ibili ziren. Ez zuten gauza handirik jakin, Josepi ia ez baitzen etxetik ateratzen. Emakumeak hirurogeita hamazazpi urte zituen. Alarguna zen eta asteburuetan joaten zitzaizkion seme-alabak, suia, erraina eta bilobak. Haiek eramaten zizkioten jaki eta erosketa batzuk. Noizean behin Daniri egiten zion eskaera bat, baina bertzela bere ibiliak oiloak zaintzea, inguruan itzuli pare bat egitea eta lagunentzat eta bezero gutxi batzuentzat jostun-lanak egitea zen. Emakume lasaia, atsegina eta irekia zen eta ez zitzaion bertzeen kontuetan sartzea gustatzen.

Aurreko egunean, larunbatean, Joxepik ez zuen familiakorik izan etxean. Igandean alaba eta semearen familia osoa espero zuenez aprobetxatu zuen babarrunak prestatzeko. Hurrengo egunean, igandean, goxoago egonen ziren. Arkume txuletak, entsalada aukeran eta umeentzako makarroiak momentuan prestatuko zituen. Egin zuen itzulian, topatu zituen ezagunekin eta Juanita auzokoarekin mintzatzen aritu zen. Ekonomikoan babarrunak bor-bor utzita soineko pare baterako oihalak markatzen eta mozten aritu zen bazkaldu arte. Arratsaldean, lo-kuluxka egin ondoren berriro paseoa egin zuen babarrunen aireak libratzeko. Orduan ikusi zuten azken aldiz. Beranduago soinekoak josten jarraituko zuen, afaldu eta telebista ikusi oheratu arte. Guardia zibil bati eskapatu zitzaion lotuta topatu zutela, soinekoa urratuta eta kolpatuta, makina bat zauriz zartatuta eta kolpe handi batzuen ondorioz hiltzat hartuta utzi omen zuten.

Danik susmo txarrak zituen. Aurreko eguneko pasadizoa berriro hausnartu zuen. Larunbat arratsaldean, Tesarekin geratzeko asmoa zuen inguruko herri batera joateko, behar bada Mendaurrera ere, baina haren bila joan zenean bere amak ipuin bat kontatu zion, Donostiara joan zela esanez eta aipamen misteriotsuak eginez. Bere senak ez zion erran, bada, handik hanka egin behar zuela? Emakumeak jarraitu zuen kontatzen.

–Tesak joan behar zuen Donostiara. Iluntze aldera ihes egiteko beharra sentitu zuen. Gaizkia sentitzen zuela zioen eta Lukasek etxera eraman zuen. –Dani zur eta lur geratu zen. Zer zioen emakume hark? Ez zekien zer egin, zoro hura utzi ala sartu nahi zioten ziriak gehiago galdetu. Lasaitu zuen bere burua eta serioski galdetu zion emakumeari.

–Barkatu, andere, baina zuk ere sinesten al duzu gaizkian eta kontu horietan? –Emakumeak aurpegia aldatu zuen eta haserre erantzun zion.

–Aizu, gazte, eguzkia eta ilargia existitzen al dira?... Gaizkia ez da ikusten, baina izan bada eta hor duzu proba.

–Zer proba diozu? –bota zuen harrituta.

–Hil duten gizona. Deabruak edo bere zerbitzariak hil dute.

–Andrea... Zuk zerbait gehiago al dakizu?

–Ez, baina Deabruaren presentzia nabari da –Danik ez zekien zer pentsatu.

Igande arratsean, afaldutakoan, Dani bere gelara joan zen. Irakurtzen ari zen liburua hartu eta berehala utzi zuen urduri zegoelako. Egunean zehar euria egin bazuen ere, ateri zegoen momentuz. Iluntzen ari zen eta kanpora begiratu zuen. Ilunabarra ederra zen. Balkoian eseri zen mendebaldera begira, freskura dastatzeko. Hodei arrastoek are ederragoa egiten zuten ilunabar gorria. Minutu eternalak pasa zituen arnasa pausatuz. Lasaiago, une batez ongi eta bakean sentitu zen bere buruarekin.

Irizararren etxera begiratu zuen. Bigarren solairuko leiho batean argitasuna ikusi zuen. Tesa bere gelan egonen zen, baina gainerakoan, etxean, ez zen mugimendurik sumatzen. Orduantxe bi auto agertu ziren, argiak itzali zituzten eta etxearen ondoko karrika estuan aparkatu zuten, ezkutuan ibili izan balira bezala. Etorritako jendea, zaratarik egin gabe, etxeko lorategiko atletik sartu zen etxean. Herrian bizi zuten larrialdiak kezkatuta, jende arrotz horren misterioa argitzeko gogoia piztu zitzaion Daniri.

Gaztea kalera atera zen arin eta isilik. Irekita zegoen lorategiko atletik sukaldean sartu zen. Badaezpada, bertze arrotzik agertuko zen beldurrez, mahai azpira sartu zen. Garaiz egin ere, iluntasunean bertze bi itzal agertu eta pasa ziren etxean barneratzeko. Momentuz bertze inor agertu ez zenez, tentuz sartu zen jantoki-egongelan. Zaratei adi, eskailera azpitik zerbait somatzen ahal zela pentsatu zuen. Sotoan gela itxi batetik doinu bat entzun zuen: opera-musika zen hura, ez oso ozena, baina etxe barnean nabaritzeko modukoa. Gezurra zirudien, baina opera-soinuaren azpitik pertsona batzuk otoitz egiten ari ziren. Une hartan goiko solairutik norbait zetorrela nabaritu zuen. Sofa baten atzean kukubilka jarri zen. Iluntasunean Tesa pasa zen poliki, sonambulu egon balitz bezala, bere gelatik sotoaren bidera. Gizona lelotuta geratu zen, zer pentsatu jakin gabe. Oihu batzuk entzun zituela iruditu zitzaion. Dena ilun, sotoaren ate azpitik argitasun mugikor berezi bat pasatzen ari zen, kandela batzuk piztu izan balituzte bezala. Errezoak ozenago entzuten ari ziren opera-musikaren gainetik. Harrituta eta izututa geratu zen ezin mugituz. Ez zen sotoaren atea irekitzera ausartu.

Nola edo hala, kontu handiz bere etxera eta gelara heldu zen. Ordu erdia pasatuta ere ez zekien zer pentsatu. Garbi izan zuen Maria Teresa manipulatzeko ari zitzaiola. Ez zekien nola, baina zerbait larriaren aurrean zegoen. Dena den, ez zuen emakumea ahaztu: Tesa arriskuan egoten ahal zen. Zer gertatzen ari zen jakiteko laguntza behar zuen eta ez zuen asmatzen nola. Bat-batean txikitako ikaskide eta lagun bat gogoratu zuen. Lontxo herri batekoa zen bera bezala, euskalduna eta erresidentzian gelakide izatea tokatu zitzaion. Lorentxo, Lontxo, automekanikaria zen, baina ikertzaile batzuentzat lan egiten zuen. Kasuetan zaintzak eta jarraipenak baino egiten ez bazituen ere, berak jakinen zuen zer egin. Konfiantza zuen eta dena kontatu behar zion une hartan. Pentsatu eta egin. Orduantxe deitu zion telefonoz. Lagunak

hasieratik ulertu egin zuen Daniren kezka. Hala ere, zalantza batzuk azaldu zizkion Daniri.

–Dani, barkatu baina ez dut ulertu zer nahi duzun!

–Nahi dudana da zuk laguntzea. Ez al duzu egingen? –Lontxok harriduraadierazi zuen.

–Ez izan dudarik. Bai, lagunduko dizut. Ez dakidana da nola nahi duzun laguntzea.

–Uste nuen zuk jakinen zenuela nola egin. Ni ez naiz ikertzailea!

–Lasai, Dani. Egin dezakeguna lehen-lehenik zer gertatzen ari den behar bezala jakitea da. Zelatatu egin behar dugu eta jakin behar dugu zer egiten duten etxe horretan. Bururatzen zaidana da ikertzaile profesionali laguntza eskatzea. Mikroak eta kamera txikiak jarri behar ditugu, lehenbailehen grabazioak eta probak izateko –Danik ez zuen horrelako presarik espero bat-batean.

–Noiz egin dezakegu? Noiz ekar ditzakezu traste horiek?

–Lehen-lehenik Lalarekin mintzatuko naiz eta bihar edo etzi joanen naiz zuregana trasteekin. Zer iruditzen zaizu? –Daniri primeran iruditu zitzaion.

Bahitutako gaztea.

Gaztea esnatu zen. Hobe erranda: konortea berreskuratu zuen. Gela ia ilunpean zegoen. Argizari beltz handi batzuek gela handiaren bertzaldean ia ez zioten ondoko mahaia eta aulki anitzak ikusten uzten. Bertzela, gela hormigoizkoa zen eta ez zuen leihorik, ezta bertze zirrikiturik sartzeko, atea izan ezik. Paretak soilak ziren, bere atzealdean margotutakoa ez bazen. Bera eserleku altu eta zabal batean zegoen biluzik, gainean tapaki bat zuelarik. Plastikozko bridek ez zioten besaulkitik mugitzen uzten, ezta burua bueltatzen ere. Ondoko mahaiaren gainean, labanak, ziriak eta bertze tresna batzuk sumatu zituen. Haiekin ziztatu zioten gorputza aurreko egunean eta ebakiak egin zizkioten ordu batzuk lehenago. Hasieran, pertsona gutxi batzuk ibili zitzaizkion torturatzen, ongi mozorrotuta. Azkenean, jende gehiago kantuan hasi baino lehen, zapi batekin estali zizkioten begiak. Arraroena zen mezakoak bezalako kantak eta otoitzak egin zituztela.

Momentu hartan ez zituen begiak estalirik, baina mina gainditu zuen neurrian gorputzeko beharrak eta egarria sentitu zituen. Eskerrak besaulki hura prestatuta zegoen eta pixontzi bat ipurdiaren azpian zuen! Txarrena, usaina jasan beharra zen. Berriro gogoratu zuen gertatua: aurreko arratsaldean drogatu zuten eta esnatu zenean mozorrodunek ziztadak egin zizkioten ia kontu handiz. Bi gizon eta emakume bat ziren eta ebakuntza egin baliote bezalakoa zen. Min-puntuak eta odol jarioak ikertzen aritu ziren. Gustura geratu zirenean, jaten eman, pixontzia aldatu zioten eta bakean utzi zuten. Egunean zehar lo egiten utzi zioten eta jan-edanak eman zizkioten. Ez zuen ordura arte beldurrik pasa, tartean heroina eman ziotelako. Ordu batzuk lehenago, ordea, afalorduaren ondoren izango zen entzun zienaren arabera, begiak estali zizkioten berriro eta beldur handia pasa zuen. Otoitz eta kantuen artean ebakiak eta odol galtzeak nabaritu zituen. Minaren minez eta beldurrez oihukatu zuen arren ez zioten kasurik egin. Samael, Satan eta Luzifer izenak entzun zituen: leloak errepikatzean izen eta esaldi zati batzuk entzun zituen:

*“Bel hesama Satan, akahim nem Samael.
Bel inamiarin Luzifer.
Bela Samael.”*

Azkenik zeremonia hura bukatu zutenean berriro drogatu zuten. Anestesikoa izanen zen, konortea galdu zuelako.

4 - Iruñeko meza satanikoak.

Egun batean berri batek aztoratu zuen Iruñeko jendarte osoa. Etxabe batean meza beltz bat antolatu zuten eta atea irekita utzi zuten mundu guztiak, ingurukoek eta publikoak orokorrean jakin zezan. Hormak zenbait esaldi eta hitz arrotz margotu zituzten odola erabiliz. Garbi zegoen meza beltza, meza sataniko bat egin zutela. Aldare antzeko mahaian animalia bat sakrifikatu egin zuten. Haren ondoan alderantzizko gurutze bat eta atzealdeko horma osoan pentakuloa ere jarri zituzten, meza sataniko bat zela garbi uzteko. Ez zen lehen aldia.

Edonola ere, azken bolada hartan, adierazpen harekin batera beste delitu mota batzuk areagotu ziren: mafia berri batek prostituzioa, joko ilegala, bortxakeria eta drogen kontsumoa handitu zuen. Delitu haiek kezkatu egin zituzten polizia zerbitzu guztiak. Edonola ere, orduko bandalismoaz mozorrotuta, panorama osatzeko, meza sataniko batzuk gertatzen ari ziren. Lokal, fabrika eta hainbat txokotan, baita hutsik zeuden aparteko txaletetan, satanikoek aprobetxatu zuten meza beltzak egiteko.

Iruñeko udaltzaingoan bi urte lehenago Delitu Larrietarako Taldea sortu zuten, Manuel Elkano inspektoreak zuzentzen zuena. Elkano inspektoreak deitu zion Jabier Lopezi, Foruzaingoko komisarioari.

–Jabier Lopez komisarioa, mesedez? –Foruzaingoan hari pasatu zioten deia nork hitz egin nahi zuen erran ondoren.

–Manuel Elkano inspektorea! Manu, nola zaude? Zer moduz etxeakoak?

–Kaixo, Jabier. Gu ongi eta zuek?

–Ongi ere bai. Normalean txostenak bidaltzen dizkiguzue edota bertzela Ainarak hitz egiten du Ramon Zudaire inspektorearekin. Zer diozu?

–Begira Jabier, topatu dugun meza beltzaren aztarnek progresio eta aktibitate handitze bat adierazten dute. Uste dut zerbait larriaren aurrean gaudela. –Nabari zen gizona kezkatuta zegoela. Komisarioa ere delitu haietaz jakitun zen.

–Bai, ulertu egiten dizut arrazoinamendua. Neuk ere pentsatu dut azkeneko meza horrek diferentzia eta progresioa adierazten duela. Bai, zuekin behintzat ongi egiten dugu lan. Zibilekin eta poliziekin borrokan ibili behar izaten dugu, kasuetan nork agintzen duen erabakitzeko. –Gizonek handik aurrera koordinazio estua segurtatzeko protokoloa errepasatu eta ziurtatu zuten.

Manuren istorioa

Manu Elkano inspektorea bi urte lehenago Jakerrekin lan egiten zuen ikertzailea zen, nagusia hain zuzen ere. Eszedentzian zegoen orduan eta udaltzain-buruak deitu zion talde berezi hura martxan jartzeko. Udaltzainek delitu larriak topatzen zituztenean taldeak ardura hartuko zuen jarraitzeko, ikertzeko edota foruzainei pasatzeko. Foruzaingoarekin koordinazioa ere burutu behar zuen inspektoreak. Garai hartan Manu Elkano lanagatik ibili zen arriskuan. Gainera, ordutegi aldakorrak eta txarrak zituen seme-alabez arduratzeko. Bananduta zegoen lanak sortzen zuen arriskua zela kausa. Lan berriarekin, udaltzain-inspektore bezala, talde baten buru, lasaiago bizi zen, goizeko ordutegia izaki, desorduetan lana beste batzuen esku uzteko aukera baitzuen. Bere bizitza berreskuratu zuen. Berrito itzuli zen familiaren etxera eta Miren emazteak eta biek bakea egin zuten.

Pasa zen urte eta erdian, Udaltzaingoko Delitu Larrietarako zerbitzu hartan lan lasaia izan zuten gehienetan; ez beti, ordea. Salaketa bat jasotzen zutenean, delitu larria izanez gero, taldeak izaten zuen kasuaren lehen arreta, nahiz eta gehienetan Foruzaingoak hartzen zuen. Baina zenbaitetan, genero bortizkeria, bortxakeria eta gaizkileen arteko borrokak udaltzainek beraiek kontrolatu behar izaten zituzten. Prebentzio kasuetan zaintzak eta informeak egiten zituzten. Beste batzuetan, delitua Iruñean gauzatuz gero, Foruzaingoak erabakita, Manuk eta Ainarak beren lankideen laguntzaz hartzen zuten kasuen ardura osoa. Edonola ere, kalean gertatzen ari ziren delitu berriak eta auzoetako udaltzainak ziren delitu haietaz informazioa jasotzen zuten lehenak. Derrigorrezkoa zen udaltzainen eta foruzainen elkarlana.

Aurreko astean herritar batzuek abisatu zioten udaltzaingoari lantegi zahar batean txikizio arraroa topatu zutela. Auzoko udaltzainek abandonatutako eraikin batean, bandalismo eta grafitiak aparte, zeremonia baten aztarna zikinak topatu zituzten: garbi zegoen aldare bat egiteko astotxo handi batzuk, ohol zabal bat eta odolez zikindutako maindire zuri bat erabili zutela. Lekua sakrifizio baten aztarnaz beterik zegoen eta odolez ziprztinduta utzi zuten dena. Aurkitu zuten animalia gorpua txerri batena zen. Odola jasoko zuten ontzi batean, baina odol gehiena handik ziprztindu zuten. Moztutako burua han zegoen aldarearen erdian, gertatutakoaren testigu bakarra. Areto handi hartan, zutabeetatik suziak jarri zituzten argitasuna izateko. Festa edo zeremonia egin izanaren proba, lurrean barreiatutako animalia gorpuzkiak eta kontrastean lore sortak eta Hawaikoak bezalako lepokoak nonahi topatzen ahal ziren.

Ez zen kontu berria. Hura ez zen leku abandonatuetan *“ikuskitun”* bat topatzen zuten lehenengo aldia. Berrito ere, Zaragoza etorbidetik hurbil, aspaldiko lantegietako eraikin batean odol eta zeremonia beltzen arrastoak topatu zituzten lehenago, baina ez orduan bezain nabarmen. Bazirudien bost axola ziela batzuei beren azio edo makurkerien berri izateak. Udaltzainek bazekiten aurreko batzuetan droga eta sexu-orgia batzuk izan zirela. Odol, bertze aztarna biologiko batzuk, koka, speed eta bertze anfetamina batzuen laginak jaso zituzten. Biologikoen, lejiar hondatuta egoteagatik, ez zuten informazio zehatzik emateko balio izan. Gaztetxo batzuk, txikizio hura topatzean, zur eta lur geratu ziren. Beldurtuta, utzi egin zuten lantegi hura, baina haietako batek gurasoei kontatu zien eta haiek salaketa jarri zuten udaltzaingoan. Aurrekoan ez bezala, auzo-udaltzain bikoteak frogak jaso, argazkiak egin eta txosten bat osatu zuten beraien agintarien aginduz. Larrialdietarako Taldean Elkano

inspektoreak jaso zituen argazkiak eta txostena eta Foruzaingoari pasa zizkion. Zudaire inspektoreak Jabier Lopez komisarioari komentatu zionean honek zerbait larriaren seinalea izan zitekeela pentsatu zuen. Berehala, Larrialdietarako Taldeak kasua gehiago aztertzea erabaki zuen. Aspaldiko bi lagunek serioski hitz egin zuten.

–Manu, nik zuk bezala uste dut hau larria izan daitekeela. Bertze meza beltz bat... Baina hau larriagoa da.

–Zergatik diozu?

–Odol asko aurkitu genuen hiltegi moduko hartan. Odola analizatu zuten eta pertsona batena da. Han odolustuko zuten biktima. Edonola ere, ez dugu gorpurik topatu.

Bazirudien ez zutela arazorik arrastoak uzteko. Satanikoei berdin zitzaien beren ekintzak inork ezagutzea. Are gehiago, nahita utzi zituzten beren azioen arrastoak. Noizbait, bi aste lehenago, bertze meza baten berri izan zuten, antzeko egoera batean, baina ez zioten kasu gehiegirik egin. Manuk, informazio gehiagoren beharrea, lankide izandako ikertzaile pribatuei deitu zion. Lalari galdetuta, emakumeak erantzun zion aditua zuela zerbait, baina ez zuen zehaztasunik ezagutzen. Lalak harridura eta jakin-mina adierazi zituen. Berak buruan zuen kasua, Katirena, gainera kontatu egin zion nagusi ohiari. Hala ere, azkeneko kasuaz eta txikiziaz galdetu nahi izan zion Manu Elkanori.

–Ongi gorde duzue gertatutakoa. Jendeak ez daki lehengo asteetako meza beltzei buruz ezer. Zer topatu zenuten lantegi hartan?

–Meza baten aztarna nazkagarriak. Hildakorik ez, baina odola litroka.

–Nor zen biktima?

–Gizonezko bat, DNA delakoaren arabera. Ez dugu gorpurik topatu. Informazioa jasotzen ari gara ezer larriagoa gertatu baino lehen.

–Zerbait jakinez gero, berehala erranen dizut. Desagertutako Katiren pistarik ezagutuz gero, gauza bera egitea espero dut. –Bi lagunek agurtu zuten elkar.

Handik gutxira bertze desagertu baten berri izan zuten ikertzaileek, baina ez zen bahiketa. Juan Marchena bakarrik bizi zen, pentsioduna zen, oso pobrea eta bertze pertsonekin harreman gutxi zuenez, aste batzuk pasa ziren inor desagertez konturatu zen arte.

5 - Ihesean.

Maiatzak 6, astelehena

Astelehenean Dani oso goiz abiatu zen lanera. Supermerkatua ireki zuen eta ziztu batean dena prest izan zuen bezeroei kasu egiteko. Denda ongi antolatuta zeukaten eta apalak horniturik. Behin barazki eta fruitu freskoak hozkailutik atera zituenean, kutxaren ondoan eseri zen botil bat ur aldean egunkaria irakurtzera. Bezero batzuk hasi ziren agertzen. Agurtu, galderaren bat erantzun eta kutxan, betiko lanean murgildu zen. Konturatzeko Nekane agertu zen eta txandakatu ziren kutxan eta horniketa lanetan. Jenderik ez zenean, biak aritzen ziren produktuak apaletan kokatzen. Bi garraiolari ere agertu ziren eta beren zama utzi zuten ondoko biltegian. Eguerdian Dani etxeratu zen sukaldean produktu eta jaki batzuk armairu eta hozkailuan sartu eta ohi bezala gurasoekin bazkaldu zuen. Ongi konpontzen zen gurasoekin eta gustura bazkaldu zuten betiko solasak tartean. Ondoren, ohituraz gelara joaten zen lo-kuluxka egitera. Ez zuen loak hartu, ordea. Tesarengan pentsatzen hasi zen.

Emakumeak erakarri eta beldurtu egiten zuen neurri berean. Zerbait ezkutatzeko zuen eta etxe hartan mugimendu susmagarriak egiten zituzten. Ez zen erabat ziur, ezin baitzuen sinetsi Tesa pertsona makurra izatea. Berezia eta bakartia zen, baina inozentea ere bai eta agian ez zuen jakinen etxe hartan zerbait arraroa egiten zutenik. Haren begirada sakonak erran zion berak ez zuela parte hartu tortura haietan. Orduantxe Lontxok deitu zion Daniri.

–Dani, hitz egin dut Lalarekin. Ados dago. Mikroak, kamerak eta grabagailuak lortu ditut eta arratsaldean bertan joanen naiz zuri eramatera. Azalduko dizut nola jartzen diren, oso erraza da-eta.

Geratu ziren bezala Lontxo lagunaren superretik pasa zen ixteko orduan. Behin etxean, gailuak paratzen eta martxan jartzen erakutsi zion. Ezkutatzeko garrantzitsua zen eta gelan praktikatu zuten afari-merienda egin arte. Lontxo noizean behin agertzen zen etxe hartatik eta ongi konpontzen zen lagunaren gurasoekin.

Danik ez zuen Lontxoren laguntza onartu trasteak jartzeko. Laguna joan zenean, gaututakoan, Dani hurbildu zen irizartarren etxera. Astelehena izaki, ez zuen bilerarik espero eta gailuak jartzeko momentu ona zela uste izan zuen. Disimuluz, irizartarren etxean sartu zen irekita zegoen lorategiko atetik. Uste bezala, atea irekita zegoen. Sukaldetik pasa eta egongelan ez zuen inoren arrastorik topatu. Ilunpetan zegoen eskaileratik sotora jaitsi zen. Han janari biltegi txikia eta ardo botiletarako armairua ikusi zituen. Dena den, atzealdean itxita zegoen atea ezin izan zuen ireki. Ezin izan zen sotoko gelan sartu. Sotoko ateari begira eta beheko eskaileretan kamerak jarri zituen: goitik jaitsiko zirenean aurpegiak grabatuko zituen kamerarekin eta sotoaren atea irekita izanez gero barnekoa begiztatzeko moduan utzi zuen bertze kamera, ustez ez ikusteko moduan. Mikroak ere sotoaren ate ondoan eta lehenengo pisuan bi leku

desberdinetan jarri zituen. Kontu handiz prestatu zen ateratzeko. Etxekoak goiko geletan edota egongela txikian egonen ziren, kanpotik ikusi zituen leihoetako argien arabera. Edonola ere, ez zen inoren ahotsik entzun. Tesa ez zen han izanen, Donostian baizik. Hara joateko asmoa zuen astez lanean egoteko. Berera itzulita, Lontxok utzitako maletina ireki zuen: aparatu hark entzuketak eta imajinak jasoko zituen eta Dani prestatu zen kontu hartan eroso eta adi egoteko. Gurasoei agur eginda sartu zen logelan, antza zenez irakurtzeko eta berehala lotara joateko.

Danik irakurtzen eman zuen ordu erdi bat. Hala ere, entzungailuaren "*pinganilloa*" belarran, ohean sartu zen eta loak hartu zuen konturatu gabe. Kamerak eta ahots-grabagailuak mugimendu eta hotsekin jartzen ziren martxan. Bat-batean esnatu zen. Aparatua ahotsak jasotzen ari zen. Arretaz entzun zuen. Urrunegi izanen ziren ahotsak ongi hartu ahal izateko. Ordu erdi bat pasa zen urrutiko ahots ulergaitzak jasotzen. Baina une batean zerbait entzun zuen argi eta garbi:

–Fernando, eramaiozu janaria neskari.

–Marisa, egizu zuk, ni nekatuta nago-eta.

–Aizu, señorito, nik prestatu dut afaria. Zoaz eta atera pixontzia. Goizean garbituko dugu eta Iruñean utziko dugu parke batean ongi drogatuta. Neskak ez du sakrifizioetarako balio. Badaezpada errazena gaindosia ematea izango litzateke.

–Bai. Denbora galdu dugu. Behar bezalako neska lortu behar dugu. –Zarata bat entzun zen eta berehala emakumearen ahots asaldatua.

–Zer da botoi hori? –Eten baten ondoren zarata arraroa entzun zen.

–Mikrofonoak dira. Hau ere mikrofonoa da –oihukatu zuen emakumeak, gizonak birao bat bota zuen bitartean.

–Nork jarri... –isiltasuna egin zen.

Danik ez zuen zalantzarik. Topatu egin zituzten mikrofonoak. Kamera txikiak topatzea denbora kontua zen eta zelataria bera zela asmatzea ere bai. Entzun zuenaren arabera neska bati gaindosia eman behar zioten eta Iruñean utzi. Sakrifizioetarako ez zuela balio zioten. Zeremonia haiek zer ziren? Urduritu egin zen eta lasaitzen eta pentsatzen saiatu zen. Zalantzarik gabe bera harrapatu eta isilarazi nahi izanen zuten. Irizartarrek bazituzten lagunak bera harrapatzeko. Hil ala biziko egoera zen hura.

Danik bideo-kameratik jasotako imajinak begiztatu zituen. Senar-emazteak eskaileratik pasatzen ikusi ahal izan zituen. Besterik gabe, entzundakoa nahikoa zen adineko bikotekide biek neska bat torturatu eta hiltzeko asmoa zutela probatzeko? Ez zegoen ziur. Adineko bikotekideek erraten ahal zuten antzezlan bat entseatzen ari zirela. Berandu izanda ere, gizonak Guardia Zibilei deitu zien kasua kontatzeko. Beraiek eramaten zituzten bertako hildako eta zaurituaren kasuak. Zaintzako zibilak salaketa entzundakoan bertze zibil bati zerbait kontatu zion eta eskaerari erantzunez Daniri eskatu egin zion kuartelean agertzeko eta salaketa

formala egiteko. Bazirudien ez ziotela sinetsi. Horrek erran nahi zuen zibilak ez zirela berehala agertuko, bertzerik gabe, gaizkileak atxilotzera. Leihotik begiratu zuenean norbait bera zelatatzen sumatu zuen. Ezin zen lasai geratu. Ahal izanen zutenean harrapatu eta ordainaraziko zioten salatu izana. Ihes egitea bertze erremediorik ez zuen. Bazekien auzoko haiek armak eta drogak zituztela. Beldurraren beldurrez une batez harrapatuko zutela pentsatzen egon zen. Lasaitu zenean ihes egiteko nola egingen zuen hausnartu zuen. Probak zituen eta bilatu behar zuen libratzeko edo ihes egiteko modua. Gurasoen etxea eta supermerkatua zelatatuko zituzten. Gutxien espero zutenean laster autoz atera eta Iruñera abiatuko zen. Ez zen guardia zibilengana edo foruzainengana joaten ausartu, gaizkileek bidean espero izanen baitzuten.

Tenore hartan, Lontxorekin hitz egin zuen. Gertatutako guztia kontatu ondoren, lagunak ere uste zuen ihes egin behar zuela. Dena den, inportanteena probak ongi gordetzea zenez, Lontxori korreoz bidali zizkion grabazioak. Goizaldean lagunaren pisuan elkartuko ziren. Bitartean, orduko Daniren laguna eta bikotekide ohia izandako Anarekin hitz egin zuen telefonoz. Hark, Izaskun, Gotzone, Andoni, Santi eta gurasoei kontatuko zien biharamunean. Nekaneri ere azaldu behar izan zion gertatutakoa, berak superraren kargu hartzeko.

6 - Lalaren kezkak.

Maiatzak 5, igandean.

Pertsianaren zirrikituetatik argitasuna sartzen ari zen. Lala altxatu zenean, erdi lotan, txabusina hartu eta komunera joan behar izan zuen. Behin pixa eginda, eskuak eta aurpegia garbitu zituen. Jaker ikusi zuen aho zabalik gora begira zurrunga txikian. Bakean utzi zuen aurreko gauean berandu arte ibili zirelako eta festa eguna zelako. Goizeko hamaikak ziren eta gosaltzeko gogoia sentitu zuen. Orduan konturatu zen euria ari zuela gogoz, zaparradaren zarra-zarra entzun baitzen. Balkoira hurbildu zen. Atea ireki gabe hozkirria sentitu zuen. Gosaria prestatzen hasi zen: hozkailutik gauzak atera, ogia txigortzen jarri eta kafetera prestatu zuen. Dena prest eta eskura, gustura dastatu zituen kafesne goxoa eta ogi txigortuak marmelada eta gurinarekin.

Igandea zenez ez zuten presaka ibiltzeko beharrik. Balkoiko ate ondoan geratu zen kanpora egun ilun eta bustiari begira. Orduan Jaker agertu zen agurtzera. Atzetik besarkatu zuen eta musu bat eman zion lepoan. Lala altua zen, baina Jaker gehiago. Bikote ederra osatzen zuten. Gizon beltzaran luzangak, askatu gabe, hitz egin zion emeki, zuketan ohitura zuten bezala.

—Goiz altxatu zara. Zure falta nabaritu dut —emakumea ere poliki mintzatu zitzaion. Aurpegia erdizka bueltatuz irri egin zion.

—Gosetuta nengoen elefante bat jateko gogoz eta egarritz.

—Nik zu jan eginen zintuzket —erran zion, lepoan kosk txikia egiten zion bitartean. Emakumeak bultzada egin ez atzera bota eta erantzun zion.

—Hara, kanibala! Zoaz sukaldera, kafea hoztu baino lehen. Ni berehala naiz zurekin, luzaketa batzuk egin eta dutxatu ondoren. Gogoratu zure gurasoenera bazkaltzera joanen garela.

Ostiraletik igande goiza bitartean gauza anitz egin zuten bikotekideek. Ostiral gauean Jakerrek Donostian lan-elkarteko beste ziberzale batzuekin lan-afaria ospatu zuen bitartean, Lala txikitako lagunekin izan zen. Askotan elkartzen ziren konfiantzako lagunak. Urte gutxi zutenetik mantentzen zuten laguntasuna eta Arantxa, Biki, Izas eta Lala elkarrekin ibiltzen ziren, nahiz eta ikasketa desberdinak egin. Lalarentzat betiko lagun minak ziren haiek. Izasekin zuen sintoniarik handiena, baina bazekien Aran edo Bikirekin ez zuela inolako zalantzarik izan behar. Gustura afaldu zuten eta ondoren Aranen etxean elkartu ziren —alaba txikiak lotan ziren artean—, lasai hitz egiteko. Ohitura zuten kanpora ateratzeko, baina noizean behin haietako baten etxean geratzen ziren beren bizitzaz eta kezkez mintzatzeko.

Larunbat goizean motxila txikiak prestatu eta mendira atera ziren. Jaker eta Lala, Irune eta Xabi lagunak bidean hartuta autoz hurbildu ziren Higara. Elomendi egin nahi zuten berriro aspaldiko partez. Zubia pasa eta inguruka egin zuten bide luzeagoa baina politagoa, ia bi orduan jo eta ke igotzeari ekinez. Nolanahi ere, komentarioak egiten zituzten noizbehinka eta geldiuneak arnasa berreskuratzeko eta ikuspegiak gozatzeko. Azken zati zaila kateei esker errazago egin zuten. Tontorrean antenetako eremutik pasa eta Santa Barbara basiliza ondoan zerbait ahoratu zuten. Ikusmira ederraz gozatu zuten, soroak, herriak eta Iruñerria urrutian hodeien artean sumatzen zelarik. Jaitsiera zuzenago egin ondoren Monrealeko kafetegian geratu ziren zerbait bazkaltzeko. Kafetegian entsaladak, kazuelak, pintxoak, frijituak eta konbinatuak eskaintzen zituzten eta gustura bazkaldu zuten elkarrekin. Xabi Jakerren laguna zen

unibertsitate garaitik informatika ikastaro batzuetan aritzeagatik. Irunek haren neska-lagunak eta biek osasunbidean egiten zuten lan. Familia-sendagileak ziren Iruñeko osasun etxeetan eta lan handia eta neketsua egiten zuten. Behin eseri eta bazkaria ekarri zietenean, garagardoaren laguntzaz beste bikotekideek beren bizimoduaz eta lanaz hasi ziren hizketan. Zehazki, Iruñe kexatu zen.

–Bihar lan egin behar izanen dugu. Badugu egun osoan zaintza Ermitagañako osasun zentroan. Asteko lanaldia gogorra izaten da, baina guardia tokatzen zaigunean asteburu eskasa suertatzen da... –Emakumeak ordura arte hain normal, bere ezinegona erakutsi zuen. Xabik, desenkusatzeko, egoera azaldu zien.

–Iruñe haserre dago biharko zaintzagatik ezin garelako lasai gaur gauean ibili. Arrazoi du, kontratu mugatua dugu eta hilabeteak pasa daitezke lanik egin gabe. Sendagileak behar izanda ere, ez dituzte oposizioak ateratzen eta bitartean asteburuetan zaintzak egin behar ditugu. Eskerrak honetan bezala gehienetan biok batera egiten ditugun! –Behin lanaz kexak azaltzen hasita, Lalak aprobetxatu zuen zuzenean galdetzeko.

–Ikasketa gogorrak egin ondoren, MIR delakoa burutu eta horrela ibili behar izatea ere! Ez al dira gauzak aldatu Osasunbidean?

–Bai, ospitaletan ematen duten janarian –aipatu zuen ironiaz Iruñe–, gainerakoan urte luzeetan egin ez ziren gastuak direla-eta gutxi aldatu da egoera –Xabik ere zerbait adierazi zuen.

–Azken urteetan zerbitzuak hobetu nahi zituztela zioten. Hala ere, saiatu besterik ez dute egin. Aldaketa batzuk izan dira antolaketan eta materialki zerbait ikusi da. Edozein modutan osasun etxeetan beti bezain lanpetuta gabilta eta plantila erdiek aldi baterako kontratuekin jarraitzen dugu. Inbertsio batzuk egin dira, baina pertsonaletan ez dute gauza handirik egin. Hurrengo hilabeteetan egoera aldatzea espero dugu. Ikusiko dugu hauteskundeak pasata agintzen ari diren gauzak benetan betetzen dituzten.

Bazkaldutakoan, lau lagunak Iruñerrira itzuli ziren. Arratsaldean bikotekideak etxean geratu ziren lasai egoteko, irakurtzeko, nahiz eta une batean gurasoekin eta lagun batzuekin mezu batzuk gurutzatzen aritu. Gauean Gorka, Maite eta Lontxorekin geratu ziren alde zaharrear garagardo pare bat hartzeko eta Maiteren urtebetetzea afari batekin ospatzeko. Gorka eta Lontxo Jakerren txikitako lagunak ziren. Berez, auto-mekanikariak ziren eta orduka, gauez gehienetan, ikerketetarako jarraipenak eta zelatatze lanak egiten zituzten agentziarako. Haien bidez sartu zen Jaker ikerketaren munduan. Handik gutxira Lala kriminologia bukatzen ari zela, Jakerrekin ateratzen eta agentzian ikertzen ere hasi zen aldi berean. Lau lagunek talde eraginkorra osatu egiten zuten Manu Elkanoren gidaritzapean. Bi urte lehenago azken honek eszedentzia bukatu eta Udaltzaingoko Delitu Larrietako Taldeko burutza hartu behar zuen garaian Lalari erakutsi zion lanaren gauzarik garrantzitsuenak. Orditik ongi egin zuten lan, lankidetzaz aparte lagun onak zirelarik. Maite Baztan aurreko urtean sartu zen lan taldean eta lagunartekoan. Lan mota hartan laguntasuna tartekatzea ez zen ohikoa, baina taldekide gehienek kasuan laguntasuna izan zen lehendik, gero lan kontuetara zabaldu zena. Are gehiago, lagun izateak guztien ongizateaz arduratzea esan nahi zuen eta gustura ari ziren. Gau hartan Maiteren urtebetetzea ospatzeko elkartuko ziren afaria eginez.

Lala eta Jaker oinez igo ziren Alde Zaharrera. Arrotxapean bizi ziren. Han egiten zuten bizitza eta handik mugitzen ziren erosketa eta aisialdi gehiena egiteko. Familiako asko eta lagunarte gehiena auzoan bizi ziren. Horrek ez zuen inola ere erran nahi lan kontuetan eta harreman asko Iruña erdialdean eta beste auzoetan ibiltzen ez zirela. Dena den, Gaztelu Enparantzan zuten

bulegoa eta noizean behin gaupasak eta gaueko aisialdia San Nikolas, Kaldereria eta Nabarrera aldeetan egiten zuten askotan. Auzoko aktibitateak eta taberna batzuk aparte, "goian" egiten zituzten kultura ekintza anitz, bilerak eta bereziki han zeuden haien gustuko jatetxe gehienak. Jende frankok bezala, haiek ere norbebaren auzoak eta familiako herriaz gain, Alde Zaharra zuten lurralde konpartitua. Nolanahi ere, gauez alde zaharra mundu miragarria zen. Alde Zaharra, Sanferminetan ez ezik, urte guztian ere, mota askotako manifestazio eta kulturgunea zen; festa, kantu, dantza eta parranden eszena-tokia izanda.

Jende piloa topatu zuten igogailuaren aurrean lerroa eginez, baina ateri zegoenez beste asko bezala oinez igo ziren. Hezetasunaren usaina airean, udaberriko gau-giro ederra dastatu zuten. Zuhaitzek eta landareek ere usain gozoak zabaltzen zuten udaberri giro hartan. Uda aldeko giroa nabari zen. Kaleak kuadrillaz betetzen ari ziren, gehienak zerbait afaltzeko asmotan. Umorez eta urduritasunez jokatzeko zuten gazteenek eta atsegintasunez adinduagoek. Udal plazan jende andanekin topatu ziren, udal balkoitik opera kantuek entzuten egon baitziren ordura arte.

Jendetzarekin gurutzatu ziren. Zapateria eta Pozo Blankon bazirudien kuadrilla gehiago zegoela eta San Nikolasetik zaila zen mugitzea, mundu guztia kalean zegoelako. Garaiz heldu ziren tabernara. Ardo nafarra eskatu zuten besteak heldu bitartean eta halaxe gertatu zen, Lontxo eta Gorka handik minutura heldu zirelako eta Maite berehala agertu zen gosetuta zegoela adieraziz. Berriro zoriondu zuten neska eta heldu berriek garagardoak eskatu zituzten. Gorka eguneko pasadizoa kontatzen hasi zen. Tailerlean bezero batek sozialista nonbait, ez zen hasi, bada, mitin batean egon balitz bezala, bere alderdiaren alde egiten. Adierazi zuen Nafarroako eta udaleko hauteskundeetarako kanpaina egiten hasi nahi zutela. Aurreko apirilaren 28ko hauteskunde orokorrak gogoan, eta sozialisten emaitza onak aprobetxatuz, maiatzaren 9an hasi eta 26ko hauteskundeak bitarteko kanpaina aurreratu egin nahi zuen. Han, tailerlean zeuden beste guztiek trufa eta txantxa artean hartu zuten adierazpena. Erronda edan bezain laster jantokira sartu ziren. Azken urteetan nolabait burgestu ziren eta askotan afari piska bat sofistikatuagoak antolatzen zituzten, are gehiago ospakizun berezietan.

Betiko jatetxe hartan, azken urteetan modernizatu ziren. Iruñeko beste asko bezala, taberna kafetegi eta jatetxe bihurtu zuten, baina baita ordu txikietan diskoteka. Jantokia beteta zegoen mota guztietako jendez lepo. Beraien mahaia baino ez zegoen libre. Eskerrak aurretik erreserbatu zuten. Jantokiko jendearen solasa ez zen zaratsuegia eta arazorik gabe mintzatzen ahal ziren. Karta baino menu bereziak eskaintzen zituzten bertan eta aukerak eginda entsalada pare bat eta sarrera batzuk konpartitu zituzten hasteko. Bigarrenetan Maitek, Lalak eta Lontxok arraina eskatu zuten eta partekatzeko txuleta bat agindu zuten Gorkak eta Jakerrek. Bapo afaldu zuten eta gusturari edan zituzten bertako ardo zuria eta beltzak. Bukatzeko, denek postre arinak eskatu zituzten. Afaldu bitartean gai askotaz eta norberaren bizitzaz aritu ziren. Hala ere, Gorka eta Lorentxorekin haserretu ziren besteak, beraien neska-lagunak ez eramategatik. Gorka Michelle Allanderekin bizi zen eta Lorentxo Maria Irisarriekin. Beste lagunak ez zuten ulertzen zergatik ez zituzten gonbidatu. Gonbidatu bai, baina emakumeok bazuten lehendik beste konpromisorik. Bakeak eginda, Maiteri zorionak kantatu eta onena opatu zioten hari eta elkarri. Gau hartan, lasai afalduta, garagardo pare bat hartzeko asmoa zuten kalera atera zirenean. Tabernak lepo beteta zeuden, baita sartu ziren hartan ere. Ia ezin zuten elkarrekin hitz egin. Maiterengana hurbildu zen Lala. Keinu bat eginez kanpora

joateko adierazi zion. Mutilek edariak eskatu eta jaso zituztenean, edalontziak hartu eta kalera atera ziren emakumeak, mutilak ezagun batzuekin utzita.

–Uf! Ez dakit nola jasan dezaketen horrenbesteko zarata! –esan zuen Maitek.

–Horiei musika zaratatsua jarri, garagardo-botila eskura utzi eta orduak pasatzen zaizkie konturatu gabe. Berdin die gainerako guztiak! –erantzun zion Lalak–. Nik ere ez dakit nola jasan dezaketen horrenbeste dezibeliorekin!

–Hara! Begira, atari horretan jartzen ahal gara. Gaur jende pila atera da eta ia ezin da lasai egon. Zerbait kontatu nahi al zenidan?

–Ezer garrantzikorik ez. Aspaldian ez gaitun lasai mintzatzen egon –aipatu zuen hikara pasatuz–. Zer moduz hago?

–Ongi. Bikotekidearekin moztu dinat, baina ongi nagon. Batzuetan uste dinat bikote heteroak iraunkorragoak direla. Zuek, Jaker eta biok, ongi ikusten zaituztet.

–Ongi gaude, bai. Dena den, ez dizkinat futbolzaleak jasaten. Eskerrak hiru horiek beste solasgai batzuk badituzten! autoak, teknologiak eta musika gaiekin batera.

–Bai, egia. Lastima gure lanean eta zaintzetan emakume gutxi ibitzea. Bertze emakume bat behar geniken. –Lalak susmatu zuena adierazi zion Maiteri.

–Norbait al dun buruan? Neska-katxarro bat erakarri nahi al dun?

–Nahi niken! Ez. Uste dinat Lurdes Arana, oso neska argia, primeran ibiliko litzatekeela.

–Lastima! Badakin hirezako lana ere gutxitan izaten dugula. Dena den, egun batean aurkeztu ahal izanen huke. Zer moduz habil higiezin agentzian?

–Erabat aspertuta. Ez dakin zenbateko pisu eta etxe saltzen ditugun! Ez zekinat nondik ateratzen duten dirua. Beno, haietako asko aitaren eta amaren seme-alabak ditun. Hala ere, bigarren eskuko pisuak ere oso garestiak izaten ditun. Nola kitatu 150.000 euroko mailegua. Pertsona baten soldata gehiena hogeita hamar urteetan edo gehiagotan... eta alokairuak? Bi gelako pisu txiki arrunt batengatik gutxienez 500 euro ordaintzen dinat, askotan gehiago.

Bi lagunak beste gai alaiago batzuetara pasa ziren besteakk tabernatik atera bitartean. Goizeko ordu bata izanen zen. Kale haietan giro handia zegoen gazteen erronda eta animazioari esker. Mutilak atera zirenean Kaldereriara zuzendu ziren garagardo pare bat edan, piska bat mintzatu eta barre batzuk egin nahian. Gaztelu Enparantza gurutzatzen ari zirela kuadrillak, bikoteak eta banakako gizon edo emakume gazte batzuk zebiltzan batetik bestera. Larunbat eguerdian adina jende zebilen hara era hona, ongi pasatzeko edo ligatzeko, festarekin jarraitzeko asmoz edo etxera buelta luzatu nahian. Batzuk taberna eta pubetan itxi arte ibiliko ziren eta beste batzuk gaupasa eginen zuten, disko eta *“afterretara”* mugituz.

Igande eguerdi hartan Jakerren gurasoenera joan ziren haren familiakoekin bazkaltzera eta arratsalde pasa egitera. Otordu goxoa partekatu zuten eta arratsaldean berandu etxeratu ziren. Orokorrean asteburuan nahiko ongi ibili ziren.

Edozein modutan, asteburu osoan Lala kezkatuta ibili zen Katiren bilaketarekin. Neska hura gazte aldrebesa baino ez zen. Hala ere, edozein izan zitekeen bihurria hemezortzi urte eskasekin. Edonor eror zitekeen momentu batean drogaren menpean, menpekotasuna izan gabe ere. Agian, ehunka gazte izan zitezkeen egoera txarrean momentu hartan hirian. Kati, orduko, ziur asko damututa egonen zen eta bizitza normala eramateko prest egonen zen. Lalak bazekien neska gazteari gertatu zitzaiona berriro gertatu ahal izango zitzaiola beste bati, gaizkile batzuen hatzaparretan eroriz gero. Bitartean, bikotekideek ez zekiten Erburun eta

Iratzetan gertatu zena. Igande gauean Lontxok jaso zuen Daniren mezua eta ikertzaileek beraiek izanen zuten haren berri.

Maiatzaren 6a. Astelehena.

Astelehenean Lala goiz esnatu eta prestatu zen etxetik ateratzeko. Jakerrek beranduago mugituko zen, baina egun hartan bazuen kanpoan zeregin garrantzitsu bat. Musu bat emanda agurtu zuten elkar. Ez zuen euririk egin eta giro epela nabari zen. Lan-bulegotik hurbil, atzetik zebilkion gizon batek deitu zion. Hark geldiarazi egin zuen, galdetu zion Lara Lasa ikertzailea ote zen eta bere aurkezpen-txartela eman zion. Ignazio Merlo bezala aurkeztu zuen bere burua, abokatua. Barkamena eskatu zion modu hartan sartzeagatik, baina kasualitatez topatzeak eta presak ez omen zion edukazior jokatzeko utzi. Barkamena berriro eskatuta, elkarrekin bazkaltzea eta lanordu oso bat eskaintzea eskatu zionean, Lalak, beste ikertzailearen jarraipena gogoan, bulegotik ateratzeagatik eta jakin-minez onartu zuen. Ordu bietan kafetegi ezagun batean geratu ziren.

Bulegoan Lala lan-aferetan hasi zen. Bazuen zer ikertu, baina laster Lontxoren dei harrigarria jaso zuen. Lankide eta lagun hark kontatu zion haren txikitako lagunak herrian bizi izan zuena eta hara berriki heldutako familiaz zituen susmoak. Lalak sentitu zuen han zerbait txarra gertatzen ari zela. Kontaketako Jende-bilkura ezkutuak eta lekuko hark entzundako otoitzek meza beltzen afera gogorarazi zioten. Ez zuen zalantzarik. Lontxoren lagunari, Daniri, lagundu behar zioten. Lontxori erran zion espioitzarako aparatuak eramateko eta ahal izanez gero laguntzeko.

Gorkak Ramiroren informazioa jaso zuen. Prostituten pisuan agertu zen neska bertakoa zen. Eman zuen izena ez zen Kati, Sandra baizik. Edonola ere, lepoan zapi bat eramaten zuen erredura bat estaltzeko. Garbi zegoen Kati bera zela. Hala ere, bi egun lehenagotik ez zen pisutik agertu, gizon batekin asteburua pasatzera joan zelakoan zeuden pisukideak.

Lala paperetan bezala txostenak ordenagailuan antolatzen aritu zen denbora luzez. Konturatzen ari zen eta bilera-bazkarira joan zen hurbileko kafetegi hartara. Gizonak, Ignazio Merlok, kontratatu egin nahi zuen gazte baten ibilerak jarraitzeko. Aberaskumea Idoia Dufort zen, problematiko samarra eta amak kontratatu nahi zituen Lala eta bere ekipoa haren ibilerak jarraitzeko eta nola lagundu ahal zioten hobeki asmatzeko. Familiakoak prest zeuden psikologoak kontratatuzko edota edozer egiteko neskari laguntzeko. Abokatuak haren ibilerak eta bizimodua ikertzeko eskatu zion. Lalak bere betiko baldintzak aipatuta ados geratu ziren bazkaria bukatutakoan.

Arratsaldean kontratua gauzatuta, lanean jarraitu baino lehen Maite Baztani deitu zion eta komentatu zion zer lan egin behar zuten. Zenbait egunetako lana zenez, laguntzaileak baimena lortu behar zuen lan egiten zuten agentzian. Handik gutxira Maitek baietza eman zion Lalari.

–Egun hauetan ez zagon lan handirik. Badakin ordukako laguntzaile lan hau ez dela oso segurua. Gustura jarraituko dinat Idoia.

–Ongi dun, Maite. Hire lanaldiaren hasiera oraintxe emanen dinat. Bihar hitz eginen dinagu. Ongi ibili. Idoiaren ohiturei buruzko txostena eta datuak bidaliko dizkinat korreo bidez.

–Mila esker, Lala. Hitz eginen dinagu.

Etixeratu zenerako Lalak ez zuen Jakerren berririk jaso. Bazekien enpresa batean sistema informatikoak aztertzen, garbitzen eta berrantolatzen ibiliko zela eta afaltzeko espero zuen. Musika entzuten eta irakurtzen aritu zen. Lagun batekin mintzatu zen une batez eta afari arina prestatu zuen. Orduantxe agertu zen Jaker. Uste zuten bezala lan handia izan zuen. Ez zuen lan guztia bukatu, baina gehiena bai eta hurrengo egunetan bulegotik lan-tarte batzuk eginez burutuko zuen. Entsalada eta atun-tortilla afaldu zuten eta ateri zegoela aprobeixatuz kalera atera ziren auzoan itzuli txiki bat egiteko eta pote bat hartzeko. Astelehena izan arren, bazebilen jendea beraiek bezala denbora-pasan. Bizilagun eta ezagun batzuk agurtu zituzten. Paseo eginda tabernako Mirenekin mintzatu ziren zuritoak edan bitartean. Mundu guztiak aipatzen zuen meza satanikoen arazoa, bortizkeriak kezkatzen zituelako. Gehiegi aipatu gabe, Lala eta Jaker berehala etxeratu ziren atsedean hartzeko asmoz.

Gauean, ordu txikietan, Dani eta Lontxoren informazioa jaso zuen Lalak. Iluntzean mikroak eta kamerak jarri zituen Danik eta berehala jaso zituen han gaiztakeriak gertatzen zireneko nolabaiteko probak. Baina probak jaso bezain laster, gaizkileek kamera eta mikroak topatu zituzten eta Danik eginga zela susmatu zuten. Honek bera zelatatuko zutela jakinda, probak korreo elektronikoz bidali ondoren ihesa prestatu zuen. Guardia zibilen kuartela eta foruzainenaren bidean bera espero izanen zutela zekienez Iruñera mugitzeko aholkua onartu zuen. Goizeko laurak aldera inork espero ez zuenean gazteak gauza gutxirekin eta isilka Fermintxo auzokidearen auto azkarrean egin zuen ihes.

Maiatzak 7, asteartea.

Astearte goizaldean, ez ziren zazpiak izango, Ramon Zudaire foruzainen inspektoreak deitu zion Lalari biek bilatzen zuten Kati agertu zelako. Hiriko parke batean erdi hilik topatu zuen lanera zihoan langile batek. Emakume langile hark, gaztea orduko bizirik zegoela egiaztatu zuenean larrialdietara deitu zuen. Sorosleek berpiztu zuten momentu batean bihotza gelditu zitzaionean. Ospitaleko larrialdietan odolustuta zegoela egiaztatu zuten, baita heroina hartu zuela. Erietxean odol-transfusioa egin orduko gaztea gurasoei deitzen hasi zen. Handik gutxira, etxera itzuli nahi zuela errepikatzen zuen. Behin eta berriz erraten zuen bahitu eta torturatu zutela. Neska gaztea arin errekupekatzen ari zen. Ez zuen dokumenturik aldean eta nor zen galdetzen hasi zirenean errateko indarra ere izan zuen: Kati Sotas zen. Abisua pasa zieten polizia.

Ramon inspektoreak ezer baino lehen berri eman zien familiakoei. Ikertzaileek ere bilatzen zutela zekienez, Lalari kontatu zion. Handik ordu gutxitara Kati galdeketa jasateko moduan egonen zela jakinda, berandutu zuten galdeketa. Bitartean etxekoek baino ez zuten ikusi ahal izanen.

ordu gutxi pasa ondoren onik eta burua behar bezala zuelarik, galdeketa arinak egiteko moduan zegoela abisatu zieten. Ramon Zudaire eta Lala gela isolatuan sartu zirenean itxura arraroa zuen gaztea topatu zuten: gaztetasuna ez zitzaion nabaritzen. Maindirez estalitako gorputz lirainaz gain, beso, sorbalda, lepo eta aurpegia zauri txikiz beterik zuen. Aurpegia

ikaragarri hanpatuta zuen, begiak erdi itxita eta ubelduraz desitxuraturik. Ez omen zuen hezurrik hautsita, baina egunak pasatuko ziren ohetik altxatu eta normal mugitu arte.

Zudaire inspektorea, bahiketari buruzko galdeketa kontu eta sentsibilitate handiz burutzen hasi zitzaion emakume gazteari. Katik ezin izan zuen hasieran bahitzaileei buruzko ezer erran, ezta bahiketa-lekuari eta askatzeari buruz ere. Deus gutxi kontatu ahal izan zuen. Ez zuen gogoratzen parke batean topatu zutela. Ezin izan zuen kontatu nola heldu zen hartara. Behin eta berriz errepikatzen zuen bahitu eta torturatu zutela. Handik gutxira lasaitu zenean egun haietan pasatu zuena kontatu zien.

–Drogatu ninduten eta ezin dizuet pista handirik eman. Torturez, aldiz, ez dakit zer pentsatu eta zer erantzun behar dizuedan –Zudairek berriro egin zion galdera.

–Kati, zer galdetzen zizuten? Zertarako egiten zizkizuten torturak?

–Erran egin dizut dagoeneko. Ez zidaten ezer galdetzen. Egiten zutena tortura bakoitzeko nire erreakzioa kontuan hartzea zen. Bazirudien ez zitzaiela gustatzen nire erreakzioa. Une batean adineko emakumeari entzun nion haserre ni ez nintzela garbia eta beste bat behar zutela. Handik gutxira konortea galdu nuen eta... ospitalean agertu arte ez dut ezer gogoratzen.

–Adineko emakumea zen torturatzen zintuena? –izan zen Lalaren galdera.

–Ez. Adineko gizon batek eta emakume gazteak ere egiten zuten. Taldeko beste guztiek otoitz eta kantu besterik ez zuten egiten. Deabruaren izen batzuk aipatzen zituzten.

–Zerbait kontatzen ahal diguzu beste torturatzaile horiei buruz? –galdetu zion berriro inspektoreak.

–Denak mozturaturik zeuden. Gizonak ia ez zidan minik egin, baina emakume gazteak asko erreparatzen zion minaren aldaketarik txikienari. Behin eta berriz ekiten zuen torturan beste gauza bat espero izan balu bezala.

–Nolako zen bahitu zintuen gizona? –izan zen orduan Lalak itaundu ziona.

–Adinekoa zen. Brad Pitt zahartu baten antza zuen eta oso atsegin hartu ninduen. Ez dakit zergatik, baina uste zuen ni birjina nintzela. A..., emakume gazteak gorputz ederra eta liraina zuen.

Lalari interesatzen zitzaion informazioa, etorkizuneko beste bahitugaiei lagundu ahal izateko. Inspektoreak, berriz, torturatzaileak eta beren gordelekua topatzea zituen helburu. Pentsatu zuten ez zutela ezer gehiagorik lortuko eta utzi egin behar zuten neska gaixoa. Hala ere, uste baino informazio gehiago jaso zuten. Bat-batean, orduan gogoratuta edo agian lotsa galduta, kati gehiago kontatzen hasi zen. Zirudienez, bahitzaile eta torturatzaile haiek neska gazte babesgabeak bilatzen zituzten, drogen menpean edo haien lilurapean zeudenak eta birjinak. Ondoren, polizientzat eta ikertzaileentzat intereseko informazioa emanda, neska ongi zegoenez eta barrenak husteko beharra zuenez, Lalak eskatuta hasi zen bahiketaren aurretiak kontatzen. Hasteko bera zen Sandra izena eman ez etxe hartan sartu zena. Gazteak hasieratik gertatu zitzaiona ere kontatu zien. Bi aste lehenago ikasketekin eta izaten zuen bizitzarekin aspertuta, lagun bati kasu eginez pisu batera bizitzera joan zen. Ez zuen diru askorik eta pisu hartan gutxi ordaindu behar izan zuten. Lehenagotik drogak hartzen zituen asteburuetan lagunekin, festa-gauak animatuagoak eta jasangarriagoak egiteko. Drogarik gabe aspertzen zen. Gau batean, aste bat lehenago, gizon dotore batek proposatu zion etxetik alde egiteko eta abenturako bizitza eramateko. Harrigarria zen, baina gizon hark erran zion aberats batekin joaten bazen ongi bizitzeko diru nahikoa izanen zuela. Erran eta egin. Pisu hartan beste neska batzuk ari ziren prostituzioan. Aurreko ostiralean gizon aberats batekin geratu zen eguna

pasatzeko. Gizona adinekoa zen, dotorea eta atsegina. Kafe bat hartu ondoren galdu zuen konortea. Ziur asko lo-eragileren bat emanen zioten, ez baitzuen gogoratzen hurrengo orduetan zer gertatu zen. Esnatu zenean porlan-hormez inguratutako gela edo soto itxi batean zegoen, erdi biluzik ohatila bihurtzen zen besaulki berezi batean loturik.

Lehenengo egunean, ostiralean, jaten eman arren, ez zioten komunera joaten uzten. Gaitzerdi, ipurdi azpian pixontzia baitzuen. Katik, zer nahi zuten, zer egin nahi zioten galdetuta ere, ez zioten erantzuten. Beldurrak jota isildu zen. Arratsaldean edo gauean hasi zitzaizkion torturatzen. Hasieran orratz fin batekin ziztatu zioten larruazala probak eginez. Gorputzaren puntuaren arabera non eta zenbateko min sentitzen zuen baizik ez zioten galdetzen. Bestelako informazioa jasotzeko gauza bakar bat galdetu zioten: birjina ote zen. Berak baietz erran zien libratzeko erantzun hobea zelakoan. Kati nekatuta zegoen. Inspektoreak eta Lalak bakean utzi zuten garrantzizko gehiago kontatuko ez zielakoan. Ramon Zudairek ikertzaileari Idoia Duforti buruzko ikerketaz galdetu zion bat-batean. Lala harritu zen galderagatik.

–Ez dakit nola jakin duzun!

–Kasualitatez. Gure lankide batek entzun du. Laguntzerik badugu erran!

–Ez da beharrezkoa. Familiakoek gazte zail baten ibilerak eta arazoak ezagutu eta lagundu nahi diote. Dena diskrezioz egitea eskatu digute. Mila esker, dena den!

–Ez horregatik!

7 - Irizartarrak desagertu ziren.

Irizartarrak desagertu baziren ere, Dani ez zegoen prest herrira itzultzeko. Han errazago harrapatuko zuten bera eta ez zen fio arrazoi handiz. Irizartarrek eta jarraitzaile satanzale haiek bazekiten berak mikroak eta kamerak jarri eta salatu zituela. Gainera, lortu zuen kuadrillako batek, Andonik, Nekaneri laguntzea supermerkatuan. Denboraldi batez ez zuen kezkatu beharrik. Behintzat, espero zuen denbora gutxian, aste batean edo, gauzak argitu eta gaizkileak harrapatuko zituztela. Espero edo nahi izatea, ordea, ez zen lortzea. Ez zen hain erraz gauzatuko. Hala sentitzen zuen Danik intuizioz.

Argiñene etxearen miaketan gauzarik garrantzitsuenak soto handi, zabal eta itxian topatu zituzten. Gela isolatua ia hutsik zegoen, egurrezko aulki tolesgarri pilak kanpoan pilatuta baitziren. Berrogeita hamar metro koadroan aldarea eta besaulki-ohatila zabala ziren nagusi eta ez zegoen bestelako altzaririk. Alderantziko pentakulo gorri handi hura zuriz margotutako hormigoian nabarmena zen. Ez zoru irristakorrean ezta hormetan ere ez zen besterik, suzien errautsen arrastoak izan ezik. Analisisirik egin beharrik gabe dena garbitu zutela asmatzen ahal zen. Lejiaren usaina oso nabarmena zen. Aztarna biologikoak ezabatuko zituzten. Aldarea obrakoa zen, hormigoizkoa, eta gainean marmol zuriko estalkia zuen. Ondoko gurditxo batean, tortura tresnak, metalezko dirdiratsuak gehienak, lerrotan antolatuta zeuden. Oinarrizko bi kandela beltz handi jarri zituzten aldarearen ondoan.

Bat-batean ez zen inor etxe hartatik agertzen, irizartarrek ihes egin zutenetik. Gainera, irizartarrak ez ziren irizartarrak. Baseri itxurako herriko etxearen salmenta-agirietan eroslea enpresa bat zen. Enpresaren nagusiak Felipe eta Alberto Aulesti Barcena ziren eta Caracasen zuten helbidea. Poliziek enpresan egin zuten ikerketaren arabera, etxe, orube, lur eta pisuak erosten zituzten ondoren saltzeko. Kasu hartan, bitartekari papera eginez, Donostiako higiezin-enpresa batek etxe hura erosi zuen Iratzetan, Arandi bailarako beste eraikin eta lur batzuekin batera, negozio egiteko asmoaz. Batzuetan, etxeak hobetzeko birmoldaketa egiten zieten. Edonola ere, Donostiako higiezin agentziaren erantzuleen erranetan ez zuten irizartarren edo etxean ibilitakoen berri. Zibilek hipotesia egin zuten: irizartar bezala ezagutzen zituztenak, orube eta etxeen erosle ibili zirenak ote ziren. Baina haiek Sagasti-Irisarri senar-emazteak ziren. Alejandro Sagasti eta Maria Luisa Irisarri, jatorri gipuzkoarreko kolonbiarrak ziren: Marisa eta Fernando Irizar bezala ezagutu zituztenak.

Herritarrei ere galdetu egin zieten irizartarrei buruz. Alferrik. Ohiko tabernako kuadrillako adinkide batzuek, gehien ezagutu zutenek alegia, ez zuten ezer berezirik adierazi Fernandori buruz. Aipatzen zuten bezala, gizonak askotan hitz egiten zuen bere haurtzaro eta gaztaroaz Astigarragako Santiomendi auzoan eta Hernanin. Ostalaritzan aritu zen eta emaztea eta biak Venezuela eta Kolonbiara joan ziren etorkizun hobe baten bila. Dena den, galdetuta ere, gizonari ez zitzaion Ameriketako bizitzaz hitz egitea gustatzen. kuadrillakide bakar batek, Karmelok, eman egin zien bai zibilei Medellinoko berri berezirik. Sarjentuak asmatu zuen adineko gizon batzuk bakarka hartuz eta zerbait atera zien:

—Karmelo Garate jauna, aipatu zenuen Kolonbiako bizitzaz gutxi hitz egiten zuela, baina zerbait bai, ezta?

–Bai. Medellinen hotel-jatetxe bat antolatu zuten eta hogeitun urtez han bizi izan ziren. – Bazirudien ez zuela gehiago gaineratuko eta sarjentua tiratzen saiatu zen.

–Ea bada, gogoratu zer esaten zuen Medellineko bizitzaz.

–Etxeratsen ginenean, bakarka eta erdi mozkorturik, batzuetan gauza arraroak kontatzen zizkidan. Behin aipatu zuen dirua egin zuela deabruari esker... –eten luzea egin zuen gizonak. Sarjentuak animatu zuen jarraitzera.

–Segi, mesedez. Zer esan nahi zuen?

–Horixe bera galdetu nion eta kontatu zidan hartatik ulertu nion bere hotelean negozio-gizon inportante eta droga-mundukoekin tratua izan zuela. Baina arraroena izan zen han satan berpiztua ezagutu zuela erratea. Hura argitzeko eskatu nionean erran zidan hobe nuela deabruaren kontuez ez arduratzea, bera orduko salduta zegoela. Baina..., brometan ari zela uste nuen nik orduan. Bat-batean serioski begiratu zidan begietara zuzen eta aholkatu zidan gauzez ez ibiltzeko.

–Eta beste batzuetan zer kontatu zizun? –Sarjentuak aprobeixatu behar zuen informazio-iturria.

–Ezer arrarorik. Denoi kontatzen zigun urte eta lanaren poderioz dirua egin zuela.

–Bai, baina gauza arraro edo bitxiez ez al zizun gehiago kontatu?

–Ez..., baina orain gogoan dut beste batean aholkatu zidala mezara ez joateko. Haserre, aipatu zuen apezak gureak eginen zuela. Ez dut gehiago oroitzen –bitxia eta arraroa zen sarjentua entzuten ari zena. Berak pentsatu zuen agian orduan ez bazen beste batean zerbait gehiago jakinen zuela. Pozik zegoen lortutakoarekin.

–Ongi da, Garate jauna. Zerbait gehiago gogoratuz gero edo zure lagun batek zerbait izanez gero, dei diezaguzue. Bitartean, kuarteletik pasatu behar duzu adierazpena sinatzeko. Eskerrik asko.

Zibilek ez zuten gehiago jakin, ez behinik behin Fernando eta Marisa bezala ezagunak ziren haiei buruz. Bestelakoak ziren hildakoak eta zauritutako adineko emakumeak buruzko informazioak. Tamalez, arrisku larrian ez bazen ere, Joxepik ez zuen konortea berreskuratu. Buruan hartutako kolpeak odolbildu bat sortu zuen eta sendagileek espero zuten berez desegitea. Bitartean itxoin behar zuten. Momentuz zuzeneko testigantzarik ezean, lortutako probek zerbait adierazi zieten. Foruzaingoko talde zientifikoak erasoak izandako lekuetan jasotako probak nahikoa adierazgarriak gertatu ziren.

Antxon Goñi aurkitu zuten tokian ez zuten ezer garrantzizkorik topatu. Gizajoa beste leku batean torturatu eta hil zuten, gorpua bera eta gainean zeukana bertzerik ez zeukaten ikertzeko, gertatu zena jakiteko. Forentseak adierazi zuen gorputzean ziztadak eta ebakiak eginez hainbat ordutan luzatu eta torturatu egin zutela, eta odolustuta hil zela. Hala ere, bihotza ziztatu zioten hil ondoren eta sastakada sakon batzuekin disimulatu nahi izan zituzten torturak. Brida batzuez lotuta izan zuten eta urradura eta narritadurak zituen libratzeko egindako ahaleginengatik. Zakilean eta barrabiletan ez zioten zauririk topatu, baina giza-hazia bota zuen galtzontziloetan eta zakila inguruan. Aztarna gehiago ere jaso zuten. Bertzeak bertze aztarnen artean kolonia berezi baten arrastoak aurkitu zituzten eta bertze pertsona batzuen DNA, datu-baseetan topatu ez zituztenak. Dena den, odolez zikinduta zegoen eta garbitu zutenean, deabruaren izarra aurkitu zioten kopetan. Alderantzizko pentakulua.

Joxepiren kasuan, borroka baten ondorioak topatu zituzten. Sukaldeko tresna eta portzelana batzuk botata eta puskatuta ageri ziren. Edonola ere, ez zen egia Joxepi odolez beterik topatu

zutela. Bazirudien norbaitek adineko emakumea geldiarazi nahi izan zuela eta zartagin astun batekin kolpe handi bat eman ziola. Izan zitekeen gaizki ateratako lapurreta? Ez zuten frogarik. Gaixoa isildu nahi izanen zuten, testigantzarik ez emateko. Emakumeak ubeldura batzuk zituen eta hezur bat aterata, tratu txarren ondorioz. Dena den, garuneko kolpe handia zen hiltzorian utzi zuena. Sukaldeko hondamendiaz aparte ez zirudien ezer lapurtu zutenik.

Maria Luisak, Marisa lagunentzat, ez zuen harreman handirik egin herrikoekin. Senarra zen etxetik kanpo mandatuak egiten zituena eta ingurukoekin aritzen zena. Marisa etxeko andrea zen zentzu guztietan, tradizionalen eta modernoan. Etxeko gauzak egiten zituen. Agindu ere agintzen zuen etxeko gauza guztietan eta bera zen etxera bilerak egitera joaten zirenen gidari eta burua. Kanpoan izan zuen harreman bakanetakoa Joxepirekin izan zen eta ia lehenengo momentutik ez zen adiskidetasunik sortu. Elkar ezagutu eta hirugarren asterako diosalak baino ez zituzten gurutzatzen. Joxepik deus kontatzerik ezin zuenez, poliziek ingurukoei, baina batik bat emakumeei galdetuta ere ez zuten informaziorik lortu. Joxepiz aparte, beste etxeetako emakumeek ez zuten Marisa gehiegi ezagutu, ezta Daniren amak, Sarak, ondokoa izaki. Sarak esan zien ez zuela Marisarekin hitzik gurutzatzen. Arraroa zen, hura emakume atsegina eta irekia zelako. Baina Sarak kontatu zenez ez ziren ordutegiengatik topatu egiten. Bera ez zen goizetan etxetik ateratzen etxeko lanak bukatu arte eta bazirudien Marisak aldrebes egiten zuela: goizean goiz ateratzen zen Josepirekin topatzen zelarik eta goizeko hamarrak aldera etxeratzen zenean orduan hasten zen Sara kanpora ateratzeko prestatzen.

Bestalde, Juanek, Daniren aitak, ezagutu egin zuen Fernando. Hura, askotan tabernan ibiltzen zen, goizetan zein arratsetan eta Juanek goiza baratzean eta bere tailerrean tallak egiten pasa ondoren, bazkaldu eta kuluxka egiten zuen. Paseora ateratzen zen arratsaldean eta tabernatik pasatzen zen lagunekin baso erdi pare bat hartzeko eta partida egiteko. Fernando agertu zenetik etorri berriak haiekin eta gazteagoen kuadrillakoekin egoten zen. Juanek ez zuen asko ezagutu, partidari baino ez baitzuen topatzen eta orduan arinkeriez baizik ez baitziren mintzatzen. Kuadrillako beste gizon gehienek ere ez zuten gehiago ezagutzen eta gazteagoekin harreman berezia baina arraroa zuen. Karmelo Garatek, kuadrillako beste auzokoak, berriz, gehiago ezagutu zuen, ondoan bizi baitzen eta biak berandu etxeratzen zirenean elkarrekin kontu-kontari aritzen zirelako.

Juanek zerbait aipatu zien etxekoei, eta berdin kontatu zien poliziei: Fernando ez zela egiatia. Jendeari, besteen gustu eta sentimenduen arabera nahi zutena kontatzen zien. Bere etxean musikazaleak elkartzen zituela erraten zuen, baina berari ez zitzaion musika klasikoa gustatzen. Berdin gertatzen omen zen kanpoko lagunekin. Erraten zuen Donostiakoak zirela eta jakin zutenez Donostian biziko zirenen, baina haien artean ez zen euskaldunik eta urrutikoak ziren, gehienak hegoamerikarrak.

Edonola ere, poliziek ez zuten aurkitu, bikote, familia eta haien lagun berri gehiago izateko modurik, Karmelo Garatek kontatua izan ezik.

8 - Iruñean meza beltz gehiago.

Maiatzak 8, asteazkena

Iruñean meza beltz pare bat gehiago gertatu zen bi egunetan. Lehenik etxabe batean topatu zuten meza beltza egin zuteneko proba. Lekua hutsik zegoen aspalditik eta norbaitek nabaritu zuen sarrera bortxatu eta sartu zirela. Udaltzainek, hormetan odola erabiliz, alderantzikatutako gurutzeak, pentakuloak eta letra arraroz idatzitako deabru batzuen izenak aurkitu zituzten. Mahai arrunt baten gainean odol eta kandelen argizarien arrastoak topatu zituzten. Jabeek kontatu zutenek lokalean aspaldian ez zuten maizterrik eta inork ez zien alokatzeko saiakerarik egin. Besterik gabe, joan aurretik poliziek argazkiak atera eta laginak jaso zituzten.

Hurrengo egunean, hutsik zegoen tailer abandonatu handi batean meza sataniko baten arrastoa topatu zuten. Beste meza bat izanen zen, baina ikuskizun hark izoztuta utzi zituen poliziak. Udaltzaigoak hartu zuen lehen abisua. Delitu Larrietarako Taldean Ainarak informazioa foruzainei pasa zien bitartean, Manu inspektoreak Lara ikertzaileari deitu eta eraman nahi izan zuen toki hartara lehenengo ikusketa egiteko. Etxabakoitz auzoko hornitegi batean geratu ziren.

Sartu baino lehen, atetzar nagusi bikoitzetan hankaz gorako gurutzeak ikusten ziren gorritz margotuta. Sartu zirenean odolez blaituriko eremu bat ikusten zutela iruditu zitzairen. Alderantziko gurutzea aldareko oihal zurian ere ageri zen nabarmen. Gibeledako pareta betetzen zuen hankaz gorako pentakulo handi batek. Goiko puntetik aker baten adarrak adierazten zituzten. Muturra eta begiak ere sumatzen ziren geometriaren gainetik. Paretetan isipu edo brotxa lodiz margotutako hitzak eta esaldiak. Idazkera inuar edo arabiarra zirudien haren bidez hizki handiz *“Luzifer”* eta bestelako elementu batzuk ikusi zituzten. Aldameneko mahai batzuetan jaki eta edarien hondarrak ageri ziren eta erdiko eremu irekian festa baten ondorioak eta zakar piloak topatzen ahal ziren. Aldare gainean gorpu biluzia odolez beterik zegoen etzanda.

Lara eta Manu zur eta lur geratu ziren ikuskizun nazkagarriaren aurrean. Foruzainen zientifikoen zain, ez zuten ezer ukitu. Argi zegoen aldare gaineko emakumea hilik zegoela. Zintzurrean ageri zen ebakiak ia osotara mozten zion lepoa. Aurpegia eta ile luzea ziren odolez libratutako bakarrak. Satanzaleek edertasuna eta gatzetasuna zikindu nahi izan zituzten irudi-muntaia harekin.

Deabruaren laguntza eta gidaritza helburu zuten sekta sataniko haiek. Ez ziren konformatzen elizkizun aldrebes batzuekin. Herioa, gaiztoa eta mina zabaldu behar zuten munduan, zoriona eta plazeraren aitzakian, sadismoa goi mailara eramanez. Batzuen poza eta plazerra, beste batzuen sufrimendu eta minetan oinarritzen zen. Nahita sortzen zituzten gaiztakeria eta heriotza zabaltzea ez zitzairen inporta. Lara eta Manu jota zeuden. Lara izan zen mintzatzen lehena.

–Manu, gure lanbidean sartu ninduzunean ez nuen uste horrelako gordinkeria topatuko nuenik. –Emakume gazteak aurpegi zurbila erakusten zuen. Nagusia izandako gizonari begira irudi penagarriaren arrazoia galdetzen ziola zirudien. Edertasunaren etetea edo haren ukazioaren adierazpen itsusia zen aurrean zutena.

–Lala, nik ere ez nuen pentsatzen gaiztakeria eta sentimendu eza hain biluzik topatuko nituenik. Nik bezala gaiztakeriaren kontra lan eginen zenuela espero nuen.

–Manu, ez dizut ezer leporatzen. Gertatzen dena da... –emakumeak ezin izan zuen jarraitu. Manuk egin zuen.

–Ez dakit gauza bera erran behar duzun, baina erranen nuke gauza berdina sentitzen dugula. Nik ere ezin dut ulertu. Gure lanbidean pertsonen alderik ilunenak topatzen ditugu. Horrainsi jakinaren gainean izaten ginen, hain zuzen ere gaiztakeriaren kontra egin nahi baitugu lan. Jende umil eta ahulenak babesten eta defendatzen saiatzen gara. Hala eta guztiz ere, ez genuen espero gaizkia horren gordin eta krudel ikusiko genuenik. Hau ezin dugu ulertu. Nola liteke emakume gazte, eder eta ziur asko ezin atseginagoa zena horrela tratatzea? Nola jo inozentziaren pertsonifikazioaren kontra? –Lalak baietz egin zuen buruarekin. Edonola ere, Manuk pentsatu zuen Lalaren aurpegiak pena handiaz gain, kontra egiteko ezintasuna ere adierazten zuela. Frustrazioa. Biak burumakur geratu ziren “*ikuskizuna*”-ren aurrean.

Lalak etsipenez adierazi zuen zer pentsatu zuen ikuskizun hartaz. Hark akelarre bat gogorazi zion, haren bertsio odoltsuena, nazkagarriena. Dena den, buruarekin ezezko keinua eginez baieztapen bat egin zion: hark ez zuen zerikusirik antzinako euskal erlijioarekin.

Galdeketek eta probek ez zuten inolako pistarik utzi. Tailer haren inguruko biztanleek ez zuten laguntzarik eman. Hil zutena “*Santiobidea*” bakarrik egiten ari zen neska alemaniar bat zen, Zimmer abizenekoa.

Bitartean, hauteskunde-giro nahasia bizi zuten. Aurreko hauteskundeak gertatu zirenetik hamar egun eskas pasata, bi asteren buruan berriro izanen zituzten udal, autonomia eta europarako hauteskundeak. Giroa gori-gori zegoen, handitzen ari zen gainera. Andaluziako hauteskundeetan, bi hilabete lehenago, sozialistek galdu zuten komunitatea eta muturreko eskuinak lortu zituen postu batzuk parlamentu hartan. Beraien eragina ikaragarria izan zen. Kongresu eta Senaturako berriki izandako hauteskundeetan sozialistek lortu zuten ordezkari-tza gehiago eta eskuinekoek galdu zuten. Dena den, Nafarroako hauteskundeetan lehia handia zegoen eta inkesketan oso berdinduta zeuden Aldaketaren alderdiak eta *Navarra+* eskuineko talde bateratua. PSN zen, ustez gobernagarritasunaren giltza izanen zuena. Inork ez zekien ziur zer eginen zuten eta zer gertatuko zen.

Danik Iruñean poliziei kontaktu zuten zehaztasunez irizartarrez eta etxean egiten zutenaz zekien guztia. Beno, beharbada guzti-guztia ez. Tesarekin izandakoa oso gaintik kontaktu zuten. Adierazi zuen bezala, bazirudien harekin pare bat aldiz hitz egin zuela eta oso harreman eskasa izan zuela. Dena den, erailketa eta eraso gertatutako gauetan Tesa Donostian zegoela aipatu zuenean nahi gabe zerbait gehiago adierazi zuten eta poliziak konturatu ziren, harreman estuagoa izan zuela, alegia. Bestalde ere, ordura arte irizartarrei buruz lortutako informazioa ez zioten Daniri osotasunean kontaktu. Medellinen negozio-auzoan bizi ziren. Han, aberatsek, ehungintza, moda, teknologia berriak eta turismo negozioak gidatzen zituzten, baina baita pobreziaz aprobeztatuz droga-salerosketa antolatzen ere. Irizartarrak deabruzale eta droga-trafikoaren mafiekin harremanetan zirela jakin zuten. Gazteak jakin bazekien irizartarrak gaiztoak eta zitalak zirela. Probatuta geratu zen meza beltzak antolatzen zituztela. Antxon Goñiren erailketarekin lotzeko, berriz, ez zegoen probarik. Dena den, pentakulua marraztu izanak erran nahi zuen erailketak deabruaren jarraitzaileekin zerikusia zuela. Ez zen

kasualitatea, irizartarrak heldu eta delitu haiek gertatzea. Kasualitate gehiegi izanen zen Joxepi irizartarren bizilaguna izatea, nahiz eta lapurreta bezala itxuratu nahi izan zuten.

Nolanahi ere, historia hartan guztian bazen pertsona bat rol argirik ez zuena: Tesa. Daniri ez zitzaion iruditzen emakumea gaiztoa zenik. Zerbaitek erraten zion, Tesa arraroa izateaz aparte, umila eta ona zela. Harekin mintzatu nahi izanen zuen. Ez zekien, ordea, Tesa non zegoen. Ez zion sakelako telefono bidezko deirik hartzen. Hala ere, Danik ezin zen Donostian Tesaren bila ibili. Amara handiegia zen topatzeko eta haren lana pisuak erakustea zen. Saltzaile edo bitartekari autonomoa zen eta enpresa desberdin batzuentzat egiten omen zuen lan. Higiezin enpresan saltzaile on baten bila zebilelako aitzakian, telefonoz Tesaren deskribapena eman zuenean beste izen bat lortu zuen: Natalia Sorozabal. Bere burua ezkututzen aritu izan balitz bezala, higiezin-enpresetan izen ofizial hori eman zuen. Gero, ekin eta ekin ikertuz gero, bere benetako izena eman zioten: Maria Teresa Sagasti Irisarri. Danik interes berezia zuen Tesaren desagertzearekin, baina ikerketak irizartarrekin eta satanzaleekin zerikusia zuenez, informazio garrantzitsuena foruzainei eta lagun ikertzaileei pasatu zien. Berak lagundu behar zien gaizkile odolzale haiek harrapatzen.

Dani kontuz ibiltzen zen Iruñeko kaleetatik. Gutxi ateratzen zen arriskuan zegoela zekielako eta sartu edo ateratzen zenean lehenago begiratu egiten zuen kalean. Kanpora ateratzeko arrazoi bakarra polizia eta ikertzaileei ikerketetan laguntza ematea zen. Lontxo bakarrik bizi zenez, etxean irakurtzen eta irratia entzuten entretenitzen zen. Etxeko lanak egiten zituen, garbiketak eta otordu prestaketak. Lontxok normalean lanetik ateratzean erosketak egiten zituen. Egun haietan ez zuen zaintzarik gauzatu behar eta lagunak ari ziren harremana eguneratzen. Edonola ere, satanikoei buruzko informazioa jasotzen aritu ziren.

Maiatzak 8, asteazkena

Udaltzainek abisu berezi bat jaso zuten arratsaldeko zazpitan. Mutil gazte bat topatu zuten etxabe batean erdi odolusturik eta Delitu Larrietarako Taldekoek jaso zuten deia. Ainara inspektoreordeak deitu zien foruzainei eta Lalari. Mutila, Asier Hernandez zen, Lalak azken egunetan bilatzen zuen desagertuetakoa bat. Hamazazpi urteko gaztea ospitalera eraman zutenean Ainarak eta Ramon Zudaire inspektoreak egin behar zioten galdeketa. Momentu hartan mutila konorterik gabe zegoen eta orduak pasatuko ziren harekin hitz egin ahal izateko. Momentuz zekitena etxabearen bakarrik geratu zela eta goizean zauriz eta odolez beterik topatu zutela. Lalak informazioa jaso ondoren familiakoei kontatu zien eta gaztea topatu zuten tokira hurbildu zen.

Lalak, Lontxo eta Daniri ere deitu zien etxabera ikerketan laguntzeko. Han izan ziren foruzain eta udaltzain batzuk lekuaren ikerketa bukatu bitartean. Dani harritu zen probak ez kutsatzeko hartzen zituzten neurriekin. Buruan, eskuetan eta oinetan plastiko eta eskularru batzuk jantzi behar izan zituzten eta baita paperezko txabusin arin bat ere bai. Etxabearen gauzak desordenatuta zeuden. Denda txiki bat izandako hartan hiru sofa, aulki batzuk, apalak liburuz eta trastez beteta, bi telebista, bi mahaitxo, bi frigo, hornitegia, komuna eta logela bezala erabiltzen zuten gela besterik ez zegoen. Erran zieten hirurogei metro koadro haietan hogeitau bat lagun elkartzen ziren. Gehienak pasatzen ziren handik egunean zehar, baina gutxitan geratzen ziren lotara. Asier barneko gelan topatu zuten ohe gainean. Oin eta eskuak lotuta izan zituen ohearen hanketan. Danik ikusi zuen Lalak eta Lontxok ezer ukitu gabe etxabeko gela

handi osoan zehar poliki eta gertutik gauza guztiak behatzen zituztela eta apunte batzuk hartzen hasi zirela. Gero, urrutitik ikuspegi orokorrean birpasatu zuten lekua. Azkenik komunean eta logelan begiratu zuten. Jokaera hura ikusita Danik galdetu egin zion Lontxo eta Lalari.

–Zergatik begiratu dituzue gauza guztiak horrenbesteko zehaztasunez? –Lontxok erantzun zion. Harritu zen, baina bazekien Danik lagundu nahian galdetu zuela.

–Lehenago egin dute udaltzainek, baina ez dago soberan berriro egitea. Dani, zuk jakin behar zenuen probak eta pistak bilatu behar ditugula. Zergatik egiten duzu galdera tonto hori?

–Barkatu. Uste dut galdera gaizki egin dudala. Gaiztakeria egin zen tokian ongi aztertzea ulergarria da. Ulertzen ez dudana da edozein txokotan, baita apaletan eta telebisten atzean ere begiratu behar izatea –orduan, Lalak erantzun zion irmotasun osoz.

–Miaketa zehatza ez da alferrikakoa. Behin baino gehiagotan topatu izan dugu proba garrantzitsu bat gertalekutik hurbil baina aparte. Desagertu bat aurkitu genuen pasa zen urtean kalean topatu genuen paper batengatik, gaztetxoaren pista eman ziguna –Danik konbentziturata erantzun zion.

–Bai. Ulertzen dut, baina hemen zer edo zer aurkitu al duzue?

–Ez dakit. Torturataileek utzitako aztarnarik ez dugu oraindik topatu. Inguruko bizilagunei galdetzen ari zaie ea zerbait ikusi edo entzun zuten gauertatik goizaldera arte. Baliteke komunean edo logelan zerbait topatzea –izan zen Lalaren komentarioa.

Handik gutxira Ainara Tartas eta Ramon Zudaire agertu ziren. Lalak harreman ona zuen haiekin, hainbat alditan lankidetzan izan zirelako. Komunean eta logelan miatzen aritu ziren hirurak. Ondorioztatu ahal izan zuten gauza bakarra izan zen labanaz ziztatu eta ebakiak egin zizkiotela. Han ohearen gainean zaurien odol arrasto handiak eta ziur asko etxabetik bertatik hartutako sokak ziren topatu zituzten proba bakarrak. Alderantzizko gurutzeak eta pentakulo txikiak topatu zituzten odolez margotuta. Lontxok eta Danik bistadizoa bota ahal izan zuten besteek bukatu zutenean eta ez zuten besterik ikusi. Inspektoreak laburbildu zuen pentsatzen zutena.

–Lagunok, laginak hartu dituzte, baina ez dut uste ezer topatuko dugunik. Satanzaleek kasualitatez hartuko zuten gaztea. Talde txikia izanzen zen denak logelan sartu ahal izateko eta hiltzorian utzi zuten gizajoa. Dena den, ezin da ulertu hau zergatik egin duten!

Besteek ere ez zioten alferrikako ekintza hari zentzurik aurkitu. Danik adierazi ahal izan zuen muntaia hura bere herrian soto batean ikusi zuena bezalakoa zela: gurutzeak, pentakuloa eta hizkiak berdinak zirela, alegia. Beste gauza bat komentatu zuen: akelarre hitza idatzita ikusi zuenean pentsatu zuen hark ez zuela zerikusirik antzinako erlijioan ilargi betearen argitan antolatzen zituzten bilkura eta ospakizunekin. Satanzaletasun hura behinik behin, hain krudel eta zital izanda, ez zuen natura, elkartasun eta bizitzaren goratze eta ospatzearekin zerikusirik.

Lontxo eta Dani etxera abiatu ziren. Auzoan aparkatu eta Lontxoren elkartean egin zuten geldialdi bat. Ordu haietan beti izaten ziren bazkide eta kuadrillako batzuk eta afari-merienda antolatu zuten. Handik gutxira etxeratu ziren.

9 - Daniren istripua.

Hurrengo egunean gosaldu ondoren Lontxo tailerrera abiatu zenean, etxea pixka bat atonduta Dani mandatuak egitera atera zen. Auzoko superrean erosketa batzuk egin ondorenean, zebra bidetik pasatzen ari zela, auto batek azeleratu zuen eta ia harrapatu zuen. Eskerrak zerbaitengatik, ziurrenez autoak sortutako zaratagatik, garaiz ikusi eta atzera salto egiteko intuizioa izan zuen.

Danik ez zuen dudarik egin. Non bizi zen aurkitu zuten irizartarren lagunek. Orduan hasi zen pentsatzen odolustutako mutilari egindako ekintza ez ote zen tranpa bat izan bere gordeleku topatzeko. Dani zen ordura arte gaizkile haien kontra poliziek zeukaten testigurik onena. Edonola ere, Danik lagunari deitu zion gertatutakoa kontatzeko eta ziurtasunez jokatu zuen egunean bertan gordeleku berri batera mugitzeko. Lehenagotik kontuan izan zuen Emilia, amaren izeba gazte baten eskaintza. Txikitan bere etxera udaldiak edo aste batzuk egitera joaten zen Dani. Hark gustura hartu zuen Dani etxean, maitatzeaz aparte, orduan alargunduta, seme-alaba kanpoan bizi zirelako eta bakarrik sentitzen zelako. Dani egun batzuetan geratuko zen izebarekin. Bizitza normalera eta herrira itzultzeko gogoaz bazuen ere, ongi zekien momentuz ezin izanen zuela. Nahi gabe pizti batzuen bidean aurkitu zuen bere burua. Gaizkile haien arriskua gainditu bitartean zain egon behar zuen. Nolanahi ere, Dani ez zegoen prest besoak gurutzatuta geratzeko. Satanikoen kontra egin nahi izateaz gain, beste bi helburu zeuzkan: alde batetik Tesa aurkitu eta berari lagundu eta bertzetik herrian bizitza normalera itzuli. Ezin zuen ongi onartu, baina sadiko haien ekintzetan bere lagunaren ustezko parte hartzea argitu behar zuen.

Egun hartan, Marchena, desagertu zen adineko gizona topatu zuten errekan. Egunak pasatu omen zituen uretan; hala ere, zauriz beteta eta odolustuta zegoen. Hura ere deabruzaleek torturatuta hil zen. Tailerrean aurkitutako odol laginek emandako DNA-rekin bat zetorren Marchenarena.

Jabier Lopez Astiz komisarioak pentsatu zuen ordura arte ez zuela kasua behar bezala kontuan hartu. Bilera egin behar zuten Foruzaingo eta Udaltzaingoko Delitu Larrietarako Taldeko arduradunek. Hau da, Jabier Lopez komisarioak seriozki aztertu nahi zituen meza satanikoetako delituak bere lankidea zen Ramon Zudaire inspektore, Manuel Elkano Iruñeko Udaltzaingoko inspektore eta Ainara inspektoreordearekin. Lala ere gonbidatu zuten, bi desagertu beraren bezeroen seme-alabak baitziren. Komisarioak egun batzuk lehenago larrialdira deitu zituen bere menpekoak eta Udaltzaingoko Delitu Larrietakoak. Hala eta guztiz ere, orduko, gero eta handiagoak ziren gertatzen ari ziren delituak eta bortxakeria maila. Hildakoek eta larriki erasotutako biktimek arriskuaren neurria ematen zuten. Hura ez zen budu edo meza beltz arrunt saio huts bat, maila ikaragarrian handitzen ari zen bortxakeria baizik. Bileran komisarioak erreparasatu zituen gertaerarik garrantzitsuenak. Garbi utzi zuen ez zutela pista garbirik eta handik aurrera nola jokatu adostu nahi zuen besteekin. Mahai-gainean karta txarrak agerian utzi zituen eta besteekin aurrerabideak aztertu nahi zituen.

—Orain arte ezin izan dugu ezer egin. Ez dugu pista handirik eta satanzaleen azioen atzetik gabiltza —Zudairek adostasuna adierazten zuen buruaz, baina Manu ez zegoen ados eta adierazi zuen.

–Ados nago neurri handi batean analisiarekin, baina jarrera ezkor horrekin ez dugu laguntzen
–ezustean Jabierrek irribarrea erakutsi zien.
–Hori da nahi dudana. Gure egoera adierazi dut, baina uste dut zerbait egin behar dugula.
Manu, hori da behar duguna –Lalak hitz egin zuen orduan.
–Nik uste dut Danik erakutsi digula bidea. Sagasti-Irisarri familiakoak eta Tesa bilatu behar ditugu –komisarioa ados zegoen eta jarraibidea borobildu zuen.
–Bai. Halaxe egingen dugu. Gainera, ez dakigu ziur, baina mafia berriak izan dezake guzti honekin zer ikusirik. Prest egon behar dugu edozertarako eta droga-salerosketa eta bestelko delituak ikertzen jarraituko dugu. Koordinazioa ere beharrezkoa da eta Ertzaintza eta estatuko polizien laguntza eskatu beharrean gaude.

10 - Dani Donostian, Tesaren bila.

Maiatzaren 12, igandea.

Danik, behin bere burua seguruago sentitu zuenean, Iruñean ibiltzea zailagoa zuenez, pentsatu zuen bere obsesioa zen Tesaren bila mugitzea. Donostian ere bilatzen ahal zuten satanikoeak, baina ezustean eginez gero, berak emakumea bilatzen ahal zuen pare bat egunez. Pentsatu eta egin. Izebari aitzakia merkea kontatu zionean honek onartu zuen handik bi egunera itzuliko zelako. Telefonoz erreserba egin zuen ezagutzen zuen hotel batean. Aplikazio baten bidez bidaia egitea pentsatu zuen, baina izena eta datuak ematea gustukoa ez zuenez, azken momentuan autobuserako billete arrunta erostea pentsatu zuen.

Goizeko hamarrak izateko hamabortz minutu falta zirenean Donostian sartzen ari ziren. Bidaia nahikoa lasaia izan zuten eta ondoko eserlekuan adin ertaineko gizon bat eseri zen. Diosala baino hitz gutxi gehiago gurutzatu zuten, nor bere gauzetan aritu zirelarik. Danik liburu bat eramanean zuen babes moduan. Tamalez, justu atzealdean isiltzen ez zen adineko emakume batek telefonoz familia osoa kudeatu behar zuen. Eskerrak ez zuen oihukatzen! Dena den, ezin izan zuen bilaketan pentsatu, tarteka emakumearen aholkuak entzuten baitzituen. Donostian, egun tristea izanda ere, atseginez egin zuen ibilia Urumearen pasealekutik, Kursaal eta Zurriolaraino. Jende gutxi zebilen kaletik eta Itsaso mugituak eta olatuen mugimendu sorgintzaileek hipnotizatu zuten gizona. Ezertan pentsatu gabe, edo berdina zena, natura hartan murgilduta, denbora eternala zitzuan pasa zitzaion. Ordu bat eman zuen itsasoari begira, konturatu gabe. Gero, poliki, jarraitu zuen paseoan hoteleraino.

Dani lasai sentitu zen une batez. Gogoratu zuen Tesak aipatu ziola asteburuetan, Donostian pasatzen zituenean behintzat, beste bi lagunekin zinemara joaten zirela eta zerbait afalduta, lotara lagun haietako baten etxera joaten zirela. Ordu txikiak arte hizketan geratzen ziren eta igandeetan berandu ateratzen ziren bermuta hartzera eta paseatzera. Kontxan eta Bulebarrean ibiltzen zirenez, Dani hara abiatu zen badaezpada kasualitatez ea harekin topo egiten zuen. Inguru haietan ibili zen emakumearen bila. Tabernen kanpoaldean, terrazetan eta barneetan bilatu zuen. Jendea taldeka ari zen paseatzen ateri zegoela aprobeztatuz. Solasean eta barrezka Donostiar asko ateratzen zen bermuta hartzera, bermuta baino bestelako edozein edari eta pintxo dastatzen baziren ere. Paseoan ibiltzen zirenen artean ere Tesaren aurpegia bilatu zuen. Bulebarrean ez ezik, Alde Zaharreko tabernetan eta kaleetan; Portu aldean eta Kontxan ibili zen bila.

Berak ez zekien Tesa non bizi zen. Emakumea ezagutzen zuten higiezinaren bulegoan, bere lanean, informazioa bilatu egingo zuen. Dani hurrengo egunean goizean goiz agertu zen bulegoan. Tesaren laguna zela eta haren gurasoak desagertu zirela erran zien. Tesari Maite deitzen zioten lantokian. Autonomoa zenez Tesak ez zuen derrigorrez agertu beharrik. Azkeneko asteetan oporrak hartu zituenez ez ziren harritu agertu ez izanaz. Haren laguna eta lankidea zen Pili Olaiz-ek, lanean eten bat eginez, Danirekin hitz egin zuen.

Danik azaldu zion herrian bizitzera sagastitarrak agertu zirenetik Tesarekin laguntasun harreman handia egin zuela. Kontatu zion gurasoak desagertu zirela mafioso batzuen beldur, beraiengandik ihesi, nonbait. Poliziek bilatu eta babestu nahi zituzten eta berak Tesari abisua pasa eta lagundu nahi zion.

–Zer gertatu zaie gurasoei? –Emakumea mesfidatia zen gai horrekin. Danik pentsatuta zuen erantzuna.

–Medellinetik atera ziren mafiosoengandik ihesi. Hemen berriro aurkitu omen dituzte eta ezkutatu egin dira. Ez dut uste harrapatu dituztenik. Arazoa da Tesa kanpora joan zela aurreko egunean eta ez dut modurik izan harekin mintzatzeko. Ez du deirik erantzuten eta pentsatu dut zuek aurkitzen laguntzen ahal didazuela –Pilik erantzun zion jarrera aldatuz.

–Maite zutaz mintzatu zitzaidan. Asko estimatzen zintuen..., baina ezin zaitut lagundu. Bakarrik... komentatu zidan egun hauetako batean Medellinera itzuli behar zuela, han kontu batzuk burutu behar zituelako. Espero dut bizi-seinalerik ematea... –Pilik ez zuen esaldia bukatu eta ezusteko pista eman zion orduan–. Gurasoak azken urtean Bilbon bizi ziren. Maitek aipatu zidan Moyua ondoan bizi zirela. Ez dakit... –jarraian beste gauza bat gogoratu zuen–. Barkatu, baina orain gogoratu dut, Sindy bere bizilagunaren telefonoa dudala. Agian berak zerbait gehiago kontatuko dizu.

Danik deitu zion Sindyri. Honek ere Daniren berri zuenez ez zuen eragozpenik jarri bere etxera gonbidatzeko. Etxean, bere gelan, begiratu egin zuten eskutizik edo paper batean berarekin kontaktatzeko bestelako daturik. Medellinen topatuko zuten hotel-jatetxearen izena besterik ez zuten: Sagasti hotela. Ez zuten ezer berezirik aurkitu. Dena den, momentu batean Sindyk zerbait bitxia aipatu zion Daniri:

–Medellinen, hiriaren erdialdean zuten jantoki-hotela. Erraza izan daiteke sagastitarren berri eta Tesaren arrastoa topatzea. Bestela, Ginak kontak... –Danik moztu zion jarduna.

–Gina? Nor da Gina?

–Gina, Tesaren laguna da. Tesak aipatu zuen hark han negozio handiak dituela. Tesak miresmen eta beldur ukitu batez aipatzen zuen izen hori.

Danik pentsatu zuen pista batzuk lortu zituela. Komisario eta inspektoreei kontatu behar zien. Baina, lehen lehenik Lontxori dena kontatu zionean, honek erran zion Lala eta Jaker beste desagertu baten bila zebiltzala.

–Barkatu Lontxo, baina...

–Dani, ulertzen dut Tesarekin obsesionatuta zaudela. Dena den, satanzaleek jarraitzen dute beren gaiztakeriekin. Gure lana haiek geldiaraztea da. –Danik ulertu zuen.

–Arrazoi duzu. Barkatu. Edonola ere, Tesaren desagertuena ere erlazionatuta dago satanzaleekin eta ez da garrantzi gutxiko kontua.

Lontxok ulertu zuen Tesa Daniren obsesioa izanda ere, deabruzaleen ibilerarekin zerikusi garrantzitsua zuela. Azken desagertuarena gaizkile haien azioa zen, baina satanzaleek Tesa ere bilatzen zuten.

Astearte goizean, maiatzak 14an, Dani itzuli zen Iruñera.

11 - Manuk etxeratzean izan zuen atsekabea.

Maiatzak 14, asteartea

Manu Elkano etxean sartu zen eguerdian, hirurak aldera. Alaba eta semea agertzeko zorian, Mirenek eta biek bazkarirako azkeneko prestaketak egin zituzten. Aurreko eguneko gisatua prest zutenez, Manuk gustuko entsalada prestatzen zuen bitartean Miren mahaia atontzen aritu zen. Ogia eta ura eraman zutenean alaba eta semea agertu ziren.

Udaltzaingoko Delitu Larrietarako Taldean nagusia izanda ere, ardura handia zuen, baina berez lan lasaia zuen eta ordutegi ona. Zuzeneko lana egiteko izaten zuen nori agindu: Fatima Olloki eta Jago Martin. Goizez aritzen ziren. Arratsaldeetan, berriz, Ainara Tartas inspektoreordea zen udaltzain taldean ardura zuena. Askotan elkartzen ziren Ainara eta Manu ordu biak aldera hainbat lanetan batera aritzeko. Eta gauez, Josema Zunzunegi inspektoreordea zebilen zerbitzibururu. Hark Manuri goizean pasatzen zion txostena edo partea.

Manu pozik sentitzen zen, lan on eta interesgarrian aritzeaz gain bizimodu normalago bat berreskuratu zuelako. Urteetan bananduta egon ziren Miren eta biak. Behartuta hartu zuen Udaltzaingoan eszedentzia. Ikertzaile pribatu bezala lan gorabeheratsua eta arrisksua zuenez, emazteak lana eta familia-bizitzaren artean aukeratzera behartu zuen. Desorduetan eta asteburuan lan egin behar izatea arazo zen etxekoekin konplitzeko. Hala ere, Manuk arriskuak pasatzea txarra bazen, hark etxekoei pasaraztea ezin zuen eraman.

Dei bat jaso zuten une hartan. Ainara Tartas zen, Manuren lankidea eta bigarrena.

–Kaixo, Manu. Sentitzen dut deitu izana, baina beste neska bat desagertu da.

–Diozunaren arabera desagertua debuzaleek eraman dutela uste duzue.

–Bai, hala da. Foruzainek auzoan ikertzea eskatu digute. Garbiñe eta Niko bidali ditut etxekoei eta ingurukoei galdeketak egiteko. Arrotxapean ikertu behar dugu.

–Gure auzoan, beraz! Zerbait gehiago nabarmentzekorik?

–Bai. Biurdana Institutuan eta Arrotxapeako eskoletan, zure seme-alaben ikastetxeetan, droga saltzaileak ibili dira azken aldian neska-mutilen atzetik –Manu urduritu zen.

–Ongi da. Hitz eginen dugu.

Manuk azaldu zien etxekoei Ainararen deiaren arrazoa, gaintetik, garrantzirik izan ez balu bezala. Harrigarriki, Junek baieztatu zien azken aldian berak eta bere lagunak droga saltzaile batzuk antzeman zituztela.

–Bai. Aita, aipatu dituzun trapitxero horiek gure ikastetxean dabilta. Drogak eskaintzen dituzte musu truk –Manu gehiago larritu zen eta galdetu zion alabari.

–Zuri eskaini al dizute? Mikel, eta zuri? –alabak aitaren larria ulertuta erantzun zion berehala.

–Lasai, Manu. Haundion atzetik ibili dira. Arraroena nesken atzetik ibiltzea izan da. Dena den, ez diegu kasurik egin. Trata gauzatu nahi dute. Gure artean erabaki dugu zikin horien tranpa eta gezurra agerian uztea eta kontsigna da hurbiltzen ere ez uztea.

–Trata! Zer trata?

–Emakume-trata. Lasai Manu, ez dute lortuko.

Manuk ezin zuen eginkizun hura besterik gabe hurrengo egunerako utzi. Profesionaltasunaz aparte, bahitzaileak eta arriskua beraien seme-alabengandik hain hurbil ikusi zituenean, berak pertsonalki hasi egin zituen ikerketak auzoan. Ainara eta Zunzunegi inspektoreordeekin hitz egin zuen ohiko neurriak hartu eta ikerketak abiarazteko. Bere txandako Fatima Oloki eta Jago Matinekin ikastetxeetan irakasleei informazioa pasatzen eta ikasleengandik jasotzen eta lekukotza batzuk jasotzen hasi ziren. Irakasleak, ikasleak eta gurasoak larri ibiliko ziren egun pare batean jasandako presioagatik. Auzoan desagertua, hamazazpi urteko Imanol Fernandez zen, hamazazpi urtekoa, Biurdana ikastetxean ikasi eta Arrotxapean bizi zena. Bazekiten droga-saltzaileekin ibili zela, baina gurasoak eta ingurukoak ez zeuden larri, bi aldiz ihes egindakoa egun gutxi pasata itzuli baitzen. Bere ikaskide, lagun eta gurasoekin hitz egin zuten eta falta zenetik ez zuen inon arrastorik utzi. Beste desagertu bat neska helduago bat zen, Arrosadiakoa eta ez zuen ezer ikasten edo egiten. Egun osoa etxabeen izaten zen denbora-pasan. Neska gazte hura ere nahita desagertu zela uste zuten ingurukoek. Edozein modutan ikertzen jarraitu zuten.

Auzoko zenbait gurasok jakin zuten arrotz batzuk gazteen atzetik ibiltzen zirela. Institutuko ikasleak jarraitzen zituzten eta gazteak etxabeetan sartzen zirenean haiekin harremanetan hasten saiatzen ziren. Droga-kontsumitzaileak bilatzen zituztenak ere gazte samarrak ziren. Hogeitaz urte itxurakoak ziren, batzuek hogeita hamar baino gehiago izanen zituzten arren. Bazirudien gaizkileek ikasleak droga-mundura gonbidatu eta sartu nahi zituztela. Gazte talde gehienek ez zieten kasu gehiegirik egiten. Dena den, gaizkileek, arazoak zituzten gazte batzuk begiztatu eta identifikatzen zituzten. Hizketan hasten zitzaizkien, bizi izaten zituzten arazoetan, familia eta ikasketetakoetan gehienetan, lagunduko zietela hitz emanez. Egiten zutena arrazoia ematea besterik ez zen.

Gaztetxo, guraso eta ingurukoekin hitz egin ondoren Manuk Fatima Oloki eta Jagorekin hitz egin zuen. Fatima desanimatuta zegoen.

–Manu, ez dugu ezer lortu!

–Oraindik ez dugu desagertuen berri eta ez dugu droga-saltzaileekin loturarik lortu. Dena den, droga-saltzaileen ezagutza izan dugu eta ezkutatu dira. –Fatima ez zegoen ados. Uste zuen gaizkile haiek gazteei kalte egin nahi zietela eta beldurrak zegoen.

–Saltzaileak gazteen atzetik ibili dira eta zerbait txarra nahi dute. –Hori zen guztien beldurra, baina ez zuten onartu eta pentsatu nahi. Jagok, berriz, betiko baikorra, ez zuen hain gaizki ikusten.

–Galdeketeekin jarraitu behar dugu. Beti bada zerbait gehiago jakiteko –Manuk eten egin zuen horrenbesteko ezkortasun edota baikortasunekin. Haiei komeni zitzaien erdiko bidea, horrenbesteko inplikazio emozionalik gabe, gehiegi busti gabe, buru hotz ikertzen jarraitzea.

–Fatima, ez izan hain ezkor. Ikerketaz aparte beste lankide batzuek zaintzen dituzte kaleak eta gaizkileei zaildu egin diegu jarduna.

Delitu Larrietarako Taldekoek jarraitu behar zuten lanean, beren lankide eta foruzainen laguntzarekin. Hain zuzen ere, garai hartan udaltzainek kasualitatez izan zuten Idoia Dufort gaztearen ikerketaren berri. Festa egun batean larrialdi-dei bati esker neska bat topatu zuten hiltzorian, droga eta alkohol gaindosi baten ondorioz. Ospitalera eraman zuten koitadua eta ozta-ozta harrapatu zuten azken momentuan berpizteko. Kasu haiekin egiten zuten bezala

poliziek ikertu behar zuten deliturik izan ote zen. Hilzorian zegoena ez zen Idoia Dufort, haren lagun Naomi baizik. Ramon Zudaire foruzain inspektoreak Naomi Salinasi gertatua ikertu behar zuen.

Naomi heriotzatik libratu zen bere lagunari esker. Idoia Dufortek bere laguna konortea galduta eta arrisku bizian aurkitu omen zuen eta berak deitu zien larrialdiko zerbitzueetara. Inspektoreak bazekien Lala ikertzailea Idoia Dufort bilatzen ari zela eta deitu zion. Edonola ere, bilaketa hura ez zen desagertuen kasuetan bezalakoa, gazte bihurri bati buruzko ikerketa prebentiboa baizik.

Lala eta Maite ikertzen ibili ziren azken astean. Ordura arte Idoiaz jakin zuten aberaskume askok bezala, zalantzazko ibilerak eta jokaera bihurriak izan zituela. Luxuez inguratuta, behar materialak asetuta, neurri handi batean mimatuta bizi zen, baina nerabe-arogan errebeldia handia erakutsi zuen. Pertsonalitate handikoa zen. Askatasun faltaz kezkatzen zen eta guraso eta familiakoen erlazioa gaiztotu zen.

Idoia eta Naomi elkarrekin ibiltzen ziren. Etxetik, gehienetan bestearen etxera edo beste lagun baten etxera ateratzen ziren, egun eta egunetan beraienean bizi seinalerik eman gabe. Gauetz ateratzen ziren eta droga eta bizitza arriskutsuko jendearekin ibiltzen ziren. Drogatzen hasi ziren, Naomik gaindosia izan arte. Orduantxe, aurreko egunean, ikertzaileek aurkitu egin zituzten. Haien bizitokia zelatatzen ari ziren eta orduko jaso zuten informazioarekin familiakoei txostena bidali zieten.

Naomi behartu zuten adin gutxikoen epailearen aurrean astero agertzera eta astean bitan saioak egin behar zituen psikologo baten kontsultan. Gertatu zitzaizkien aldaketa handia ekarri zien lagunei. Idoia orduan zentzutzen hasi zen eta Naomiri lagundu nahian konpainia arriskutsuak utzi zituzten. Beste ekintza batzuetara bideratu zituzten beren jarduerak. Arte munduan murgildu ziren gogoz. Arte batxillera egiten ari ziren eta ikus-entzunezkoen bidezko adierazpenen ikerketetan murgildu ziren. Artearen bidez bideratu zituzten beren kezak eta adierazpen beharra. Jarrera aldaketan eragina izan zuen lagun kuadrillak. Dena onbidean, Lalak bukatutzat eman zuen ikerketa. Idoiaren gurasoak lasaitu eta poztu ziren.

12 - Herrian gauza arraroak gertatu ziren.

Maiatzak 16, ortzeguna.

Herrian ez ziren gauzak aldatu: helduak lanean aritzen ziren egunean zehar. Hurrek eguna ematen zuten Erburun ikasten eta jolasean arratsaldeetan, ahal zuten helduek denbora-pasan karrikan eta tabernetan ibiltzen ziren bezala. Gehien ikusten zirenak gizon zaharrak ziren etxetik gertuko paseoak eta lanak egiten, emakumezkoak *“tradizioa”* jarraiki, askotan etxean lanean ari zeren bitartean. Bertakoen bizitza ez zen gehiegi aldatu; edo bai, tristezia berri bat nabari zen, lehen izaten ez zena. Denek zekiten Danik, egiten ahal ziotenaren beldur, ihes egin zuela. Irizartarren etxean, Argiñenean, neska bat torturatu omen zutela. Egun batzuk lehenago, Erburun herritar bat hil egin zuten eta ondoren, Joxepi gaixoa torturatuta agertu zen. Ordura arte ez zuen konortea berreskuratu. Horrek guztiak eragina izan zuen biztanleengan. Pertsona batzuen artean zabaldu zen Joxepiri hankaz gorako pentakuloa eta gurutzea marraztu zizkietela. Ez zen egia, baina Antxon Goñiren erailketarekin lotzen zutenez, satanzaletasunaz tindatzen zituzten bortizkeria guztiak.

Herrian bertan, irizartarrak aspaldian desagertu baziren ere, gauza arraroak gertatzen ari ziren mendian. Jendeak ez zekien, baina irizartarrek erositako borda batean mugimendu eta aztarna arraroak nabaritu zituzten mendizaleek eta hurbileko beste bordari batzuek. Gauez argiak ikusten zituzten urrutitik eta egunez animaliei egindako txikizioen arrastoak eta odola topatzen zituzten bordatik hurbil. Animaliak ardiak eta oiloak izaten ziren. Mendizaleek odol putzuak eta hegazti eta ugaztun batzuen buruak topatzen zituzten.

Bordariak egintza haiek zibilei eta polizia salatu zizkieten. Zibilen mendi taldeek ikertu zutenaren ondorioak oso argiak ziren: irizartarren bordan bertan eta inguruan meza beltzak antolatu zituen hamar pertsona inguruko talde batek. Argizari-makilez egindako gurutzeek eta odolez marraztutako pentakuloek ez zuten dudarik uzten: satanzaleek argi utzi nahi izan zuten haien presentzia. Edonola ere, ez zituzten harrapatu. Herritarrek aurkikuntza haien berri izan zutenean beldurra zabaldu zen. Odolzale haiek garbi utzi zuten handik ibiltzen zirela. Mendian zaintzak antolatu zituzten zibilek. Hala ere, gora-beherak ez ziren bukatu. Asteburuetan gautxoriak inguruko disko eta tabernetan ibiltzen ziren. Gazteak, baina baita adineko mutilzaharrak bereziki, festa egitera joaten ziren, baina mezu makabroak topatzen zituzten, katu, oilo eta zakur torturatuak nonahi. Neska bat, mutil bat eta adineko gizon bat kolpatu eta labanaz markatu zituzten. Daniri eta beste lekuko batzuei mezua zabaldu nahi zieten: *“kontuz ibili ez hitz egiteko, inguruan ibiltzen gara-eta.”*

Dani ez zen herrira itzuli eta ez zuen inolako asmorik momentuz. Herrian gertatzen ari zena jakinda, Iruñean izebaren etxean jarraitzea erabaki zuen. Edonola ere, gizonak bazekien deabruzaleek herria kontrolatu ez ezik, zirikatzen eta beren eskutik ezegitekoak egiten ere jarraituko zutela. Dani ziur zegoen. Lagunek kontatuko zioten zerbait gehiago gertatuz gero.

13 - Ainara Tartas eta Manu Elkano udaltzainak.

Maiatzak 17, ortziralea.

Ainara inspektoreordea izugarri ona zen. Ona zen zentzu askotan, izaeraz ere, baina baita bere lanean ere. Profesional ona izateaz gainera, argia eta azkarra zen. Udaltzaingoko Delitu Larrietarako Taldean, Manu Elkano zen nagusia, ikerketetan intuizioa edota esperientzia zuena. Normalean inspektoreak goizeko bulego-ordutegia egiten zuen eta administratibo batek egiten zuen bulegoko lana, alde burokratikoa. Desorduetan lana egin behar bazuten, gehienetan Ainara inspektoreordea zen taldeko udaltzainen lana zuzentzen zuena. Manuk lan ziurra eta eroso egiten zuen zortzi udaltzainen buru, goizeko ordutegian bulegotik edo bestela Ainararen bidez urrutitik koordinatzen zituen ikerketak eta lanak. Gazte samarra zen Ainara, baina hogeita hamahiru urterekin hamar urteko esperientzia ere bazuen. Itxura onekoa, emakume ilegorri polit eta erakargarria baitzen, atsegina eta oso zuzena zen. Baina, edozeren gaineratik oso ongi eramaten zuen taldeko burutza Manu ez zegoenean eta bera egonda ere. Oso autonomoa zen arren, besteekin lan egitea gustatzen zitzaion. Ainarak lanari buruzko solas bat izan zuen Manurekin. Azken aldiko gertaerak erreparasatu zituzten eta ikertekin jarraitzea erabaki zuten. Ez zuten gaizkilerik harrapatu ezkutatu zirelako. Denbora batez ez ziren ikastetxe ondoetatik ibiliko, baina susmatzen zuten gaizkile haiek zerbait bereziren bila zebiltzala. Ainarak gorpuztu zituen bien beldurrak.

–Manu, droga-salmenta honek zerikusia du trata eta emakume gazteen desagertzearekin. Hala ere, zerbait gehiago sumatzen da atzean –nagusiak jarraitu zuen komentarioa osatuz.

–Bai. Satanzaleen odolzalekeriarekin zerikusia badu eta ez da bukatu.

14 - Iruñean egoera larritzen ari zen. Hauteskunde giroa.

Iruñean hauteskunde kanpainan ziren. Hauteskunde orokorrak pasa eta autonomiko eta udalekoen atarian giro aldrebestua bizi zuten. Hauteskunde orokorretan PSOE garaile atera zen, baina Unidas Podemos-ek bozka gutxiago lortuta, ez zuten gehiengo segurua. Eskuinekoek ez zuten asko lortu eta denak batera ere gutxiengoan ziren. Iruñean eta Nafarroan eskuineko eta aldaketako indarrak oso berdinduta zeuden eta sozialistek indartze bat espero zuten. Navarra+ deituriko koalizioa konstituzionalista, espainiar eta kontserbatzaile agertzen ari zen. Baskisten kontrako Nafarroako foraltasun espainiarra defendatzen omen zuten, nahiz eta Ciudadanos-ekoak foralistak ez izan. Eskuina, hala ere, elkartuta agertzen ari zen eta Aldaketakoak ere gobernuan jarraitzeko saiakera egiten ari ziren eta ez zuten oso segurua PSNren indar handitzearen aldean. Podemosekoek ahulezia erakusten zutenez, boto-emaile batzuek sozialistei eman nahi zieten boza eta azken hauek Bildukoekin ez zutela ezer nahi aldarrikatzen zuten. Beraz, progresista eta ezkertiarren betiko banaketaren aurrean dena erabaki gabe eta zalantzan zegoen.

Bitartean, giro hartan, erdi ezkutuan, bortxakeria egoera bat bizi zuten batzuek. Satanikoek jarraitzen zuten ospakizun odoltsuak egiten. Lekurik harrigarrienetan antolatzen zituzten meza beltzak. Azken aldian tailer abandonatuak eta aspaldiko fabrikak utzi zituzten, poliziek zaintzen zituztelako. Ez. Etxe isolatuetan edo landan karpa handietan antolatu zituzten mezak, jendetsuak eta zaratatsuak izateagatik. Momentu hartan, mezak ospatzen zituztenean anonimotasuna bilatzen zuten satanzaleek. Azkenekoan, Iruñea ondoko herri batean, aparteko etxe handi eta zahar batean, aspaldiko ukuiluan meza sataniko nazkagarri bat antolatu zutenean, bizilagunek hutsik egon behar zen etxean mugimenduak sumatu eta poliziei deitu zieten. Hauek heldu zirenean ez zuten inor topatu, nahiz eta mezaren arrastoak utzi.

Ordura arte, jendeak, pertsona gehienak behintzat, ez zuen satanikoen jardueraren berri. Poliziek, bertako egunkarien laguntza eta isiltasunari esker, erailketak eta gertaerarik larrienak ezkutatzea lortu zuten. Horixe izan zen beren kezka eta ardura eta lortu zuten: ez zuten nahi jendarte osoa beldurtuta bizi izatea. Dena den, hilda agertu zirenen ondorioz bazegoen drogarekin erlazionatuta gaizkile batzuen berri eta gazte taldeen artean larrialdiaren berri gehiago zuten. Gauzez ez ziren bakarka ibiltzen.

Garai hartan, ezustean, hauteskunde-kanpainaren erdian, satanzaleek beren presentzia erakutsi nahi izan zuten. Bazekiten poliziek bilatzen zituztela eta neurriak hartu zituzten arrasto eta pistarik ez uzteko. Hala ere, era berean, ez zuten ezkutuan geratu nahi. Bazirudien proselitismo egin nahi zutela. Munduari erlijio eta mezu berria helarazi nahi zioten.

Alderdi politikoez mitinak ematen zituzten, irrati-telebistetan kuñak eta elkarrizketak. Hauteskundeak ziren komunikabideen arreta hartzen zutenak. Ematen zuen satanikoek propaganda egiteko kanpainaren erdian sartzeko ahalegina egiten zutela. Alderdi politikoko bateko agintari batek satanzaleen mezu beldurgarri bat salatu zuen komisaria batean. Mezuan, alderdiko agintariei adierazten zieten antikristoa heltzeko prest zegoela eta beraien aldeko jarrera hartu behar zutela. Deabruzaleek politikariei eskatzen zieten beren mezuetan Antikristoren etorrera iragarri behar zutela. Nafarroako alderdi politiko nagusia zen, boto gehien jasotzen zuena behinik behin. Beldurtuta, politikari buruzagiak polizia nazionalako

arduradun bati erakutsi zion. Azken honek ere ez zien beste poliziaei kontatu, ez baitzen osotara jakitun Iruñerrian eta beste hainbat lekutan gertatzen ari zenaz. Satandarren erailketa eta ezegitekoak gaizkileen banden artekoa bezala ulertzen zen jendarrean. Ia denbora berean beste alderdi batean antzeko mezua jaso zutenean foruzainei helarazi zieten. Suposa zitekeen beste mezu batzuk jaso zituztela beste alderdi politikoek, baina inork ez zien kasu gehiegirik egin.

Maiatzak 17an, ortziralean hauteskundeetarako aste bat falta zenean, grafiteroak izan balira bezala, ezohiko leku batzuetan, baita mitin handiak izanen ziren lekuetan ere, pintada batzuk, graffiti batzuk agertu ziren margo gorritz eginak. Haietan alderantzizko pentakuloa eta letra larri handitan Satanen etorrera iragartzen zuten. Udaltzainek, behin pintada haien berri izanez gero, garbitzaile taldeak bidaltzen zituzten. Mitinetan zentzu bereko oktabillak ere bota zituzten mozorrotutako gazte batzuek. Udaltzainak eta foruzainak “su” haiek itzaltzen aritu ziren, satanzaleen propaganda ezabatzen edo deusezten.

Manu Elkano ezagutzen zuten enpresari batzuek deitu zioten. Begoña Ugarte asegurueta eta higiezineta enpresari garrantzitsua zen; Pepi Fernandez, arte galerista zen eta Elena Burgik, aurrekoaren bazkideak, hostelerian pisua zuen. Emilio Olza eraikuntzako promotorerik garrantzitsuena zen inguru zabalean. Denek batera bilera eskatu zioten udaltzaingoko inspektoreari. Honek berehala hartu zituen bilera-gela batean. Beraiek bizi zutena kontatu nahi zioten. Serio zeuden. Emiliok eta Manuk elkarri eman zioten eskua eta bi musu trukatu zituzten emakume ezagunek eta Manuk. Bostak eseri ziren. Begoñak konfiantza gehiago zuen eta irribarre xumea eginez bere lagunaren izenean hitz egin zuen.

–Eskerrik asko hartzeagatik, bilera-eskaera berehala onartzeagatik. –Bilera-eskaeraren ezohikoaz kontziente izaki ere, Manuk irribarre eginez erantzun zion.

–Mila esker zuei etortzeagatik. Ziur naiz zerbait larria gertatu dela. Zuek kontatuko didazue – Begoñak azaldu zion.

–Konfiantza dugunez jaso ditugun mezuak eta mehatxuak zuri kontatzea erabaki dugu. Ez dugu uste jendeak jakin behar duenik, baina badakigu zerbait egin behar dugula. Beste poliziaei salatzea deigarriagoa izanen litzatekeenez, zuri kontatzea erabaki dugu –Manuk baietz egin zuen buruarekin eta Begoñarengandik besteengana begirada zabalduz erantzun zuen.

–Mila esker berriro konfiantzagatik. Dena den, uste dut badakidala zer komentatu nahi didazuen. Jakin behar duzue aspaldi honetan gure udaltzaingoan eta foruzaingoan jakinaren gainean gaudela. Satanzale batzuen mezuak jaso dituzue. Ez al da?

–Bai –erantzun zioten denek batera.

–Jakizue satanikoak meza beltzak antolatzen ari direla. Oraindik ez dakigu zergatik ari diren hemen beren jarduna zabaltzen eta zergatik egin nahi duten propaganda, baina haien atzetik gabiltza eta espero dugu geldiaraztea –Emilio Olzak bere pentsamendua adierazi zuen orduan.

–Harrigarria da orain arte satanikoen berri ez izatea. Nik neuk entzun dut eraikin zahar batzuetan meza beltzak gertatu direla. Dena den, mezuak jaso ditudanean, enpresarion artean kanpaina zabala egin nahi dutela pentsatu dut. Guk deabruzaleen protagonismo nahiaz kezkatuta, ahalik eta zarata gutxien sortuz polizion laguntza bilatu dugu –Pepik azaldu zuen bere kezka.

–Bai. Antikristo-aren etorrera iragartzeak zoro batzuen krudelkeriarekin lotu ondoren neu behinik behin larritu ninduen eta lagun enpresariokin komentatuta, iruditu zaigu ez dugula larrialdira deitu behar. Uste dugu isilean zuekin partekatu eta ahal den neurrian lagundu behar

dizuegula. Horregatik gaude hemen –Manuk ezin izan zuen irria ezkutatu. Beti izan zuen emakume haiekin konfiantza berezi bat. Emilio enpresari ezagun bat zen, baina emakume haiek ekintzaileak eta maitagarriak ziren.

–Jarrera eta erabaki ezin hobeak hartu dituzue. Mila esker. Jakizue foruzaingoan eta Udaltzaingoan lanean ari garela odolzaleak harrapatzeko. Inportanteena, edonola ere, jendea ez larritzea da. Hitz egingen dugu lasaiago.

Manuk, Fatima eta Jagori kontatu zien enpresarioekin izandako bilera. Gero Ainara eta Josema Zunzunegi inspektoreordeekin mintzatu zen koordinazio taldeko guztiak jakinaren gainean izateko. Beranduago, arratsalde hartan Ainara Tartasek Ramon Zudaire inspektorearen deia jaso zuen.

–Kaixo, Ainara. Ramon Zudaire naiz.

–Kaixo. Zer gertatu da?

–Zuen jardunaren berri daukagu. Zuen zerbitzuko bulegariak gaurko barne-egunkarian adierazi duenez, enpresarien kezken berri daukagu, baina ez dugu beraiei bidalitako mezuen kopiarik jaso.

–Arrazoi duzue. Gaur bertan deitu behar nizun pertsonalki dena kontatzeko eta mezuen kopia digitalak bidaltzeko. Barka ezazue, duela ordu gutxi gertatuaz ezer ez kontatzea.

–Lasai. Ulertzen dut. Dena den, nik ere eman behar dizut beste berri bat. Deabruzale bat harrapatu dugu pintada edo grafiti bat egiten. Ez da garrantzitsua, baina bere nagusia salatu du arinago libratzeko. Gabriel Gonzal-en fitxa bidaliko dizuet. Ez da deabruzaleen buru garrantzitsua, baina nazkagarrien ibileren berri emanen digu, ziurrenez. Beno, utzi behar zaitut, oraindik gixajoa estutzen ari gara ea deabruzaleen hurrengo ibileren informazioa ematen digun. Gero arte.

–Bai. Gero arte.

Dani herriko jendeaz kezkatuta zegoen.

Iratzetan eta Erburun bizitza normalagoa izanen zuen Danik; baina jarraitu edo zelatatuko zutelakoan, ez zen itzuli. Are gehiago, poliziaren zaintza izanez gero ere, bere burua arriskuan ikusten zuen. Zebra bidean harrapatzeko saiakera zen adibidea. Beste kontu batzuk ziren probak, bere auzokoak hiltzaileak zirela agerian uzten zutenak. Probarik garbiena, baina legalki balio gabea edo eskasekoa, irizartarren solasaren grabazio beldurgarria zen. Gezurrezko abizena geratu zitzairen, horrela deitzen baitzieten Iratzetan.

Dena den, azkenean Dani ez zen herrira itzuliko. Ezkutuan bizi, denbora edonola pasatzen utzi eta egin nahi zuena ezin egin ahal izateaz neka-neka eginda zegoen. Parentesi gogor batean bizi zen eta batzuetan iruditzen zitzaion ez zela egoera horretatik aterako hil arte edo irizartarrak harrapatu arte. Gogoia zuen herrira eta betiko bizitzara itzultzeko, baina ziur zen hala eginez gero hilko zutela. Bestelakoa zen ezustean agertzea, bere etsaien kontra egin ahal izateko. Lagunek abisua bidaliko zioten arrotzik edo haien pistarik topatutakoan.

15 - Lalak jarraitu zuen pista bat Manuren laguntzaz.

Kati topatu eta berehala beste neska gazte bat desagertu zen. Matxista baino gehiago misogino madarikatu haiek beti emakume gazte eta birjinak bilatzen zituzten beren ospakizunetan beraien errito eta sakrifizioak egiteko. Jenifer Carrasco hamazazpi urteko gaztearen familiakoek Elkano inspektoreari eskatu zioten laguntza. Jenifer Gorraizeko familia oneko bat zen. Bere amak elkarriketan adierazi zuenaren arabera Jeni burugorra zen eta berarekin haserretuta aurrezkiak eta jantzi batzuk hartuta motorrean joan zen. Inspektoreak gazte mimatu baten egun batzuetako desagerpen arrunta zela pentsatuz txostena egin eta foruzainei pasa zien.

Udaltzain taldeak ikertu ahal zuen, baina orduan ibiltzen ziren bezala, ez zuten nahiko jenderik neskaren inguruan sakonki ikertzeko. Manuk ikertzaile pribatu bat kontratatzea gomendatu zien gurasoei. Lalaren lana goraiatu zuenez amak Lala kontratatzea erabaki zuen. Laster, Lalak deitu zion inspektoreari lana eskertzeko eta informazioa eskatzeko.

–Manu, eskertzen dizut lana bidali izana. Dena den, badakizu denbora kontua dela. Dirudienez, neska horrek gurasoekin haserretuta etxetik atera da eta dirua bukatuta itzuliko da. Zenbat diru dauka? Zergatik eman diguzu lan hau? –Manuk barre egin zuen.

–Kontatu behar nizun zehatzago. Zuek neska gazte bat bilatzen aritu zarete, Kati. Dagoeneko badakizue neska hauen ibilerak nolakoak diren. Jakerrek erraz aurkitzen ahal du bere arrastoa...

–Zuk nahi duzuna da neska gazteen inguruan ikertzen jarraitzea! Uste al duzu bahiketa kasu gehiago izanen dela ala?

–Asmatu duzu. Zuek heltzen zarete gu heltzen ez garen tokietara. Bide batez, Jenik 500 euro atera zituen eta bere kontua eta txartela blokeatu dituzte.

–Gaizki egin dute. Bihar txartelen ordainketen bidez non dabilen jakinen genuke. Eskatu behar diet desblokeatzeko eta beste 300 euroko kreditoa emateko. Uste dut ez dutela bahitu. Agian neska laster topa dezakegu.

–Bai. Hala uste dut nik ere. Ongi izan, Lala.

–Ongi ibili, Manu.

16 - Jabier Lopez eta Manu Elkano satanzaleen arrastoen atzetik.

Ezustean foruzainek pista berriak lortu zituzten. Nolanahi ere, pistak baino gehiago informazio xume batzuk ziren, ikertu behar zituztenak. Antza, leku desberdinetan deabruzaleen ibilerak egiaztatu zituzten. Herritar batzuek gauza arraroak ikusi edo nabaritu omen zituzten. Geografiako leku desberdinetan gertatu zenez inspektore batzuk bidaliko zituzten ikertzera eta lekukoak elkarrizketatzera. Jabier Lopez Astiz komisarioak txostena aztertu zuenean Manu Elkanorekin gogoratu zen. Pentsatu zuen udaltzaingoko inspektoreak laguntzen ahal ziola leku pare batean.

Egia erran, Jabier Lopez Astiz komisarioak ikerketetan laguntza ez ezik Manu Elkano inspektorearen beharra zuen. Satanzaleen eraso hasi zenetik inoizko laguntza eta koordinazio beharra sentitu zuen. Ez zekien zergatik, baina Nafarroako mendialdetik 50 kilometro inguru zabal batean mugitzen ziren satanzaleak. Arandiko Erburun, Iruñean eta Gipuzkoako ekialdean gertatu ziren meza beltz gehienak, Bilbokoak aparte. Momentu hartan leku desberdinetan gaizkile haien presentzia nabariagoa egin zen. Komisarioak laguntzaren beharra sentitu zuen eta Manurena oso preziatua egiten zitzaion.

–Kaixo, Manu. Zer moduz?

–Kaixo, Jabier. Ongi eta zuek?

–Ongi... Begira, harira joko dut, deabruzale batzuen ibileren berri izan dugu. Zure laguntza oraintxe behar genuke. Besteak beste, Basaburura eta Lizarrara joanen gara eta leku horietan zure familiakoek eta ezagunek laguntzen ahal digute. Nirekin etorriko zinateke ikerketetan laguntzeko? –Laguntzeko prest bazegoen ere, Manu harritu zen Jabier horrelako premiaz eskatzeagatik eta adierazi zuen.

–Bai, gustura. Baina, zer dela eta horrelako presarik?

–Ez pentsa zerbait larria gertatu denik. Dena den, gaizkileak harrapatzeko arrasto hoberik ez dugunez, lehenbailehen eta errekurtsio guztiak erabili behar ditugu.

–Ongi da. Madarikatu horien azioek urduritu egin naute ni ere.

Handik gutxira, bi lagunak gertaera batzuk izandako lekuetara abiatu ziren unformatutako bi foruzainen laguntzaz ikertzera. Basaburuan, Arraratsen hain zuzen ere, galdutako borda batean gauean mugimenduak susmatu zituzten inguruko biztanle batzuek eta hurrengo goizean meza baten arrastoak topatu zituzten. Poliziek gela batean betiko pintadak eta mahai gainean odol putzu batean sakrifikatutako oilarra topatu zuten. Lekukoek autoen burrunba eta bordan argia eta algara baino ez zuten nabaritu. Bi auzokide hara joan zirenerako ez zuten inor topatu. Poliziek ez zuten ezer gehiagorik atera. Bortxatutako atez gain, zoru gainean 4x4 autoen gurpil-markak besterik ez zuten ikusi. Lekukoek ez zieten gehiago kontatu, lehenago mendian jende-mugimendua sumatu zutela besterik ez. Gehiago ez zutela aterako pentsatuta Manuren lehengusuarengana jo zuten. Ondoko herri batean bizi zen eta uste bezala etxaldean topatu

zuten behiei jana ematen. Agurrak eta aurkezpenak gurutzatu ondoren ondoko herrian gertatutakoa kontatu zioten. Manuk iritzia eskatu zionean lehengusuak oso argi adierazi zuen.

–Arraratsen gertatu dela erran duzue? Herri horretan gauza arraroak gertatu eta gertatzen dira mendian eta aparteko borda batzuetan. Beti izan dira leku apartatuak bilatzen dituzten zoroak. Kanpoko gazte-kuadrilla batzuk agertzen dira uda aldean eta kriston parrandak egiten dituzte...

–komisarioak jakin-minez galdetu zion.

–Zer egiten dute? Barkatu, baina informazioa behar dugu –lehengusuak etsipenez erantzun zion.

–Sentitzen dut gehiagorik erran ahal ez izatea. Beti izan dira ezkutuko lekuetara etortzen diren kanpotarrak; zuek aipatu dituzuen satanzaleak ere bai.

Ezin izan zuten gehiago egin. Eskerrak eman eta udalean abisua utzi zuten satanzaleen agerpenaz ohartzeko eta mendialdean kontuz ibiltzeko. Manuk goraintziak emanda poliziak abiatu ziren bertakoen lasaitasunerako.

–Juantxo, goraintziak zure etxekoei. Zer moduz guztiak?

–Ongi. Iratxe medikua da jada, nahiz eta MIR-a egin behar duen. Beste alaba ezkontzekotan da..., hurrengo hilabetean. Gonbidapena bidaliko dizuegu. Eta seme-erraina Alemanian dire oraindik. Baina, ez al zarete geratuko zerbait hartzeko? Kontxi berehala izanen da hemen.

–Ez, mila esker. Oraindik badugu beste bisita bat. Ezteietan egonen gara.

–Bai. Goraintziak etxekoei.

Bi poliziak etsitzen ari ziren. Ez zuten ezer garbirik atera, satanzaleak leku anitzetan ari zirela besterik ez. Lizarrara abiatu ziren ondoren.

Lizarran ez zuten meza baten arrastorik bilatuko. Han aurreko goizean lau pintada topatu zituzten hiriaren lau puntatan, haize-arrosa baten moduan. Udaltzainek goiz hartan korreo elektronikoan jaso zituzten argazki batzuk mezu batekin batera. Mezuan lau haizetara zabalduko zirela idatzi zuten. Argazkietan “Antikristo”-aren seinaleak eta pentagrama erraldoiak margotuta ikusi zituzten.

Udaletxean, Manuren udaltzain-lagunak kontatu zien margo haiek Lizarratik hurbil errepideetan eginak zirela eta grafitiak berehala ezabatu edota zirriborratu zituztela, baina ez zutela besterik topatu. Jabierrek eta Manuk argazkietan ez zuten ezer gehiagorik nabaritu. Ezustean, dena den, udaltzainak zerbait kontatu zien.

–Duela bi egun beste korreo bat jaso genuen, baina ez genekien zer zentzu zuen. Oraingoan bezala ezin izan genuen helbidea eta jatorria aurkitu. Begira ezazue mezua. Agian zuek uler dezakezue.

Mezuan, *“Ez Danik ezta komisarioak ez duzue gu gelditzea lortuko. Satanzaleak.”* irakurri zuten. Garbi zegoen zertaz ari ziren. Satanzaleek mezua luzatu nahi zieten Dani izeneko bati eta komisarioari. Harrituta zeuden, baina ez zuten asmatzen zein zen mezuaren helburu zehatza. Besterik ezean, solasean makinako kafea hartu zuten udaltzaingoko bulego ondoan, Iruñera itzuli baino lehen. Manuk, behin erlaxatuago, joan baino lehen hitz egin zuen ikaskide izandako lagunarekin.

–Andres, zer moduz emaztea eta seme-alabak?

–Ongi. Ainara eta Andoni ongi ari dira ikasketetan. Zer moduz zuek?

–Primeran. Gureak ere ongi ari dira. Bestelakoa da deabruzaleek sortu diguten arazo larria eta giroa. Hau ez da kasu arrunt bat. Antolatuta daude eta jende asko tartean izateaz gainera ez dago argi buruak zein diren eta nola topatu ahal ditugun.

–Ulergarria da kezkatuta izatea. Espero dut dena konpontzea. Suerte on eta ongi ibili.

–Berdin.

17 - Lala eta Jaker beste desagertu baten bila dabilta.

Maiatzak 17, ortziralea.

Polizia nazionalen jaso zuten desagertu bati buruzko salaketa. Beste polizia taldeek ez zuten Informazioa zehatzago jakin ordura arte. Nor zen eta non-nola desagertu zen ez zekiten. Lala eta Jaker ikertzaile pribatuak arituak ziren Kati Sotas aurreko desagertua bilatzen, Manurekin eta Foruzaingoarekin elkarlanean. Hamazazpi urteko neska aberaskume bat zen Jenifer Carrasco ere bilatzen ari ziren.

Azkenik, Lalak eta Jakerrek jakin zuten nor zen desagertu zen bigarren neska. Desagertu baino gehiago bahitu omen zuten neska bat zen. Bahitua, June, Manu inspektorearen alabaren ezagun eta ikaskide bat zen, ia laguna. Manuk, orduko, ez zuen ideiarik. Juneren gelakidea zen Uxue. Emakumezko, etorkin baten alaba, beste arraza batekoa mulatoa baitzen eta lesbiana edo bisexuala zen, azken aldian behintzat, bi urte zaharragoa zen neska batekin ateratzen ari zen-eta.

Aurrekoan bezala beraiei eskatu zieten neska desagertuaren ikerketa. Foruzainek eta udaltzainek beharrezko neurriak hartuak zituzten, bilaketak aginduz, baina ezin zuten ikerketa estua egin. Lalak hartu zuen ikerketa-lanaren ardura eta Jakerrek eginen zituen interneten egin beharreko bilaketak.

Uxue bahitu omen zuten. ia ziur ziren gurasoak eta lagunak. Inork ez zuen pentsatzen bere kabuz ihes egin eta desagertu nahi zuenik. Ordura arte ez zuen portaera arrarorik erakutsi. Ongi konpontzen zen etxean. Ikasketetan ez zuen arazorik eta lagunekin gustura ibiltzen zen. Denek edo ia denek onartu zioten lesbiana izatea eta bere neska lagunak ez zekien zergatik desagertu nahi izanen zuen. Egun batean lagunekin zegoela, berandu egin zitzaion. Gaututa, bakarrik abiatu zen etxera. Bi egun lehenago, etxabetik etxera, hamar minutuko ibilbide seguru batean galdu zuten haren arrastoa. Lalarekin batera Ainarak udaltzain-inspektoreordea ari zen zuzenean neskaren bila. Manuk eta Josemak ere kasuaren jarraipena egin behar zuten.

Lalak neskaren lagun, ikaskide eta ezagunen artean ikertu zuen eta Ainarak, Uxue desagertu eta ibitzen zen inguruetan udaltzainen bidez zaintza eta ikerketa zuzendu zuen. Dena den, Loretxok, Maitek eta Gorkak ere ikertuko zuten gau-giroan badaezpada.

Emakume bezala, Uxuek bazekien desorduetan nola jokatu. Ez zuen nahita tontakeriarik eginen. Antza, bere borondatearen kontra eraman zuten. Nork, ordea? Deabruzaleek edo *trata*-ko bestelako talderen batek? Bitartean, Manuk ikerketa koordinatuko ez bazuen ere, segimendua eginen zuen. Bestela ere, udaltzaingoko taldearen buru bezala libre egon behar zuen edozertarako. Ainarak koordinatuko zituen ikerketak eta informazioa batu eginen zuen besteen laguntzaz. Dena den, Lala zen denek lagunduko zutena, bera baitzen lehen lerroko lana eginen zuena.

Erburun bizitza larriagotu zen.

Erburun biztanleen bizitza zailago bihurtu zen. Gautxoriek, emakume gazteek bereziki, arazoak izan zituzten gauean ibiltzeko. Erburun ohikoa zen bertako eta inguruko herrietako lagun-kuadrillak festa giroan ibiltzea edaten eta solasten. Dantza ere egiten zuten ordu txikietan. Zenbaitetan, elkartean zerbait berezia antolatzen zuten: mozorro-festa, karaokea edo musika-talderen bat gonbidatu. Ez ziren gauza harrigarriak, baina nahikoak bertako gazteak gehienetan han geratzeko. Beste leku batzuetara ere joaten ziren noizean behin: inguruko herrietako festetara eta batzuk hirietara. Dena den, gehienak oso herrizuloak ziren. Gazteek bezala edo gehiago, adinekoek ere bertan egiten zuten bizitza.

Aurreko ostiral gauean, Nekane, Daniren lankide eta laguna, beste lagunekin atera zen gaupasa egiteko asmoz. Askotan egiten zuten bezala, batzuk elkartu ziren ohiko tabernan pote bat hartzeko, mintzatzeko eta falta zirenei denbora emateko. Afaltzeko ordua heldu zenean sei ziren elkartu zirenak. Gustuko taberna-jatetxeko goiko solairura igo ziren. Gau epela zen eta jende gutxiago ibiltzen ari zen, gehienak etxean afaltzen ari zirelako. Tabernaren txokoa atondua aurkitu zuten. Paperezko mantela eta plater-zerbitzuak eta edalontziak jarrita. Patxik eta Mabelek, tabernariak, dena prest zegoela erran ondoren esertzeko adierazi zieten. Eskatu bezala, sarrerak eskaini zizkieten: frito batzuk, gazta, urdaiazpikoa eta edateko, ura, sagardoa eta ardo beltzez lagundurik. Lehen eta bigarren platerak ez ziren sofistikuak: entsalada mistoa, kaneloi beganoak eta txuleta. Postrerako torrijak. Gustura aritu ziren.

Afaldu ondoren bi lagun gehiago elkartu zirenean gehien gustatzen zitzaiena egin zuten: gazteak ziren eta lagunartekoaz gozatzeaz gainera, broma eta irri artean dantza egitea zen. Pikuta izeneko tabernan denetarik egiten zuten, baina dantzatzeko musika ona jartzeko sona zuen. Pantxo zen horretan *“erruduna”*, sentsibilitate handia baitzuen giro eta egoeraren arabera musika aukeratzeko. Ez zuen musika altuegia paratzen eta ondokoarekin mintzatzen ahal zen, baina akustika eta ekipo egokiak jarrita zituztenez, ongi aditzen ahal zuten musika. Baziren musika entzutera baino joaten ez ziren lagunak. Hirurak jo baino lehen azkeneko tragoak hartzera mugitu ziren. Lagun batzuk etxeratu ziren. Gau freskoa zen. Dantza egin ondoren gustura hartu zuten gaueko freskotasuna. kuadrillako bost lagun geratu ziren erreka ondoko azken tabernara heldu baino lehen. Aurretik Irune eta Nekane zebiltzan eta atzetik Fermin, Ana eta Joxemi.

Bat-batean, auto bat agertu zen kaletik abiadura handiz beraien aldera heldu eta bi morroi kaputxadun atera ziren erasotzera. Batek Nekaneri heldu nahi izan zion eta besteak Iruneri. Neskak defendatu ziren arren, handikote haiek eskuetatik hartu eta auto barnera eramaten saiatu ziren. Beste lagunak erreakzionatzea eta bultzaka biak askatzea lortu zuten. Erasotzaileek ihes egin zuten. Bahiketa-saiakera izan omen zen. Lasaitu zirenean mintzatu ziren gertatu zenaz.

—Zer izan da hau? —galdetu zuen Ferminek. Nekanek erantzun zion baina ez zuzenean. Bere buruarekin hizketan mintzatu zen.

—Deabruzaleak izanen dira horiek. Bahiketa bat antzeztu dute, gaizki egin ere bai —Ana harritu zen.

—Nekane, ez al zara beldurtu? Ni jota geratu naiz.

–Nabaritu dut ez zutela gu eramateko gogo gehiegirik. Satanzaleek beldurtu nahi gaituzte.

Nekane eta Irune, bere neska-laguna, ez ziren gehiegi larritu, baina bazekiten gaizkile haiekin kontuz ibili behar zutela. Arriskutsuak ziren. Daniri komentatu behar zioten gertatutakoa.

Ezustean, Dani joan zen Erburura eta Iratzetara, baina ez han luzaroan izateko asmoz. Ez zen geratzeko agertuko, falta zitzaizkion gauza batzuk, liburuak eta arropak, eskuratzeko baizik. Danik herritik pasatu nahi zuen etsaiak konturatu gabe. Berrito itzuliko zen Iruñera lagunak eta gurasoak agurtuta, behar zituen gauzak hartu ondoren. Utzi zioten auto batean abiatu zen herrira. Danik bidaia laster eta arazorik gabe burutu zuen. Arraro sentitu zen. Azkenaldian ez zuen bizitza normalik izaten. Ezkutuan bizi eta gaizkile batzuen atzetik ahal zuena egiten zuen. Hala ere, etxera bidean ezinezko bizitzara itzultzen ari zela sentitu zuen. Egun batzuetan arriskuan bizi izan zen, baina erabakita zuen beldurra kontrolatzea, odolzale haiek harrapatzen laguntzea eta bizitza berreskuratzea.

Arratsaldeko zazpiak ziren eta supermerkatuaren ondoan aparkatu zuen Nekaneren zain. Emakumeak bazekien agertuko zela, baina betiko ohituraren arabera jokatu zuen. Denda itxi eta etxera bidean bera zelatatzen inor ez zegoela egiaztatuta heldu zen Daniren autora.

–Kaixo Nekane. Zer moduz?

–Ongi –Nekane ez zuen pena edo urduritasunik adierazi. Danik, dena den, enpatiak bultzatuta jarraitu zuen galdetzen bere lankideari lagundu nahian.

–Ez da polita bahitu nahi zaituztela ikustea.

–Ez, ez da! Baina berehala, larrialdia pasa ondoren, pentsatu nuen antzerkia egin zutela. Uste dut beraien asmoa herriko gazteak larritzea eta beldur-giroa zabaltzea zela.

–Pozten naiz zu ongi izateaz. Nik ere horixe uste dut. Gauza bera pentsatzen dugu. Gazte taldeekin hitz egin behar dugu honetaz. Jakin behar dugu momentu larria jasaten. Denbora gutxian dena pasatuko da eta bizitza normala berreskuratuko dugu. Hala ere, momentuz, taldeka, kontuz eta ahal bada leku kontrolatuetan ibiltzea komeni da. Gure herriak eta lasaitasuna berreskuratu behar ditugu.

–Bai. Arrazoi duzu. Goazen gazte-kuadrilakoekin eta lagunekin mintzatzera.

–Goazen! Ordu bete barru gurasoenetik pasako naiz agurtzera eta gauza batzuk eskuratzera.

Taberna batean alde zurretik hitzordua emanda, Ana, Izaskun, Gotzone, Andoni eta Santirekin hitz egin zuen Danik. Andregai ohia eta kuadrillakoak ongi zeudela egiaztatuta, Dani eta Nekane kuadrilla eta adin desberdinetako ezagun batzuekin solastu ziren egoeraz eta jokatzeko moduz. Denek ulertu zuten alferrik bilatuko zutela errudunik. Errealismoz jokatu zuten, baina edozeren gainetik satanzaleei ez zieten utziko beren bizitza bahitzen.

Handik gutxira Dani Iratzetara mugitu zen. Gurasoei abisua pasatu ondoren, disimuluz, etxera heldu zen. Ez zuen etxe aurrean aparkatu, ondoko kaleka batean baizik. Gaua pasatzeko asmoa izan zuen arren, arrisku egoeraz jakitun, berehala maleta hartu, gurasoak agurtu eta laster abiatzea erabaki zuen. Irekita zegoen atzeko atetik sartu zenean gurasoak besarkatu zituen. Hartu nahi zituen gauzak jasota merienda-afari arina egin zuten hirurek, elkarri animoak eta azkeneko egunetako informazioak ematen zizkieten bitartean.

–Lasai, seme –erran zion amak–. Gu kontuz ibiltzen gara, herriko guztiek bezala. Badakigu poliziek nazkagarri horiek harrapatu bitartean horrela jokatu behar dugula. Baina zu zara kontu handiagoz ibili behar duena. Ez arriskatu!

–Ez, ama. Ni naiz haien kontrako lekuko nagusia eta saltsaren erdian nago. Baina, bai, kontuz ibiliko naiz –aitak zerbait aipatu zion Daniri abiatu aurretik.

–Atera baino lehen Jexuxi deituko diot herriko sarreran zerbait arraroa ikusi ote duen galdetzeko.

Ateratzeko momentuan, aipatutako auzokoak 4x4 auto on batean ezezagun batzuk ikusi zituela erran zien. Danik garbi zuen atera behar zuela, ihes egin behar zuela. Aldez aurretik herriko lagunekin antolatutakoa burutu zuen. Ziztuan, bestaldera, mendebaldera, ondoko herrira abiatu zen. Atzetik jarraitu bazuten ere, minutu bateko abantaila aprobetxatuz herriko kale batean autoz aldatu zen eta besteak pasa zirenean Iruñeko bidera atera zen arazorik gabe.

Berrogeita hamar minutuan Iruñerrian zen Dani. Gizona hiltzaile haiengandik libratzeaz aparte gauza garrantzitsu bat lortu zuen: herrikoek zaintza sistema bat antolatzea. Araua bakarka ez ibiltzea zen. Dani berriro Iruñean zelarik, mezu bat jaso zuen bere helbide elektronikoan. Hauteskunde eguna baino lehen harrapatu eta hilko zutela adierazi zioten satanzaleek.

Jaker Internet Sakonean ikertzen ari zen.

Jaker mundu satanikoa *Internet Sakon*-ean ikertzen aritu zen, bereziki herrialdean eta inguruan egiten zutena. Lehen lehenik egiaztatu zuen mundu osoan satanzaletasun fenomenoaren goraldia ematen ari zela. Deabruzaleek talde pila bat zuten antolatuta leku askotan. Santeria eta budu praktikak aparte utzita, kristautasuna indartsua zen lekuetan zabaltzen ari zen. Nabarmena zen Europan baino gehiago Ameriketara, iparraldean, ertainean eta hegoaldean elite ekonomikoen artean asko zabaldu zela. Meza beltzak antolatzen zituzten hiri handi askotan, baina baita leku isolatuetan, landa-inguruan, basamortu eta oihanetan ere. Ez zuten ezkututzen tortura eta ezegiteko odoltsuak egiten zituztela.

Euskal Herrian ere bi web-orri zituzten antolatuta. Zirudenez Bilbo inguruetan elkartzen ziren batzuk eta Bidasoa inguruan beste batzuk. Azkeneko hauek iragartzen zuten Iruña inguruan meza berezi bat egiten zutela hurrengo egunetan. Adi egoteko adierazten zuten, ahoz ahoko eta ohiko abisuak izanen zituztela. Bidasoako mendietan ere egin nahi zuten zeremonia berezi bat. Web-orrietan argazkiak ere ageri ziren, haietako asko izugarriak, beldur-beldurgarriak.

Bestalde, Jakerren ezagun batzuek, internautak bera bezala, Iruñeko zabalguneko modako kafetegi batzuetan likantropo eta banpiroen zale batzuk mugitzen ari zirela adierazi zioten. Nolanahi ere, informazio hori baliatuta poliziek bi kuadrilla identifikatu zituzten. Leku bertsuetan mugitzen ziren, gauean kafetegi-pub berdinetan. Modako musika jarraitzen zuten eta estetika berezia jarraitzen zuten. Batzuek giza-otso bezala jokatzeko zuten eta banpiroak izango balira bezala besteek. *Crepusculo* izeneko sagako pelikuletako pertsonaiak bezala jokatzeko zuten. Komisarian galdekatu zituztenean konturatu ziren friki batzuk baino ez zirela, inozenteak, moda hura eta filme-sagak jarraitzen zituztenak.

Garai hartan, irizartarren berri izan zuen. Kolonbian izan zuten hotel-jatetxea Medellinoko auzorik hoberenetako batean zegoen, erdialdetik hurbil. Jakerrek Medellinoko poliziaren serbidoreetan fitxak eta informazio erreserbatua lortu zituen. Informazioak konfirmatzen zuen Danik Donostian jakin zuena. Irizartarrek, Sagasti-Irisarri familiako senar-emazteak benetako izenez, arima saldu omen zioten deabruari eta drogen bidez aberastu zirenez, sinetsita zeuden beren mugimendua gailenduko zela, baita kristautasunaren gainetik, hain ziren satanzale amorratuak! Baina, zertan ziren Maria Teresa Sagasti Irisarri eta anaia? Jakina zen bi urte lehenago Alejandro Sagasti eta Marisa Irisarri familiakoak Euskal Herrira itzuli zirela eta Bilbon hasi zirela bizitzen, gero jaioterriko Gipuzkoara familiarena izandako etxean alokairuan egon ziren zenbait hilabetez eta azkenik Nafarroako Arandi eta Iratsetara joan ziren bizitzera. Irizar familia bezala ezagutzen zuten ingurukoek eta amerikar itxurakeriaz aparte haiek izandako inguruetan meza beltzak ospatzen hasi ziren. Droga eta prostituzioa ere neurri handi batean zabaldu zirenez bikotekideek polizien arreta jaso zuten Bilbon eta Donostialdean, leku bakoitzean denbora pasa ondoren.

Momentu hartan bazekiten Marisa eta Fernando Irizar, Alejandro Sagastik eta Marisa Irisarrik ilegalki hartutako izenak zirela eta Medellinoko etsaiak eta poliziak despistatzeko aldatu zituztela. Behin satanzale eta heriotzen errudun nagusiak zirela susmatuta, alde egin ondoren beste deabruzaleek meza beltzak antolatzen jarraitzen zuten. Droga-salmenta eta emakumeen trata ere neurri handian bultzatzen zuten, sareko buruak harrapatu behar zituzten.

Ainarak pentsatu zuen gaizkile haien buruak harrapatzeko hoberena meza beltzen bidez talde batean sartzea izanen zela. Manurekin eta Jabier Lopezekin hitz egin zuen. Poliziek bazuten jarraitzaile batzuen berri eta infiltratzeko aukera aztertu zuten. Garbiñe eta Niko lagunduko zioten inspektoreordeari.

Manuk Jakerrekin hitz egin zuen, Ainarari telefonoak jakeatzen erakusteko. Egun gutxitan Ainarak lortu zuen harremanen bidez Iruñeko satanzaleen komunikazioak jakeatzea eta beraien negozio zikin batzuk kontrolatzea. Bilbokoa zen Jaime Martinezek Iruñeko satanzaleek prostituzio eta drogen-salmenta sarea gidatzen zuen. Ainarak probak lortu zituen eta satanzaleen ibilerak geldiaraztea lortu zuten.

Iruñean gaizkile-mafia berriarekin erlazionatutako prostituzio etxeak topatu zituzten. Bertan, trata, joko eta droga-salmenta gauzatzeaz aparte, leku haiek satanzaleen babes, diru-sarrera eta ezkutalekuak ere baziren. Gaizkile gehienak atxilotu eta bezeroak kontrolatu zituzten. Azken arduradunak falta ziren: nagusiak, Sagasti-Irisarri familiako senar-emazteak hain zuen ere. Arraroena, dena den, inork eskatu gabe atxilotuek bertze pertsona baten izena aipatzea izan zen. Gina Irisarri aipatu zuten hura guztiaren buru bezala, Marisa Irisarriren iloba edo.

18 - Danik Tesaren laguntza deia jaso zuen Medellinetik.

Danik dei bat jaso zuen. Behin eta berriz nor zen galdetuta ere, inork ez zuen erantzun. Hala ere, disimulatu nahi bazuten ere, arnasa edo hasperen bat nabaritu zuen. Gaztea pentsatzen geratu zen. Bere desioa zen ala... Ez zekien ziur, baina Tesa zela pentsatu zuen. Handik bi egunetara berriro deitu zioten.

–Tesa, zu al zera?

–...ai –zurumurrua baino ez zen izan.

–Tesa, nola zaude? Ongi al zaude?

–Momentuz bai. Kaixo, Dani. Zure falta sentitu dut.

–Tesa, itzul zaitez!

–Ezin naiz bueltatu.

–Zergatik ez?

–Zaintzapean nagoelako! Ginak ez dit libre ibiltzen uzten –erran zuen moduagatik erdi negarrez zegoela zirudien. Danik ezin izan zuen galdera gorde.

–Nahi al duzu ni zure bila joatea?

–Bai... –komunikazioa eteten ari zen.

–Tesa..., hor al zaude? Non bizi zara? –Ez zuen erantzunik jaso.

Gizona komunikazioa berreskuratzen aritu zen. Deialdiko telefono zenbakia bazuen ere, alferrik izan zen Tesarekin hitz egiten saiatzea. Deia Medellinetik egin omen zioten, poliziek erranda jakin zuenez. Danik Lontxori kontatu zion. Daniren sentimenduez gainera Tesak laguntzen ahal zien poliziei satanzaleen buruen berri ematen. Kolonbiara joanez gero aurrera egingen zuten kasuan. Manu eta Jabier Lopezek aipatu zieten, haiek ez zeuden oso ziur. Tranpa zela iruditu zitzaientzen, baina geratzen zitzaientzen jarraibide bakarra zen. Deabruzaleen agintaritzak, Gina delako harena izan ala Sagasti-Irisarri bikotearena izan, Medellinen kokatzen zen. Jakarrek Internet Sakonean informazio garrantzitsua lortu zuen satanzale haien egoera eta asmoak jakite aldera. Beraien bilkurak geldituko ziren Euskal Herrian. Beraien kontsigna momentuz ezkutatzea zen. Hala ere, Antikristo-ren berehalako etorrera iragartzen jarraitzen zuten Medellinen. Hiri hartan berriro ospatzen ari ziren mezak, sakrifizio odoltsuak eginez. Munduaz jabetzea zuten helburu eta ez zen txantxetako drogen negozioari esker. Gero eta gehiago eta sutsuagoak ziren. Beraien helburua sekta munduan zehar zabaltzea zen. Arriskua oso erreala zen.

Bilera bat antolatu zuten Jabier Lopezek eta Manu Elkanok. Beraien nagusiek gaitzarekin bukatzea agindu zieten. Hirian eta herrialdean azkeneko sektakideak bilatu eta arriskuarekin bukatzea baitzuten helburu. Bilbon ere atxilotu egin zituzten hango satanzaleen buruak. Edonola ere, deabruzaleen benetako buruak ez zeuden Bilbon, Medellinen baizik. Medellinera joateko asmoa izanda ere, poliziek ezin zuten ezer egin urruneko satanzaleen kontra. Dena den, bazekiten haien helburua berriro Euskal Herrira itzultzea eta beraien aktibitatea berrantolatzea zela. Gaiztakeria, heriotza eta beldurra zabaltzea zuten helburu. Danik Medellinera joateko erabaki irmoa hartu zuen. Lontxo ere prest zegoen lagunarekin joateko. Bestalde, desagertu zen Uxue ere bilatu behar zuten. Harrapatu zuten Bilboko Jaime Martinezek neska Kolonbiara bidali zutela aitortu zuen. Berriro Gina misteriozkoa agertu zen erabaki haien egile. Ginak momentuz satanzaleen aktibitatea bertan geratzea eta Kolonbian

berrantolatzea erabaki omen zuen. Gainera, denaren atzean agertzen zen Gina misteriotsuak eraman zuen neska gaztea Kolonbiara.

Jabier, Ramon, Ainara, Manu; Dani eta Lala elkartu ziren. Poliziek ezin zuten zuzenean ofizialki ikerketa jarraitu, Kolonbian egitea debekatuta zutelako. Lalak jaso zuen Uxue bilatzeko enkargua eta Dani zen Tesaren bila joan nahi zuena. Manuk sentitzen zuen erantzukizuna eta Ainarak bazuen Uxue askatzeko premia. Dudarik gabe joanen zena Dani zen. Berarekin Lalak eta Ainarak joan nahi zuten. Jabier Lopez komisarioak kasuarekin urruntasunez eta objetibotasunez jokatzeko ahal zuenez eman zien iritzia.

–Danik Tesa bere laguna askatu nahi du. Hura aurkituz gero, haren laguntza izanen duzue inguru hartan ibiltzeko eta Uxue bilatzeko. Danirekin beste bat joan daiteke. Nik uste dut esperientzia handiko polizia bat izan behar duela, nahiz eta polizia bezala ez joan, emakumezkoa bada hobe. Ainarak har dezake Uxue askatzeko eginkizuna –Lalak ezin zuen onartu. Berak hartu baitzuen gurasoen aurrean neska bilatzeko ardura.

–Denok lagundu nahi dugu eta Ainarak prestakuntza handia du, baina nik hartu nuen Uxue erreskatatzeko konpromezua. Bestalde, uste dut nik ere egiten ahal dudala. –Ainarak lagundu nahi zuen, baina isildu zen Lala ulertzen zuelako. Manuk bere iritzia eman zuen.

–Denok lagundu nahiko genuke. Daniri laguntzeko eta Uxue bilatzeko zuek bietako edonork egiten ahal duzue ongi –erran zuen bi emakumeei begiratuz–. Hala ere, Lalak irabazi du Uxue askatzeko eskubidea. Besteok lagunduko dizuegu hemendik; zuk, Ainara, misioaren eguneroko segimendu zuzena egin eta laguntza estua ematen diezun bitartean.

Denak ados eta laguntza taldea antolatuta, egun bakar batean egin zituzten prestakuntza guztiak. Astebete izanen zuten Tesa eta Uxue topatzeko. Dani eta Lala Kolonbiara joanen ziren Daniren beraren pista bati esker. Jabier Lopez, Ainara eta Manuren laguntzaz burutuko zuten ikerketa. Tesak noizbait aipatu zuen Medellinako hotel-jatetxea saldua ere, Botero museo eta izen bereko plaza ondoan apartamentu bat zutela.

19 - Midellinerako bidaia: 31 orduko eguna.

Maiatzak 18, larunbata

Bidaia luzea iruditu zitzaion Lala eta Daniri. Madriletik zuzeneko hegaldia lortu bazuten ere, Madrilerara gauzez bidaiatu behar izan zuten. Hegaldia goiz atera zen. Airean hamar ordu pasa zuten eta otorduak tartekatuta, ez zuten atsedunik izan, megafoniako mezuak edota inguruko zaratak zirela eta. Lala eta Dani ongi konpontzen ari ziren; baina, kezkatuta zeuden. Momentu batean mintzatu ziren. Danik ez zuen azken xehetasunen berri eta ikertzaileari galdetu zion.

–Lala, uste al duzu aste batean Tesari laguntzea, Uxue askatzea eta odolzaleak hango poliziak atxilotzea lortuko dugula? –Lalak pentsatu zuen erantzuna nola eman.

–Dani, ez dakit lortuko dugun. Saiatu behar dugu. Momentuz dirua dugu, helbide bat eta Medellinako poliziaren laguntza ere bai... –gizonak baietz egin zuen buruarekin.

–Bai, baina nire kezka da nahiko denbora izanen dugun.

–Beharbada atzeratuko dugu itzultzea... Zein da zure kezka? –Dani pentsatzen geratu zen. Nola adieraziko zuen bere zalantza?

–Tesa da nire kezka. Laguntza deia egin zidan, baina ez dakigu non eta zein egoeratan dagoen eta zergatik dagoen harrapatuta –Lala gizona lasaitzen saiatu zen.

–Lasai. Ikusiko dugu zer topatuko dugun. Garbi dago satanzaleek harrapatu dutela. Sagasti-Irisarri familiakoena izandako hotelera goaz eta hango poliziak badu sekta horien berri.

Dani neurri batean lasaitu zen. Ulerkortasuna eskertu zion Lalari. Medellinera heldu zirenean aeroportuko kontrolen bestaldean espero zuten laguntza topatu zuten. Arraroena izan zen nahiz eta hamar ordu pasa, zazpi orduko ordu diferentzia zela eta egun berean ziren goizeko bederatziak izaki. Willy Rodrigues tenienteak bere burua aurkeztu zuen. Hasieran ez zioten dena ulertu, baina berehala hartu zioten zentzua Kanariar azentuaren antzeko gaztelaniari. Handik aurrera, espainieraz egin behar izanen zuten bertakoekin. Tenientea berrogei bat urteko gizon tipikoa iruditu zitzaion. Valdes kafe-ekoizlearen irudiaren antza zuen. Bilaketan gidatuko zituen eta poliziarekin koordinazio lanak egingen zituen. Poliziari seriotasuna ematen zion bibotearen atzean gizon atsegin eta umoretsu bat izaten zen. Hark hiriaren erdigunera eramane zituen bere autoan. Eurria barra-barra ari zuen. Willyk kontatu zion maiatzean euri dezente eta egunero egiten zuen, arratsaldeetan bereziki.

Jose Maria Cordova aeroportua Rionegron zegoen, Medellinetik 60 kilometrora eta ia ordu bat behar izan zuten autopista batetik joanda ere. Willyk Sagasti hotelera eramane zituen. Hotela luxuzkoa zen eta ez oso handia. Ordu diferentziarekin goizeko hamarrak ziren, baina nekatuta zeudenez beraiek atsedene hartu arte despeditu zen Willy. Heldu berriek dutxa bat hartu ondoren arropa aldatu zuten eta bertako jantokian hamaiketako internazionala eskaini zieten. Gainera, euskal espezialitateak zituzten. Etxean bezala sentitu ziren eta Kolonbiako erara ohitu baino lehen, entsalada on bana, eta txuletatxoak eskatu zituzten. Ongi geratu ziren eta laster, geletara erretiratu ziren atsedene hartzeko. Ordu diferentzia zazpikoa zenez, arratsaldeko zazpiak ziren Euskal Herrian, Medellinen eguerdian ziren bitartean. Biek etxekoei deitu zieten, baina Lala izan zen Ainara, Manu eta Jabier Lopezekin mintzatu zena. Adostu bezala egunero hitz egingen zuten ikerketaz Manu edo Ainararekin.

Laster, berrituta, deskantsatuta sentitu ziren. Danik eta Lalak hotelean bertan, Tesa bilatzeko lekuri proposenean, galdeketetan hasi nahi zuten. Sagasti hoteleko gerentearekin hitz egin zuten. Honek bazuen aurreko nagusien berri, baina enpresako jabeak beste batzuk ziren. Bera ere berria zen, baina langile asko aspaldikoak ziren. Dena den, inork ezin izan zuen Tesaren berri eman. Ikusi zuten azken egunetan, baina bere lagun aberats baten etxean bizi omen zen. Gehiagorik ez zekiten.

Guayaquil auzoan ziren, erdigunean, udaletik hurbil eta inguruan bizi edo lan egiten zuten bertako negozio-gizon eta emakumeak. San Juan etorbidea, bestela calle 44 deitua, eta Bolibar edo carrera 51 ia gurutzean, hotelaren kokapena ezin hobea zen. Hiriko maila sozial gorenekoen artean ikertu behar zuten Tesaren pista. Polizien elkarlanari esker, bazuten Tesaren lagunak ziren Emilia Bilbao eta Simon Piqueras bikotekideekin bilera antolatua handik bi egunera, astelehen goizean.

Uxue Medellinera eraman bazuten, sekta bilatu behar zuten. Ziur asko elitekoen artean nagusiak ibiliko ziren. Edonola ere, momentuz, maila apaleko gaizkileen artean errazagoa izanen zen informazioa lortzea.

Willy Rodrigues tenientea laster agertu zen puntualki. Bere nagusien baimenarekin bikotea gidatuko zuen, Tesa eta Uxueren bilaketan. Gizona, nahasita edo, hasi zen erraten handik hurbileko Fernando Boteroren museora eraman nahi zituela, Rafael Uribe kultura-jauregira ere bai. Larunbata zen eta museoa gainezka egonen zen. Lala eta Daniren ustez Tesa museoaren inguruan bizi ahal zen. Pentsatua zuten aste-egunetan beraren bila joatea, baina inola ez museoan turismo egitea.

–Boteroren eskulturak ikustera eramango zaituztet –Dani harrituta zegoen eta Lala haserre. Honek argi adierazi zion.

–Willy, ez genuen gauza handirik hitz egin, baina ez gara hona etorri turismo egitera, Tesa eta Uxue bilatzera baizik.

–Barkatu, baina atzo iruditu zitzaidan Medellinako kontuak eta kultura interesa zitzaizuela – Dani lasaiago mintzatu zitzaien.

–Gaizki ulertu duzu, Willy. Ongi iruditu zitzaizkigun zure azalpenak. Hala ere, ez dugu denborarik eta premia dugu bi emakumeak topatzeko –Lalak jarraitu zuen.

–Satanzaleekin eta behe mailako gaizkileekin kontaktatu behar dugu. Eramaten ahal gaituzu Comuna 13ra? –gizonak baietz adierazi zien.

–Gaizkile-banda horren buruzagiarengana eramane zaituztet, bai.

Comunara mugitu ziren. Komunak, Medellinen, txabolaz osaturiko auzoak ziren, inguruko mendi-maldetan barreiatuak. Autoa hartu zuten, baina hogeit hamar minutuz bizikleta, tranbia, auto eta moto pilen artean trafiko-anabasa hartan ibili ondoren, geltoki baten ondoan aparkatu zuten.

–Metrocablearen geltokia da hau. B linea hartuko dugu *Comuna 13* San Javierrera joateko. Teleferikoa da Comuna 13ra joateko modu praktikoa bakarra. Bide txar bat dago, isolatzeko baino balio ez duena. Cablean 20 minutuan egiten dena, autoz ordu eta erdiz egiten da arazorik ez bada. Bestela, askotan moztu da bidea lur jauziengatik eta istripuek sortzen duten nahasmenduarengatik.

Tren-geltoki moderno bat zirudien hark. Lehiatilan txartelak erosi zituzten. Oso merkeak ziren. Tornutik pasa eta geltokiko andenetara hurbildu ziren. Kable sistema batetik kabina txikiak agertu, une batez geratu eta ilarako jendea sartzen zen. Sei esertoki zituzten kabina haiek. Batean sartu ziren beste hiru pertsonarekin. Airetik, kableetatik zintzilik, teleferiko-kabinak igotzen ziren bata bestearen atzetik, berrogei bat metro haien artean. Kable paralelo batetik kabina lerro bat mugitzen ari zen beste norabidean. Zaparrada bota bitartean, etxeen gainetik pasa ziren mendi aldera. Maldan gora, *cerro* berdeen artean zuhaitzi eta tarteka txabolak, Comuna-auzoen gainetik pasatu ziren.

Willy Rodrigues tenienteak aipatu zien Combo edo sikario talde garrantzitsu bateko kapo batekin hitz egin behar zuela comunara heldu orduko. Telefonoz hitz egin zuen eta zuzenean galdetu zion Tesa, Gina edo Uxue, berriki etorritako gallego baskoen berri izan ote zuen. Willyk ezetz egin zuen buruaz, kapoa kontaktzen ari zitzaiona adieraziz. Polizia hark eta kapoak ezin izanen zieten berehalakoan lagundu. Dena den, Luisito izeneko kapo gazte batekin elkartzera joan ziren. Neska gaztea, Tesa eta Gina misterioetsuaren atzetik, egin zezaketen gauza bakarra gaizkileen artean peskizan ibiltzea zen.

Comuna 13ra heldu zirenean, geltokitik maldetan txabola koloretsu eta kale aldapatsuen panorama ikusi zuten. Ateri zegoen eta eguzkiak dena argitzen zuen. Grafitiz beteriko plazetan mutil gazte taldeak ikusten ziren hip-hop musika entzuten eta dantzatzen. "*Motochiva*" batean, karramotoan estututa Luisitoren bila abiatu ziren. Beste plaza batean taberna baten aurreko mahai bakarrean eseri ziren eta kafe bana ekaini zieten, kargatua eta gozoa. Merenge musika entzuten ari ziren ondoko etxeetan. Handik gutxira, Hogeia bat urteko gazte bat heldu zen. Haur indiar aurpegia zuen, baina orbainez betea. Irriak hortzadura zuri dirdiratsua erakusten zuen, hortzordekoa izanen zena ziur aski. Elkar agurtu ondoren, Willyk, lotsarik gabe, peso batzuk eskatu zizkien ikertzaileei, sikarioari emateko. Eskatzea ez zen hitz aproposena. Eskutik billete piloa hartu eta gehienak eman zizkion gazteari. Willyk lasaitu zituen.

—Lasai. Diru honekin kafeak, edariak eta *bandeja paisa*-rik onenak ere ordainduko dituzue — baimenik gabe eskatu zituen platerak eta edariak—. Ikusiko duzue zein goxoa den janaria. Hemengo espezialitatea da eta edozein momentutan eskaintzen dute.

Gonbidatu-ordaintzaileak harrিতuta zeuden. Edonola ere, ez zuten erantzuteko aukerarik izan. Beren aurrean plater handi banatan, frijol, arrosa, txorizo, odolki, arrautza, aguakate eta arepaz gainezka banatu zieten garagardo botilekin batera. Goserik ez zeukatela erran behar zuten. Hala ere, jaki goxoak isilik dastatu zituztenean, gogoz ahoratu eta gozatu zituzten. Lala ezin izan zen isildu.

—mm..., zein goxo dagoen! —Dani ere iritzi berekoa zen.

—Bai. Ez nuen uste gosetuta nengoetik!

Bazkari hura hartu bitartean, poliziak eta sikarioak txandakatuz azaldu zieten bertako bizitza: bi banda nagusi ziren Medellinen, haietako bat Escobarren jarraitzaileena izandakoa. Nagusiak, banden benetako buruak, ez ziren hain erraz ezagutzen, baina Medellin inguruko comuna edo auzo pobreetan denek ezagutzen zituzten Combo-ak. Hamabost bat urteko mutil-bandak izaten ziren kalean ikusten zirenak. Oso gutxi heltzen ziren helduarora eta buruek itzaletik

agintzen zuten. Askotan balaserak gertatzen ziren, banden arteko tiroketak, lurraldeak defendatzeko edo zabaltzeko. Kalasnikof eta M16 armak erabiltzen zituzten, askotan errebolberrak ere bai.

Pablo Escobarren menpean izandako auzoetan, pobrezia eta delinkuentzia gainditzeko metro-cablea bezalako modernitateen bidez bertakoen bizitza hobetu eta narkotrafikoa baztertea lortu omen zuten; ez osotara, Luisitok eta Willyk berak adierazi zuten bezala. Lalak estutu zuen narko-sikarioa zer negozio eta jardura zuten jakiteko. Conboen borroken testuinguruan narkotrafikoa gauzatzen zen: periko eta *basuca* edo *craca* trapitxeatzen zuten. Beste negozio batzuk emakumeen tratua eta erailketak ziren. Gehiago estututa, "*Casa de Pike*" izeneko tokiez mintzatu zitzairen. Txabola kaxkar batzuetan etsaiak torturatzen zituzten. Aipamen hura zela-eta, satanzaletasunaz galdetu zieten poliziarri eta sikarioari. Lala haritik tiratzen hasi zen.

–Torturak egiten zenituztela diozu. Satanzaletasuna praktikatzen al da?

–Ez. Gure etsaiak torturatzen ditugu eta bahituak gordetzen ditugu erreskatea jaso bitartean – hura entzun bezain laster Danik Tesaz galdetu zion.

–Luisito, bahituak direla-eta, ez al duzu Tesa Sagasti Irisarriren berri? Uste dugu bahitu dutela –gizon gaztea pentsatzen geratu zen.

–Ez dut izena gogoan. Nor da Tesa... hori?

–Sagasti du abizena. Nire laguna da. Baskoa da eta hemen bizi izan zen duela urte pare bat. Uste dugu bahitu dutela. Bere familiak Sagasti hotela zeukan, guk hartutako hotelean, eta Euskal Herrira itzuli ziren... –Luisitok moztu zion.

–Irisarritarra al zen? Sagasti-Irisarri familiakoak señorito eta agintari batzuk dira. Kartelean inportanteak eta gauza ilunetan eta erailketa arraroetan nahasi ziren. Entzun nuen karteleko nagusien konfiantza galdu zutela. Nik neuk nire nagusiarri, Papi Azpiazuri kontatuko diot. Berak jakingo du eta zuekin jarriko da kontaktuan... –Lalak eten zion jarduna.

–Ongi da, Luisito. Ez al duzu Uxue izeneko neska bati buruz ezer entzun?

–Ez –gazteak ezetz egin zuen buruarekin. Danik, dena den, berriro galdetu zion.

–Eta Ginaz ez al duzu ezer entzun? –izena berriro entzutean, gazteak zerbait gogoratu izan balu bezala hasi zen hausnarrean edo.

–Gina... Orain Sagasti-Irisarri familia aipatu duzunean gogoratu dut Gina Irisarri izenez aipatzen zuten emakume gazte baina krudel bat ibili zela duela urte pare bat. Berari buruz kontatzen zuten neska gazteak torturatzen zituela. Norbaitek meza beltzekin zerikusirik badu bera da.

–Non topatzen ahal duzu Gina hori? –ia ahopeztan galdetu zion Danik.

–Ez dakit. Karteleko nagusiek jakinen dute. Esan dizuet Papi Azpiazuri galdetuko diodala.

–Azpiazuren telefonoa eman, mesedez! –erregutu zion Lalak. Luisitok beldurrez begiratu zion, buruaz ezetz egiten zuen bitartean.

–Ez. Ezin dizuet eman. Berak deituko dizue –Willyk bat-batean hitz egin zuen. Bera ere beldurtuta zegoen.

–Momentuz ezin duzu gehiago jakin. Luisitok ezin digu gehiago lagundu. Ezin duzu gehiago egin. Goazen erdigunera.

Hurrengo minutuak luzeak izan ziren. Denak mahaitik altxatu ziren mutututa. Poliziak eta bi ikertzaileek Luisitori agur erran eta itzultzeko bidea hartu zuten. Karrotxo hartu zuten auzo koloretsuari erreparatu gabe, solasaren ondorioz sentitu zuten mehatxuan pentsatzen. Metro-

cablea hartu eta zentrora heldu ziren. Poliziak berriro hotelera eraman zituen. Bide guztian ez zuten hitzik gurutzatu. Willyk agurtu zituen.

–Gero, hiru ordu barru pasatuko naiz zuen bila. Afaltzera lehenik eta gero meza beltz batera joango gara.

Willyren menpe zeuden. Benetan joango ziren meza beltz horietako batera? Larunbata zen. Bi lagunek ez zuten bazkaltzeko gogorik, nahikoa ahoratu baitzuten bandeja paisa goxo hura dastatu zutenean. Edonola ere, zerbait jakin zuten lehenengo eguna izanda, baina jakin zutena ez zegoen inola ere Tesarekin erlazionatuta. Gina aipatu zutenean mututu egin ziren. Bi lagunek gertatutakoa komentatu zuten. Gauean bilatzen ibiltzea espero zutenez nor bere gelara deskantsatzera joan ziren. Hala ere, lehenago Lalak Ainarari deitu zion dena kontatzeko. Udaltzainak, ikerketarako posibilitateak baloratu zituzenez animatu zuen Lala.

–Lasai, Lala. Horma batekin topatu duzuela uste duzu, baina ez da gutxi meza sataniko batean sartu ahal izatea, nire esperientziaren arabera. –Ainarak haiei laguntzen egon nahi izango zuen. Dena den, ez zen gutxi egiten zuena: animatzeaz gainera lasaitasuna transmititzen zuen. Lalak, nolahi ere, behin zalantzak adierazita, Ainararen eragina sentitu zuen.

–Uste dut arrazoi duzula. Edozein modutan, iruditzen zait Ginari beldurra diotela eta ez dutela ezer eginen.

–Manu eta Jabierrekin hitz eginen dut. Espainiako polizia-buru baten interesa piztu dugula erran didate. Ahaleginduko gara zuzendari nagusiak Kolonbiako buruak presiona ditzan.

–Mila esker, Ainara. Bihar hitz eginen dugu. Orain atseden hartzea komeni zaigu. Bihar arte.

–Bihar arte eta zorte izan.

Lala etzan zen ohe gainean. Nekatuta zegoen, baina pentsatzen geratu zen. Zer zen Luisitok eta Willyk jarrera harekin adierazten zutena? Beldurrak jota zeuden. Hiltzailerik krudelena haiei begira egon balitz bezala jokatu zuten. Gina Irisarri aipatu eta deabrua bera hantxe zigortzeko prest ikusi balute bezala jokatu zuten. Bazirudien Willy gehiago interesatzen zela gida turistiko bezala, desagertu batzuen peskizan ibiltzean baino. Berea polizia ustel baten jokaera zen. Lortuko al zuten kolonbiako poliziaren laguntza? Lo-kuluxka batek on eginen zion.

Adostako orduan elkartu ziren. Willy desenkusatu zen. Bazirudien gehiago laguntzeko agindua jaso zuela. Poliziak Medellinoko maila sozial gorenekoen elkar-tokiak erakutsi nahi zizkien Lala eta Daniri. Gauean meza beltza batera joango ziren. Bitartean familia oneko batzuekin ibiliko ziren.

Hiriko festa-lekurik famatuena El Poblado ondoko *Parque Lleras*-en zegoen. Orokorrean hiriaren erdigunean ere pobrezia arrastoak ikusten ziren: eskaleak, zaborra, zikinkeria, urbanismo nahasia eta abar. Hala eta guztiz ere, han, Parque Llerasen, aberatsen urbanizazio batean egon balira bezala, etxe txukun bakanak, lorategiz betetako kaleak eta tartean luxuzko dendak eta tabernak baino ez ziren topatzen. Kokteleria batean sartu ziren. Mahai baxu eta sofa batzuetan sei pertsonaz osaturiko lagun taldea aurkeztu zien Willyk. Sindy eta Cloe beraien aldamenetan eseri ziren ongi etorri emateko. Musikak ia ez zien besteen esana entzuten uzten. Dena zen *“guai”* eta *“okay”*. Edari gozo eta goxoak dastatu zituzten, piña koladaren antzekoak. Dantza ere egiten zuten batzuek eta gauza bera egitera animatu zituzten. Nola edo hala egin zuten. Ordu bat pasata eta euria egin artean beste koktel bat gehiago edan ondoren paseo txiki

bat egin zuten jatetxeraino. Berriro kanpoan lekuak harritu zituen: etxe partikularrez beterik zegoen arren, aberatsen urbanizazioa lorategi handi bat iruditu zitzaien.

Handik hurbil, girnaldaz eta kolorez argiztatuta jatetxe batera sartu ziren. *La Bombonera* landare tropikalez beteriko jantokia zen eta horrelako sensazioa handitu zen azpil batzuetan eskaini zizkieten janari koloretsuekin. Mota guztietako frutekin arrozak, papak, haragiak eta bestelako barazkiak eskaini zizkieten. Faisan eta cerdo criollo ziren plater nagusiak eta nahi bezala hartzen zuten afaltiarrek. Cloe ez zen isiltzen, nahiz eta musika eta jendearen algaragatik erdiaren erdia ez ulertu. Dena zen chevere. Inon ez zen satzaletasunaren arrastorik. Danik eta Lalak ia ahaztu zuten zertan ari ziren edariaren eraginez, baina gauerdia hurbil zela, denak altxatu ziren mezara joateko.

Ez oso urrun, etxe handi batean sartu ziren. Willy kalean geratu zen. Eskailera batetik satora jaitsi ziren. Areto handi batean oihal gorri batzuetan buruz beherako gurutzek, pentakuloak eta 666 zenbakia beltzez margotuak eta lau kandela beltz aldarearen inguruan ikusi zituzten. Jendea elkartzen ari zen. Ongi jantzitako jendea zen. Maila sozial onekoak ziren. Sarreran tunika beltz eta gorriak topatu zituzten eta maskara batzuk aukeran, animalia batzuenak, baina baita deabruena eta anonimusenak ere. Aldarearen ondoan ahuntz bat zegoen lotuta sakrifizio baterako prestatua. Danik begiratu zion Lalari. Biek surrealismo-sentsazio handia sentitu zuten.

Satanzale gehienak gazteak ziren, hamasei-hogeita hamabortz urte artekoak. Nahiz eta maskaraz mozorroturik egon, nabari zen emakume gutxiago agertu zela. Leku itxiak handitzen zuen jendearen solasen zurrumurrua. Momentuz, jendea animatuta zebilen. Musika entzuten hasi ziren. Heavy metal. Metallicaren *Kill'em all* entzun zuten. Kontzertu batean zeudela zirudien. Karetakin bezala, mahai luze batean edari alkoholikoak plastikozko edalontzietan hartzen ahal zituzten. Lalak eta Danik ardo zuria bota zuten beraien ontzietan. Batzuk koka hartuta zeudela ematen zuen. Festa edo ospakizuna animatzen ari zen. Sutsuenak sexu praktikak egiten hasi ziren. Beste batzuek zigor batekin kolpatzen zituzten larru bizitan zeuden masokistak, zauritxoak eta odol isuri txikiak sortuz. Tortura, bakanal eta orgia bihurtu zen ospakizuna. Edozein lekutan biluzik baina maskarak kendu gabe ari ziren partaideak.

Meza edo festa hura ez zen espero zutena. Bi lagunek alde egin behar zuten. Hura gazteek instintu gaiztoak gauzatzeko, drogatzeko eta larrua jotzeko aitzakia baino ez zen. Han ez zen ibiliko benetako deabruzale eta are gutxiago beraien buruzagirik. Beraiek bezala beste batzuk atera ziren. Kanpoan, handik metro batzuetara zebilen emakume batek maskara kentzean, Daniri Tesa ikusi zuela iruditu zitzaion. Deitu zion, baina jende artean desagertu zen. Arrastoa galdutzat hartu behar al zuten? Ingurukoek ezagutzen omen zutenez, atsegina zirudien neska gazte bati galdetu zion Lalak.

–Ezagutzen al duzu emakume eder hori?

–Bai. Gina Irisarri da...

Ezin izan zioten erran non bizi zen, mezetara joaten zela besterik ez. Hurrego meza larunbatean izanen zen. Beranduegi. Meza guztiak hain faltsuak izanen ote ziren pentsatu zuten. Handik astebetara biek alde egin behar izanen zuten Medellinetik. Beste nonbait galdetzen jarraitu beharko zuten. Etxe hartatik atera zirenean ez zuten inor susmagarri ikusi. Willy hurbildu zitzaien eta esan zien atera zirenen artean ez zuela ezer berezirik ikusi. Dani harrিতuta zegoen.

Ikusi zuen emakumea Tesa bera zela iruditu zitzaion. Gina, hain zen Tesaren berdina! Zalantzas beteta eta lur jota hotelera erretiratu ziren.

Goizeko ordu biak izango ziren. Berandu izanda ere, Iruñean bederatziak zirenez, Lalak Manuri deitu zion dena kontatzeko. Inspektoreak animatu zuen lankide ohia.

–Lala, ez duzue harrapatu, baina hurbiltzen ari zarete –emakumea isilik geratu zen. Nabari zen ez zegoela gustura. Kostata zerbait erantzun zion.

–Hurbildu eta galdu egin dugu pista. Nolanahi ere Dani da kezkatzen nauena. Bere ametsezko Tesaren bila, Ginarekin egin du topo. Ez dakit zer pentsatu. Gina hori Tesaren berdina omen da. –Manuk zer eginen zuen kontatu zion Lalari.

–Lala, orain deskantsatu. Nik Madrileko polizia buruekin eta Kolonbiako enbajadako arduradunekin hitz eginen dut. Medellineko polizia fidagarriak bilatu behar ditugu. Zuek lagunduko zaituzteten poliziak behar ditugu. Ongi lo egin Lala. Bihar arte.

–Mila esker, Manu. Bihar arte.

Nekatuta izanda ere, Dani ez zen lokartu. Ordu eskas batean lo-kamutsa egin ondoren esnatu egin zen. Tesarengan pentsatzen ari zen. Tesa ikusi zuela uste zuen. Hare gehiago, hamar bat metrora ikusi zuenean Tesa bera zelakoan deitu zion. Itxura guztia zeukan eta urduri zegoenean buruarekin aldeetara egiten zuen keinua bere-berea zen. Gina zela zioten gazte haiek. Gina hura Tesasen bikia edo antza bereko lehengusina izanen zen. Danik bueltaka eman zuen gau erdia, baina goizaldean konturatu gabe loak hartu zuen. Berdintsu ibili zen Lala. Loak hartu behar zuen, baina saiatu zen hurrengo urratsak argi izaten. Danik bezala pentsatzen zuen. Dena den, beste ondorio bat atera zuen: Tesa Gina zen. Tesari buruz entzun zuenak ez zuen zerikusirik Gina krudel eta satanzaleen buruetako bat izanen zenarekin. Hala ere, hortxe zegoen koxka. Bestetik, ez zuen uste Luisitok Tesa, Uxue eta Ginaren bilaketan lagunduko zienik, are gutxiago Papi deitzen zuten hark. Hurrengo egunean eginen zuten bisitetan eliteko jendeari informazio zehatza atera behar zioten. Edonola ere, Medellineko polizien laguntza behar zuten. Hain zuzen ere, bertako poliziek korreoz Medellineko jendarteaz eta Sagasti-Irisarri familiari buruzko txosten bat bidali zien aurreko egunean.

Medellineko goi-mailakoen artean bizi omen ziren sagasti-irisarritarrak eta elitekoak ziren karteletako benetako nagusiak. Hiriko erdialdeko auzo burgesetan mugituko ziren Alejandro Sagasti, Marisa eta Gina Irisarri. Maila sozial gorenekoen artean ikertu behar zuten, ustezko Tesa eta Uxue aurkitzeko eta askatu ahal izateko. Jendarteko maila sozial gorenekoek botere ekonomikoa eta politikoa gauzatzen zuten. Enpresa eta elkarteak zuzentzen zituzten. Oso aberatsak ziren eta luxua maite zuten. Gazteenek festak eta ospakizunak antolatzen zituzten. Kirol eta kultura ekitaldiak ez ziren falta. Hala ere, itxura ona izan nahia bilatzeaz eta ongizateaz gain, beste jarrera eta denbora-pasa mota batzuk zabaltzen ari ziren. Droga kontsumoarekin batera, prostituzioa, jokia eta bortizkeria gero eta garrantitsuagoak ziren aberaskumeen denbora-pasen artean.

Lalak egiaztatu zuenez modan jarri zen satazaletasuna. Meza beltzetan, tortura, min egitea, odolzalekeria eta bortizkeria antolatzen zuten. Zeremonia bereziak antolatzen zituzten, zeren eta jende mota hura erakartzeko ekintza sadiko-masokistak eta haragikeria burutzen baitziren. Inozenteei mina eginez, odola isuriz eta sufriaraziz libertitzen ziren. Orgiak ere antolatzen

zituzten. Testuinguru horretan ikertu behar zuten elitekoen artean, Ginaren pistaren bila. Ginaren pista, bide latza, higuingarria eta beldurgarria izango zela susmatzen zuten.

Maiatzaren 19, igandea.

Goizean, gosalduta bitartean hitz egin zuten Lalak eta Danik. Ia pistarik gabe zeudenez, droga eta kartelego nagusien ohiko biltokietara joatea erabaki zuten. Aukera gutxi zuten, baina Willyk esanda, igandeetan Medellinako aberatsak, eta haien artean kartelego nagusiak ere, Botero plazaren inguruan ibiltzen zirenez, aukera handia zuten Tesa edo Gina topatzeko. Tesaren bizitoki berria inguru hartan zegoela aipatu zieten. Beste aukerarik ez zuten ezagutzen batzuei galdetzen ahal zieten ezagutzen ote zituzten.

Sagasti hoteletik Botero plazara mugitu ziren. Metroaren geltokia hurbil zegoen, baina festa eguna izanda eta horrenbesteko jendetza zebilenez, Willyk taxi bat hartzea gomendatu zien. Zirkulazio ikaragarria zegoen eta hurbil samar izanda ere, ia ordu bat kostatu zitzaien heldzea.

Plazan ere jende pila mugitzen ari zen. Taldeak 23 eskulturen inguruan mugitzen ziren. Parke osoan ongi barreiatuta, brontzez egindako eskultura lodikote erraldoiek guztien arreta erakartzen zuten. Emakumeak jantzita edo biluzik, baina gizon zaldunak eta animalia batzuk ere baziren: zaldia bridekin, esfingea, txoriak eta katua ezagunenak. Hanka lodiko imajinen aurrean jendea erretratatzeko ari zen eta zaila zen eskulturen oinarrietako plaketan izenak irakurtzea. Bertako eta kanpoko turistak saltzaile eta trapitxeroen artean mugitzen ziren. Azken hauek berdin eskaintzen zituzten bitxiak edo droga mota guztiak, koka nagusiki. Prostitutak eta gizon-emakume oso lagunkoi batzuek denetarik eskaintzen zuten, gehienetan dohaineko gidaritzak, baina baita eskatu gabeko lapurreta deskuidatuz gero. Lalak eta Danik itzuli bat egin ondoren, langunkoi haiekin aspertuta, Willyri galdetu zioten non ziren eliteak. Gizonak Antioquiako museoa seinatu zien. Euri txikia hasi eta bero sapa handiagotzean aire girotua izan zuten museoa sartzeko ideia proposatu zitzaien.

Egia zen han kalean baino jende gutxiago zegoela eta gehienak itxuraz kanpotar eta bisitari dirudunak ziren. Lala saiatu zen menturaz bertako elitekoak izan zitezkeen taldeengana hurbiltzen. Gehienetan beste hiri batzuetako hegoamerikarrak ziren. Behin edo behin bertako gutxien artean galdetu zuten Tesaz, baina ez zuten ezer lortu. Danik Tesaren antza berdina zutenei begira zebilen bitartean, Lalak jarraitu zuen bertako goi-mailako artean aretoz areto bilatzen.

Antioquiako Museoa handia zen. Eraikin desberdinetan antolatuta, gela-areto aunitz topatu zituzten. Alde batean Rafael Boteroren dohaintzako margo eta marrazkiak ikusi ahal izan zituzten. Marrazkietako irudiak artistak egiten zituen bezalakoak ziren: pertsonaia lodikoteak nonahi. Emakume, gizon eta umeak aparte, zaldi, katu, txori, zezen eta beste animaliak bakarka edo pertsonekin agertzen ziren. Margoetan ere pertsonak eta animaliak nahasian agertzen ziren: *El Circo* bildumako magoek areto batzuk betetzen zituzten. Eskulturak, plazakoak bezalakoak, bertsio desberdinak ziren; edonola ere, gizon eta emakume lodikote biluziak eta esku mardulak nagusi ziren.

Eraikinen arteko patioetatik argitasun handia sartzen ari zen, zerutik hodeiak desagertu zirenean. Gelak zabalak ziren eta espazio handia zegoen. Beste artista batzuen adierazpenak

erakusten zituzten. Arte modernoa eta garaikidea gainera begiztatzeko aukera izan zuten. Marraski, margo eta eskultura mota asko ziren adierazpen gehienak, haietako anitz abstraktoak. Argazkiak ere baziren, XX. mende bukaerako asko eta zuri-beltzak gehienak. Argazki-aretoen ondoan argazki-laborategi bat zegoen, atea itxita.

Dani ia konturatu gabe pasa zen hainbertze artelanen ondotik. Berak Tesa bilatzen zuen jendearen artean. Bazekien ia ezinezkoa zela ezkutuan zegoen pertsona bat handik ibiltzea. Zenbait alditan, Tesa eta gurasoen argazkiak erakutsita, galdetu egiten zien itxura oneko emakumezko bisitari gazte batzuei. Alferrik. Lala, berriz, bilaketan behar bezala aritu bazen ere, zenbaitetan artelan eder bati edo beste bati begira geratzen zen momentu batean. Hain zuzen ere, argazki zuri-beltz batzuk oso interesgarri egin zitzaizkion: Antioquiako leku desberdinak, jendea eta lanbideak; gehienetan jende xehearen bizimodua adierazten zutenak. Hiperrealistak izanda, argazkiek gizon, emakume eta umeen miseriak erakusten zituzten. Gezurra zirudien krudeltasunaren atzean argazkiek hainbesteko edertasun adieraztea. Dena den, Lala ere bilaketan aritu zen, baina berehala konturatu zen oso eginkizun zaila zela. Behin bakarrik izan zuten Tesa ezagutzen zuten bikotekide batzuekin hitz egiteko aukera. Ezagutu bai, baina urteetan ez zuten ikusi. Sagasti hotel-jatetxean ibilitakoak ziren besterik gabe.

Arte garaikide museo batean harrigarriak ziren Kolon aurreko zeramika-aretoak laster pasa zituzten. Buztin tailerrak eta artelan modernoak ikusten ziren. Arin egin zuten museoaren bisita ordu eskas batean, zeren eta plaza inguruko taberna eta leku publikoak "bisitatu" nahi zituzten. Kanpora atera ziren Botero plaza inguruko jatetxe, taberna eta kasinoetan begirada botatzeko. Denetan sartu eta bilatzen aritu ziren, tartean kafe bat hartuz. Plaza inguruan bi kasino dotoretan bertako jende burges gehiago topatu zuten, baina baten batzuek sagasti-irisarri familiakoen berri izanda ere, inork ezin izan zien Tesaren berri eman. Apustueta, makinetan eta mahaietan dirutza jokatzeko zuten. Kolonbiako aberatsek gogoko zuten jokoa. Milaka pertsona ibiltzen zen denbora librean denborapasa horretan.

Bazkaltzeko gogoz, euriaren beldurrez jatetxe moderno baten barnealdera sartu ziren. Entsaladak eskatu zituzten eta oilasko-arroza ere bai. Kanpora begira Willy pozik ibili zen aberatsen taldeetatik bertakoak seinalatzen. Ez zen konturatu besteak desanimatuta zeudela. Ateri zegoenez, azkar bazkaldutakoan, itzulia bukatu zuten ondoko plaza batean. Rafael Uribe kultura-jauregia ikusgarria zen. Arkitektura neogotiko bitxi samarra zen.

Bilaketarekin nekatuta zeudenez, terraza batean kafea hartzen zuten bitartean handik pasatzen zirenei begira izan ziren. Arreta handiz begiratzen zuten gauza batez konturatu ziren. Despistatzaile asko mugitzen ziren jendearen artean: saltzaile edota turistarena eginez hizketan eta galdeketetan batzuek nahasten zuten jendea, beste batzuek lapurtzen saiatzen ziren bitartean. Arraroena edo harrigarriena zenbat lapurreta saiakera ikusi zuten. Poliziak uniformatuta ibiltzen ziren; edonola ere, lapurrek uniformedunak ikusten zituztenez ia lotsagabeki ari ziren lanean haiengandik metro batzuetara. Eskerrak Willyk aholkatuta prestatuta ibili ziren, lapurtuak ez izateko; baina inola ere ez zuten ikuskizun hura espero. Hala ere, benetako beste ikuskizun bat izan zuten. Santa Elenako *silletero*-ak agertu ziren desfilatzen. Bizkarrean porteadoreak balira bezala kuadroan lore-sorta ederrak eramaten zituzten. Willyk kontatu zien Medellin loreen hiria zela eta famatuak zirela saltzaile haiek. Jendeak lore sortak erosten zituzten. Dena den, nekatuta, hotelera joan ziren. Ia arratsaldeko bostak ziren, gaueko hamabiak Iruñean. Etxekoekin eta lagunekin mintzatu ziren. Ezin izan

zuten ezer egin, baina jarraitu behar zuten Tesa eta Uxueren bilaketan. Danik gurasoekin eta lagunekin egin zuen bezala egin zuen Lalak Jaker bikotekidearekin mintzatuz. Hala ere, geratu bezala Manurekin hitz egin zuen lehenago, aurreko eguneko eta ordukoa kontatuz. Bukatzean Lalak etsipena erakutsi zuen.

–Manu, turistarena egiten ibili gara!! –Gizonak jaso behar zuen Medellineko informazioa Udaltzaingoko Delitu Larrietako inspektorea zen aldetik, baina bestela komisarioak edo Ainarak ere egiten ahal zuten. Dena den, Uxue alabaren lagunak kezkatzen zuenez eta Lalaren laguna zen aldetik, informazioa biltzekotan geratu zen. Manuk Lala animatu nahi zuen.

–Lala, oraindik ez duzue ezer atera, baina ibili beharreko bideak jorratzen ari zarete. Lasai. Bi egunetan zaila da gauza handirik lortzea. Ez al duzu uste?

–Bai. Dena den, frustrazioa sentitu dugu. Zer egin dezakegu?

–Egiten ari zaretena. Bihar Tesaren lagun batzuekin elkartuko zarete... Nolanahi ere bertako polizien laguntza aktiboa bultzatu behar dugu. Komisarioarekin hitz egingen dut serioki.

–Hori da! Willyk uste du gu laguntzen ari dela, baina bai, arrazoi duzu: informazioan eta zuzeneko lanean benetako laguntza behar dugula.

–Badakizu taldekook lagundu nahi dizuegula. Ongi deskantsatu Lala!

–Baita zurei ere. Bihar arte.

Bertakoak ere igande iluntzean ez ziren kanpoan ibiltzen. Eguerdian eta arratsaldean lagunak etxeetara joateaz aparte, gehienek familiakoak bisitatzea joaten ziren, askotan bazkari familiarak eginez. Kanpoan bizi zirenak gurasoen etxera mugitzen ziren eguna pasatzera eta terraza, patio edo lorategia izanez gero, barbakoak antolatzen zituzten eta arratsaldean goiz samar etxeratzen ziren.

Astelehenean, maiatzak 20.

Emilia psikologoa zen eta bere kontsultan geratu ziren. Simon bere senarra ere agertu zen. Emilia zen Tesaren gazte garaiko lagun mina. Ez zuen amerindiar odolirik, ezta afrikarra ere. Jakin zutenez arbaso euskal-kantabriarrak zituen. Beltzarana eta altua zen, baina bere ezaugarriak nabarmenena dotorezia zen. Modistarik onenetan janzten zen, baina edozer jantzita ere, bazekien eramaten, makillaje eta bitxirik gabe. Dotore, baina gustu oneko eta soiltasuna erakusten zuen. Senarra, aldiz, kriollo aberatsaren irudia ematen zuen. Jatorri desberdinetako arbasoek latino prototipikoaren itxura emateaz aparte, bazekien diruak eta denborak ematen zuten estiloaz janzten. Biek, dena den, ia maiteki hartu zituzten etorri berriak, haietako bat Tesaren laguna zela eta biek askatu nahi zutelak jakinda. Tesa ongi ezagutzen zuten, baina aspaldian ez zuten haren berririk eta ez zekiten non bizi zen. Sagasti hotelean zegoela uste zuten. Emiliak Maritere Irisarri izena aipatu zuen.

–Maritere Irisarri beti izan da ipurtarina.

–Zergatik deitzen diozu Irisarri –galdetu zion Danik Emiliari.

–Amaren alaba delako eta familia horretan matriarkak agintzen duelako.

Ginaz galdetu zietenengan bikotekideak mutu geratu ziren. Simonek hitz egin zuenean urruntasuna eta hoztasuna adierazi zuen.

–Ginarekin ez dugu harremanik eta ez dugu ezer jakin nahi. Guk ezin dizuegu gehiago laguntu. Sentitzen dugu. Agian, Rosa Echevarriak, Tesaren beste lagun minak jakinen du zerbait gehiago. Deituko diogu harekin geratu eta hitz egiteko.

Bikotekideek ez zuten gehiago adierazi eta lan-saio baten aitzakian bilera bukatzeko premia erakutsi zuten. Gina Irisarri kartelego buru handienetako bat zen, zirudienez Tesaren lehengusina zena. Tesaren laguna zen Rosa Echevarriak jakinen zuen non zegoen. Berriki lortutako telefono zenbakiari deitu zioten. Rosari kontatu zioten historia guztia eta beraren arreta lortu zuten. Emakumeak ez zuen Tesaren berririk aspaldi batean. Edonola ere, lagundu nahi zien. Egun hartan bertan elkarrekin bazkaltzeko geratu ziren. Parque Paisa-n, herritxo baten antza zuen auzoan geratu ziren bertako platerak dastatzeko aitzakian, disimuluan hitz egin ahal izateko.

Euria ari zuen bitartean, jatetxe turistiko batean Rosa Echavarriarekin elkartu ziren. Emakume dotorea zen, soineko koloretsu baina era berean diskretua jantziz; baina nabarmena zen nola eramaten zituen osagarriak: poltsa, zapia, lepokoa eta eskumuturra garestiak izanda ere, naturaltasunez eramaten zituen. Tratuan ere atsegina zen. Agurrak gurutzatuta eseri ziren. Bertako plater tipiko piloa mahaiaren erdian utzi zutenean norberak nahi zuenetik hartuz platerak bete zituzten. Rosak bazekien zer bilatzen zuten eta zerbait bazkaldu zutenean zuzen jo zuen gaira.

–Emik kontatu dit Maritere bilatzen ari zaretela. Galdetu ere galdetzen aritu naiz orain arte. Sentitzen dut, baina Tesa ihesean dabil. Beldurak jota dabil, bizia arriskuan omen dagoelako. Behin deitu zidan etorri zenean.

Rosak ez zekien non bizi zen momentu hartan. Itzuli zenetik ez zen Tesarekin izan eta ez zeukan telefono zenbaki berria. Danik hura eman zionean saiaturata ere ez zuen harekin komunikazioa lortu. Hala ere, Rosak beraien lagun eta ezagunei galdetuz lortuko zuen berarekin harremana berreskuratzea edota abisua pasatzea. Rosari zuzen galdetuta, hark aipatu zuen ez zuela Gina Irisarri ezagutzen. Lehengusina hark merezitutako sona txarra lortu zuen. Kartelego nagusietako hark krudelkeria eta odolzalekeriaren fama erdietsi zuen arrazoi osoz.

Rosak Tesaren familiakoen historia laburtu zien: Maria Teresa Sagasti, Maritere Rosaren ahotan, emakume sentikorra eta ona zen, inolako basakeria onartzen ez zuena. Horra hor arrazoi bat urte batzuk lehenago Medellin uzteko. Anaia ere sentikorra zen eta gaizki ikusia homosexuala izateagatik. Rosaren esanetan haien gurasoek dirua egin zuten kartelego batzuekin lan eginez, baina beraiek ere giro hura utzi nahi zuten, eta jubilatuta seme-alabarekin jaioterrira itzuli ziren. Hala ere, jaioterrian berriro izan zuten bortizkeria atzetik eta, beste leku bat izan ezean, berriro Medellinen ezkutuan bizi ziren momentu hartan.

Satanzaleei buruz galdetu ziotenean Rosak kontatu zien haiek zirela hain zuzen ere Tesaren atzetik zebiltzanak. Gina Irisarrik gurasoak eta Tesa sektan sartu nahi omen zituen. Mariteren Ginarengandik ihesi, libratu nahi zuen. Rosak laguntza eman nahi zien Lalari eta Daniri eta uste zuen guztiek poliziarekin batera egin behar zutela. Tesaren berri izanez gero Daniri deitezkotan geratu zen.

–Aurkitu egingo dugu Maritere –adierazi zien gauzarik errazena izango balitz bezala.

–Eskerrik asko, Rosa, laguntzagatik. Jarrai ezazu galdetzen eta deiiezaguzu zerbait, informaziorik tontoena izanda ere. Ez dugu denbora gehiegirik.

Arratsaldean Lalak eta Danik ez zuten ezer berezirik egin. Leku askotan bezala, hotelean ere igande arratsean bitza sozial gutxi izaten zen. Lalak Daniri hoteleko kafetegi erdi huts hartan kafea hartzen zuten bitartean ordura arteko ikerketa erreparatzea proposatu zion. Ez zuten denbora gehiegi behar izan, baina biak ados zeuden ondorioetan: ez zekiten non zeuden Tesa eta Uxue, eta laguntza behar zuten. Hori zela-eta etxekoen laguntzaz aparte, uste zuten bertako poliziak gehiago egiten ahal zuela. Willyri deitu zioten Sagasti-Irisarri familiari buruz eguneratutako informazioa biltzeko eta beraiei pasatzeko.

20 - Balasera. Tesaren deiaren zain zeuden.

Asteartean, maiatzak 21

Hurrengo egunean negozio-auzoetan ibili ziren maila sozial oneko elkarte, taberna eta biltokietan, baita gimnasioetan ere. Guztietan argazkiak erakutsi zituzten alferrik. Willyk aipatu zien bertako poliziek satanzaleez eta sagastitarrez zekitena. Familiako gurasoak urteetan aritu ziren hostelerian. Momentu batean kartelego buruekin nahasi ziren eta diru pila egin zuten. Bi urte lehenago Kolonbia utzi eta jaioterrira jubilatu ziren aurreko bizitza atzean utzi nahian. Poliziek deabruzaleei buruz gauza gutxi zekiten. Goi-mailakoen artean zabalduzako sektetan gero eta indar handiagoa hartu zuten eta narkotrafikoarekin zegoen erlazionatuta. Azken aldian, aspaldiko partez, berriro berpiztu ziren satanzaleen ekintza odoltsuak.

Gina Irisarri satanzaleen burutzat hartu behar zuten eta ez zuen helbide ezagunik. Maria Teresa Sagasti gutxik ezagutzen zuten eta Uxuez ez zuten ezta ideiarik ere. Ez zen informazio esanguratsua. Hala ere, oso garbi zuten ikertzen jarraitu behar zutela. Hiruretan, bazkaldu ondoren, Ainararekin hitz egin zuten eguneroko txostena osatzeko. Momentuz ez zuten ezer gehiagorik.

Arratsaldean ezuste galanta izan zuten. Satanzaletasunaz dezente zekien polizia batekin hitz eginen zuten. Kafe bat hartzeko asmoz, taberna baten kanpoaldeko terrazan mahai batean eseri zirenean *balasera* bat hasi zen. Kasualitatez mahaiak egur gogor eta trinkoz eginak ziren eta haiek lurrera botata atzean babestu ziren. Bazirudien bi talderen arteko tiroketa izan zela, baina erdian ibili ziren bakarrak haiek izan ziren. Bi edo hiru minutuan gertatu zen dena eta erasotzaileek hanka egin zutenean gerra-zelai baten antza zuen tabernaren aurrealdeak. Kamareroa larri zaurituta gertatu zen, hankan eta sorbalda tiro bana jaso zituenean. Inguruko herritarrek lagundu zioten zaurituari ez odolusteko. Azkenean, satanzaletasunaz asko zekien polizia hurbildu zen. Jadanik zekitena baino ez zien kontatu. Hogei minutu baino gehiago pasata, agertu zen anbulantziak zauritua eraman zuen. Bertze polizia batzuk agertu zirenean Willyk hartu zuen eraso azaltzeko lana. Bi lagunak jota zeuden. Gutxiengatik ez zituzten hil. Poliziek ingurua hartu zuten eta haiek erretiratu ziren ondoko etxe-atari batera lasai mintzatzeko.

–Balasera hori guretzat zen –erran zuen behingoz oso serio Willyk–. Su gurutzatu hori guri zuzenduta zegoen. Bi sikario-banda erabili dituzte itxurak egiteko, baina bala guztiak taberna aurrera zuzendu dituzte. Eskerrak mahaiak zura sendoz eginak diren! Bestela, zauritu bat ez, lau hildako izango ginen. Ehunka bala bota dituzte deabruzale horiek!

Jota geratu ziren beste bi lagunak. Lalak zerbitzariaren odola zuen eskuetan, jarria eteten saiatu zenetik eta zauri txiki bat zuen bekokian zerbaitekin kolpatuta. Dani bere burua lurrera botatzean zikindu zen eta kolpe handia jaso zuen belaun batean. Willy hobeki zegoen eta beste poliziengana joan zen hitz egitera.

–Geratu zaitzete atari honetan nik lankideekin hitz egiten dudan bitartean. Hotelera eramango zaituztet –Lalak hitz egin zuen ahal izan zuenean.

–Dani, kontu gehiagoz jokatu behar dugu. Gutxiengatik gaude bizirik.

–Bai. Oraindik ez dut sinesten.

–Ez dut ulertzen! –erran zuen Lalak urduri. Danik ez zekien Lalak zer erran nahi zuen.
–Nik ere ez dut ulertzen. Ez dakit zer erran nahi duzun!
–Willyk berehala bota du mahai bat eta ezkutatu da. Osorik atera da!
–Eta zer?
–Uste dut berak bazekiela balasera izanen zela eta egur lodiko mahaiak zituen taberna bilatu du. Nik berak egin duena egin dut eta zu bultzatu zaitut.
–Berak azaldu digu gu hil nahian dabiltzala. Nik ez dut zuk diozuna garbi ikusten. –Danik ez zuen sinetsi nahi.
–Salbatu egin gara nik haren mugimendu azkarra ikusi eta berdin egin dudalako, bestela... – Gizonak ez zekien zer pentsatu.
–Eta orain zer egin behar dugu? Nola jokatu dugu Willyrekin?
–Ez dakit –erantzun zuen Lalak zalantzaz beterik.

Handik gutxira Hotelera eraman zituzten beste bi poliziek, bidean arreata handiz begiratu. Arratsalderoko euri-jasa egin zuen. Kaleek erreka ziruditen! Nekatuta, urduri eta zikin sentitu ziren; izerditan, bero eta hezetasunagatik. Hotelera heldutakoan, gelan sartzerantz zihoazela, ezustean Danik telefono-mezu bat jaso zuen zenbaki ezezagun batetik bidalia. Ireki zuenean mezu laburra bezain neutroa irakurri ahal izan zuen: *“Kaixo Dan. Bihar Guatape-n elkartu ahal gara. Muxuk”*. Gizonak testua erakutsi zion ikertzaileari ezer aipatu gabe. Lalak galdera ixila egin zion Daniri eta honek galdera egin izan balio bezala erantzun zion.

–Bai. Tesaren mezua da. Ezagutu bezain laster Dan deitu zidan behin edo bitan. Gero guztiek bezala Dani deitzen hasi zitzaidan.
–Orduan lortu du libratzea. Ezin dut sinetsi. Ez dakit zergatik ez duen argiago idatzi. Uste al duzu satanzaleak oraindik zelatatzen ari direnik?
–Bai, hori da! Ezin du garbi ezer erran. Zuk aipatu bezala oso neutroa da mezua. Zer iruditzen zaizu baietz erantzun eta Leku horretara joaten bagara?
–Ongi. Ez dugu beste erremediorik. Dena den, kontuz ibili behar dugu. Erantzun ezazu labur, bai.

Danik joanen zirela erantzun zion igorleari. Dan bezala sinatu zuen. Hura eginda, Dani eta Lala nor bere gelan sartu ziren freskatzeko. Bero-sapa egiten zuen eta gainetik kendu nahi zuten izerdia. Hotelean geratu ziren. Han afaldu eta gauerdian Iruñera deitu zuten. Gertatutako guztia kontatu zieten poliziei. Zaila zen hurrengo pausoak erabakitzea. Ez zekiten Tesa topatuko zuten edo beste tranpa bat izanen ote zen. Gina, Tesaren lehengusina, tartean zebilen eta ziur asko bera izanen zen sikarioak bidali zituena. Bestalde, Uxueren pista txikirik ere ez zuten lortu. Poliziek esanda, zekiten gauza bakarra, baina ez zen gauza segurua, Medellinera bidaiatu zela identitate faltsua zuen gizon batekin. Dena den, okerrena zen bizia arriskuan izan eta ikertzeko ezintasuna sentitzea.

Manu, Jabier Lopez eta Jaker, Ainararekin zeuden. Ainara inspektoreordeak bideo-konferentziaz hitz egin zuen orduan Lala eta Danirekin. Lehen-lehenik bi lagunek eguneko partea eta hiltzeko saiakera kontatu zieten beste guztien larridurarako. Une txarra kontatu eta beste guztien elkartasuna eta animo emate beroa jaso ondoren bazirudien Ainarak pentsatutako plana adierazi nahi ziela. Gogotsu kontatu zien egiten ahal zutena.

–Hiru egun dituzue Uxue eta Tesa topatzeko. Agian ez duzue ezer lortuko, baina egiten ahal duzuen gauza bakarra pista berria jarraitzeaz gain... –Danik etsipenez adierazi zuen.

–Ainara, erran ezazu behingoz egiten ahal duguna, mesedez.

–Lasaitu, Dani. Entzun ongi. Jarraitu Willyrekin, baina zer egin nahi duzuen aldeztatik ez aipatu. Guk ustelkeriaren kontrako polizia taldeari laguntzeko eskatu diegu. Kontraespionatza erabiliz etsaien arriskutik hobeki zainduko zaituztegu. Beti izanen dugu norbait zuek zaintzeko

–Manuk jarraitu zuen.

–Edozein modutan kontuz ibili –Jakerrek zerbait interesgarria adierazi zuen orduan.

–Lala, sarean aritu naiz zuen egitekoan laguntza bila. Hacker batzuek bilatu dute Uxue, Tesa edo Gina delakoaren atzerik pista bat. Gina Medellinako satanzaleen burua da eta kartelego nagusietako bat. Bere korreoetan sartu ahal izan gara eta badakigu bihar ostiral gauean, larunbateko mugan, meza beltz bat antolatuko duela eta bertan, ziur aski Uxue izanen den norbait erabili nahi dutela. Oraindik ez dakigu non elkartzeko diren. Bileraren xehetasunak azken momentuan emanen dituzte. Ordura arte saihestu itzazue sikarioen erasoak. Ez utzi Willyri mezurik bidaltzen –Lalak erantzun zion bikotekideari.

–Ez kezkatu, Jaker. Uste dut laguntza handia eman diguzuela. Agian gure seguritateko hobe izanen da ustelkeriaren kontrakoak guk bisitatu behar ditugun lekuetan prest eta zain izatea. Zer iruditzen zaizue Guatapa-ra bidaltzea? Poliziek keinu edo hitz bat izan ahal dute, dena ongi ala arazoak dauden adierazteko. Okey-aren zeinuren bat eta ezezkoa izaten ahal dira.

Bilera edo komunikazioa bukatutzat emanda, Lala Jakerrekin jarraitu zuen denbora batez solas pribatuan. Lotara joan baino lehen, bi lagunak hurrengo egunetako komentatzen geratu ziren momentu batez. Bazekiten satanzaleak bi egunen buruan gauerdian elkartzeko zirela; lekua, berriz, ez zekiten non izanen zen. Bitartean, Willyren menpe zeuden, modako lekuetan halabeharrez zerbait jakiteko zain. Turista galdu batzuk sentitzen ziren, leku batetik bestera noraezean bitxikeriak ezagutzeko prest.

Lalak, bestalde, Uxue askatzea zuen helburu. Eginkizunaren zailtasunak beldurtzen bazuen ere, profesionala zen, baina errealista ere bai eta Katiri gertatu zitzaiona gogoan zuen. Dani, berriz, bere egoeran pentsatzen ari zen. Tesaz maniteminduta ote zegoen ez zuen ziur. Hala ere, arriskuaz jakitun zen. Ez al zen Tesa beraiek harrapatzeko tranpa?

Maiatzak 22, asteazkena

Goizean goiz mugitu ziren. Gosaldutakoan, bi lagunak azken momentuan auto bat alokatu zuten eta Willy agertu zenean Guatapera joan zirela erran zioten. Poliziak susmoa hartu zuen eta galdetu zien ea ez zuten beragan konfiantzarik. Lalak zuzenean erantzun gabe, komentatu zuen badaezpada ere autoz eta ohituraz aldatzeko beharra zutela. Inork ez zuen aldeztatik aurretiko segadarik prestatuko.

Willyk gidatu zuen. Zirkulazioa handia zen eta ia bi ordu eman zuten Guatapera joateko. Urrutian itxura monolitiko handi bat ikusi zuten, El Peñolek Azukrezko Ogia, Pan de Azucar bezalako harkaitza zen. Lekuari buruzko propaganda paper batean aholkatzen zuten lehenbizi herrira joatea, baina El Peñoleko harriaren jendetza zebilenez, nahiago izan zuten ordu punta baino lehen harkaitzera igotzea. El Peñol granitozko peñon bat zen. Prekolonbinoen gurtzetokia izan zen, santutegi bat, inguru zabaletik zerurako bidea markatzen zuena. Sarrera

garestiak ordaindu ondoren, 220 metroko hogeitun bat mailaditan igo behar zituzten 740 maila. Gehienetan, adreilu zakarrez egindako mailadiez osatuta zegoen eskailera. Tartean itxura hobe zuten, baina eskailerek ez zuten atsedenerako toki apropos gehiegirik. Bisitariak nekazten zirenean oztopo eginez balkonada txikietan geratzen ziren, urtegiara eta paisaje ederrari begira.

Ilaran igo ziren noizbehinka nekatuago batzuk aurreratuz. Lala zen haietako lehena, Danik jarraitzen zuen eta Willy haiengandik hamar bat metro atzerago zebilen, besteei eta ingurukoiei behatzen zuelarik. Presaka, hogeitun minutuan egin zitekeena haiek lasaiago egiten ari ziren. Igotzen ari zirela, aurreratu zituen gizon batek okey egin zien. Ehun bat metrora zabalgunen batean geratu ziren paisaiari begira geratzeko. Jende pila elkartu zen beheko eskailerak han elkartzeko zirelako. Willy haserre zegoen. Berarekin ez kontatzea eta beren kabuz nora joan erabakitzea ez zitzaion gustatu. Bere lana justifikatzeko esan zien gizon susmagarri bat ikusi zuela baina gora jarraitu zuela.

Paisaia aparta zen. Handik kilometro batzuetara urtegiak ikusten ziren landaredi eta ingurune aberats hartan. Urtegietan barku txikiak mugitzen ziren, lantxak eta belauntziak gehienak. Urrunean herri koloretsua sumatzen zen. Jarraitu zuten gorago eta ikusmirak hobeki eta lasaiago ikusi ahal izan zituzten. Gora heldu ziren azkenean. Gailurreko dorrera ez ziren igo, jendetzak betetzen baitzuen espazio txikia. Barku txikiak, irlek osatzen zuten lur eta uretako labirintoan zehar mugitzen ziren. Errepresak sortutako urtegi anitzek irla eta uretako errosario bat osatzen zuten. Han behean landaredi ederra eta herririk ikusten ziren. Uretako kirolak praktikatzen zituzten bisitariak, kostaldeetan egiten den bezala. Oroigarri-dendan postal batzuk erosi eta zerbeza freskoak edan zituzten.

Emakumezko batek erpurua gora eramanda begiratu zion Daniri. Disimuluak adierazten zuen ez zuela ligatu nahi, beste batean, Botero plazan gertatu zitzaion bezala. Dena den, El Peñolen ez zuten Tesa ikusi, ezta haren mezurik jaso. Deskantsatu eta paisaia eta urtegi ederrak azkeneko begiratu ondoren arin jaitsi ziren. Jaistean jendetza handiagoa igotzen ari zela nabaritu zuten. Aparkalekua beteta zegoen eta urtegi ondoko Guataperara hurbildu ziren. Guagua eta Moto-chiva koloretsu pila ziren herriaren ondoko aparkalekuan.

Zein herri polita Guatape! Kolore biziko etxe eta pisu asko ikusi zituzten. Plazetan jendea kantuan eta dantzan ari ziren; souvenir eta janari postuak, tabernak eta bertako janari azkarreko jatetxeak topatu zituzten. Plaza lasaiago batean bazkaldu zuten goiz, jendetzak ezinezko bihurtu baino lehen. Bandeja Paisa, Sanchoco eta Mondongo eskaini zizkieten, baina beste aukera batzuk begiratu Lalak amuarraina eskatu zuen, Danik arroza oilaskoarekin eta Willyk *Calentao Paisa*, orokorrean besteak baino plater arinagoak. Nahi gabe ere, beren helburua ahaztu zuten.

Herrian itzuli lasaia egin zutenean, Lalak hormirudi koloretsuak miretsi zituen eta Danik Tesa bilatu zuen. Plaza De Los Zocalos izenekoan, grafiti pila bat ageri ziren. Egurrezko eskailera zabal batean esertzekotan egon ziren, baina ondoko kafetegian egin zuten. Kafea hartzen zuten bitartean hip-hop musika entzun zuten. Bi lagunak momentu batez ahaztu zuten eginkizuna eta erlaxatu ziren inguruari eta jende alaiari begira. Bertakoek artesaniak saltzen zituzten.

Handik gutxira urtegieta hurbildu ziren. Kirol nautikoak praktikatzen ahal ziren. Barku txiki, txalupa eta lantxak alokatzen ahal ziren, patineteak ere bai. Windsurf, eski nautikoa eta hainbat denbora-pasa egiten ahal ziren. Barkuen bidez La Isla De La Fantasia urtegi politaren erdian zen eta lantxaz Parque La Culebran bertako "fauna eta flora"-z gozatzen zuten bisitariak. Danik urtegieta zehar paseo bat egin nahi izan zuen bere lagunaren bila, baina Lalak alferrik izanen zela eta berandu egiten ari zitzaizela adierazi zion. Nolanahi ere, denbora piska bat pasa zuten kaian jendearen joan-etorriei begira. Moto-chivan inguruko herrietara joaten ziren bisitariak, batzuk La Puebla del Peñol-era.

Momentu batean beste OK bat egin zien lehengo El Peñoleko emakume berak. Dena den, Tesaren berririk ezean paseo lasaian aparkelekura itzuli ziren. Egun osoa pasa ondoren, iluntzean heldu ziren Medellinera. Bidaian ia ez zuten hitzik gurutzatu.

Gauerdian beste komunikazio bat jaso zuten. Tesak hurrengo goizean *Botaniko*-n elkartzeko proposatu zien. Goizeko bederatziatan telefonoz hitz eginen ziela ere aipatu zien. Ainara eta Manurekin hitz egin zuten ondoren. Haiei Botaniko hura arriskutsua izanen zela iruditu zitzaien. Tesarekin elkartzeko beste leku bat proposatu zieten. *El Castillo*-n, gaztelu-jauregiaren barnean seguruago izanen zirela ziurtatu zieten.

Maiatzak 23 , ortzeguna

Geratu ziren bezala goizeko 9etan Tesa edo haren izena hartu zuena lehenengoz mintzatu zen, presaka, komunikazio hura egiteagatik norbaitek harrapatuko zuelako beldurrez edo. Hamaikak aldean Botanikoan elkartzeko berriro aipatu zuenean, Danik ezetz borobila eman zion leku arriskutsua zela erranez. Galdetu nahi izan zion nola zegoen. Emakumeak elkartoki berria seinatzeko eskatu zion. *El Castillon* geratzeko adostu zuten berehala.

Willyk ere Botanikoa arriskutsua izanen zela pentsatzen zuen. Ezkutalekuz betetako leku zabala omen zen. Bai, El Castillo seguruagoa izanen zen. Han edo handik hurbil ere jatetxeak zituzten eta parke ederrak ikusten ahal ziren. Hara heldu ziren ordu batean. El Castillo, Loirako gazteluen antza zeukan museo bat zen. 1930ean Jose Tobon Uribek eraikiarazia eta Diego Echavarriak enpresarioak erosi zuen handik gutxira. Azken hamarkadetan museo publikoa zen. Estilo neogotikoan egina, areto eta saloi desberdinak zituen. Beheko solairuan saloi handia eta lotuta saloi txikiago batzuk zituen. Luis XVI. estiloko altzariak zituen: dekorazioa, margo-lan handi eta eder batzuk eta estetikan garrantzi handia zuten aulki, besaulki eta ispilu handiak. Aretoz areto ibiltzen ziren bisitariak gidariak saloien historia eta artelanak azaldu bitartean. Danik ez zien azalpenei kasu gehiegirik egin, Tesa noiz agertuko zen zain baitzegoen. Lala aldiz segurtasunaz arduratu zen eta Willy sarrerako tabernan geratu zen edozertarako prest.

Gazteluaren goiko pisuetan ibili ziren. Logelak, saloi txikiak eta bainu dotoreak ikusi zituzten. Pelikulako jauregia zirudien gazteluak. Azkenerako utzi zituzten ondoko eraikinak. Mendeetan ondo-ondoan baina jauregietatik aparte jartzen zituzten sukaldeak eta zaldientzako ukuluak. Etxeko zerbitzariak jauregiaren ganbaretan bizi ziren bitartean, finkako beste zerbitzariak aparteko etxe batzuetan izaten ziren. Edonola ere, kanpo aldean lorategien itxura ederra eta saloietako dotoreziaz aparte, gauzarik ikusgarrienak hainbat objektu eder ziren: zeramikak, lanparak, beirak eta altzariak; azken finean jauregi-etxe batek izaten zituen osagarriak.

Gaztelu-jauregia bisitatzen zuten bitartean, kanpora begiratu zuten. Baso eta lorategietan jende andana naturaz gozatzen ari zen. Dorre batetik igo eta terraza batera atera ziren. Kanpoan ikusmira ederrak baziren ere, handik paseatzea arriskutsua izanen zen. Urduri zeuden eta gazteluko sarrera ondoko jatetxean bazkaltzea erabaki zuten. Edonola ere, Tesa ez zen agertu. Poliziak izanen ziren emakume eta gizon bikote gazte batek OK-aren keinua egin zien, baina ez ziren lasai sentitu. Bazirudien joko batean zirela. Ez al zen Tesa libratzerik izan? Danik begiradarekin harrapakin sentitzen zela adierazi zion Lalari. Willy ere polizia batzuek haiek zaintzen zituztela konturatu zen eta gazteluaren serreran susmagarri bat ikusi zuela adierazi zien.

Arratsean hotelera itzuli ziren, neka-neka eginda. Arinki afaldu eta indarrak berreskuratu behar zituzten, hurrengo orduetan erne eta bizkor jokatu ahal izateko. Espero zuten deia jaso zuten. Lalak labur hitz egin zuen. Ainarak, helbidea eman zien, baita sartu ahal izateko egin beharreko bitxikeria eta pasahitza ere eman zizkien. El Poblado izeneko auzora joan behar zuten. Taxiz joan ziren. Etxe handiak ziren. Hurbiltzen ari zirela, beste auto batzuk eta jendea pilatzen ari ziren mozorro festa batera joan balira bezala. Haiek ere maskara txikiak jantzi zituzten, ahoa eta okotsa libre uzten zituztenak.

Lorategiez inguratutako jauregia zirudien etxearen atarian isilean eman behar zuten pasahitza eta pertsona bakoitzak ezkutuan peso bat eman behar zion atezainari eskua elkarri ematen zioten bitartean. Egongela handi-dotore baten serreran hartzen ahal zituzten edariak eta janaria. Orduko berrogei bat pertsona izanen ziren eta gehiago agertzen ari ziren. Musika heavy ozen entzuten zen. Gonbidatuek jan, edan, dantza egin, belarrira xuxurlatu, musuka aritu edota dantzatu egiten zuten.

21 - Meza beltza

Jendea eskailerara hurbildu eta sotora jaitsi zen. Goiko solairura igotzeko eskailera zabalean soka batek mozten zuen bidea. Dani, irizartarrek bere herrian antolatutako etxeaz gogoratu zen. Sotoa handia zen; aski elkartu behar ziren ia berrehun pertsona elkartzeko.

Bat-batean musika isildu zen. Jendeak festa giroa bertan behera utzi eta serio tu zen. Mahai batean tolestuta tunika beltz bana hartu eta jantzi zuten. Aretu handia zen hura. Paretetan 666 zenbakia eta deabruen izenak kolore gorritan ikusten ziren hiru hormatan; aurreko aldarearen gibelean alderantzizko bi gurutze handi eta erdian pentakulo handi bat ageri ziren.

Lala eta Daniri meza arrunt batean zeudela iruditu zitzairen. Ospakizuna hastekotan zegoen. Jendea elizetan bezala lerrokatutako bankuetan esertzen hasi zen. Besteen antzera haiek ere eseri ziren. Dena den, Lalak arin aldegiteko eta ongi ikusteko lekua aukeratu zuen. Aldare beltzaren atzetik akerraren mozorroa zuen pertsonaia bat zain zegoen. *“Apeza”* edo meza beltzaren gidaria latinez otoitz berezi bat egiten hasi zenean isiltasuna egin zen. Tunika gorri argia jantzen zuen apezak. Aldameneko akolitoak suge itxurako mozorro eta maskara jantzen zituen. Orduan, mozorrorik gabe eta biluzik zegoen neska bat ekarri zuten. Hemezortzi urte inguruko neska mulata eder bat zen. Ile luze kizkurak aurpegi ederra erdiska estaltzen zuen.

Bi lagunek Uxue ezagutu zuten lehenagotik ikusitako argazkiengatik. Bi akolitoak eusten zuten, drogatuta erortzen ari zelako. Apezak besoak altxatu zituen eta Satani deika hasi zitzaion. Neska ederra eskaini nahi ziola ozenki erraten hasi zen.

Apezaren ondoan zegoen emakumeak gaztea bultzatu zuen aldarerantz. Maskara une batez erori zitzaion. Mugimenduetarekin hobeki ikusi zitzaion aurpegia eta Tesa zela zirudien. Aho-okotsa eta lepoa bereak ziren. Begiak harenak ziren, eta baita begiratzeko modua ere. Otoitza joko bihurtu zuten, gidariak erraten zituen esaldi edo hitz ulertezinak besteak nola edo hala errepikatzen hasi zirenean.

Meza beltzak beste mezek bezala luze jo zuen. Diferentzia zen hark mozorro festa zirudiela eta sinestunak neurri batean edanda eta drogatuta zeudenez, barre algarak eta oihu txikiak egiten zituztela. Apezak Uxue gehiago hurbilarazi zien bi bizkartzainei. Egoera konplikatzen ari zen. Neska gazteari zerbait eginen zioten denbora luzea pasa baino lehen. Jendearen animoak berotzen ari ziren eta Dani eta Lala beldurtzen hasiak ziren. Ez zekiten zer egiten ahal zuten, baina Uxue erailketatik libratu behar zuten. Ez zuten polizia deitzeko modurik telefonoak debekatuta zeudelako. Inhibitzaileek deiak eta mezuak galarazten zituzten gainera. Susmatu zuten bezala gauerdian hasita zuten meza eta polizia hamabiak eta laurdenean agertuko ziren. Ustelkeriaren kontrakoak, konfiantzako poliziak, harrezkero kanpoan izanen ziren eta azken momentuan sarraraziko zituzten larrialdietarako polizia taldeak.

Bat-batean iskanbila eta oihuak entzun zituzten kanpo aldean. Tiro bat ere entzun zen. *“Polisia..., polizia...”* oihukatuz uniformerik gabeko bost edo sei gizonak jendeari paretari begira eta eskuak altxatuta jartzeko agindu zioten. Beste bi poliziek apeza eta emakumezko laguntzailea atxilotu zituzten. Denak harrিতuta zeudela aprobetxatuta, Lalak Uxuerengana jo zuen. Neska zorabiatuta zegoen. Eskutik hartuta aldaretik eta zaindariengandik apartatu eta babestu zuen hormaren kontra. Neska gazteari kontatu zion bera askatzeko agertu zirela.

Poliziek mozorroak kendu arazi zizkieten guztiei. Gina Irisarri eta apeza serio eta amorruz beterik ikusten ziren. Esku-burdinak jarri nahi izan zizkietenean erresistitu ziren baina beste polizia batzuen laguntzarekin ezin izan zuten ezer egin. Atxilotuen artean, Marisa Irisarri eta Alejandro Sagasti topatu zituzten. Beraientzat atxiloketa gauza harrigarria izan zen. Ez zuten espero, Medellinen, beren hiria sentitzen zuten hartan, poliziak atxilotuko zituela. Han salbu zirela uste zuten, diru pilarekin eta behar zuten babesekin inoiz ez zituztela harrapatuko. Polizia batzuek esku-burdinak jarri zizkieten bikotekideei eta Gina omen zenari.

22 - Buruak harrapatu. Gina/Tesa eta Daniren arteko solasa.

Danik eskatu zion polizien buruari Ginarekin hitz egin ahal izatea. Etxeko egongelako besaulki banatan eseri ziren bi polizien zaintzapean. Bost minutu eman ziotenez gizona ez zen hari begira geratu. Obsesionatzen zuen galdera egin zion ustez bere laguna izan zen emakumeari.

–Tesa, zer gertatu zaizu? Nola zabilta satanzaleekin?

–Dani, ezin duzu onartu Tesa ez dela existitzen?

–Mesedez, Tesa, zer gertatu zaizu?

–Tesa haur garaikoa zen, urteetan beldurrez bizi izan zena.

–Tesa, laguntza eskatu zenidan aurreko astean eta zure bila ibili gara azken egunetan. Zu bahituta zintuzten eta eskapo egin nahi zenuen. Gure laguntasunagatik eskatu zenidan etortzeko eta askatzeko. Konta iezaiezu poliziei gertatu dena eta laster libre izanen zara.

–Kar, kar, kar! *“izanen zara”!* Hitz egiteko modu hori iparraldekoena zela uste nuen.

–Ikusten!? Tesa, gogoratzen ari zara gure kontuez.

–Ez, ez, ez. Mutil zozonga hori! Tesaren gauzak gogoratzen ditut eta berak maite zaitu, ez zuk bezainbeste, baina ni ez naiz Tesa. Ni gauzez nagusitzen nintzen buruaz eta jadanik nahi dudana egiten dut. Gorroto ditut zurikeriak. Deabruaren etorrera prestatu behar dut eta ez dut txotxolokeriak egiteko gogorik.

–Baina, Tesa hor nonbait dago. Tesa...

–Alferrik ari zara. Tesak ia ez zaitu entzuten. Dirua daukagu eta bi egun barru kalean *“izan-go”* gara mesiasen etorrera prestatzeko. Antikristo zuen Euskal Herrian jaiotzea espero genuen, Europako herri batean errazago izango luke munduaz jabetzeko. Bestela, Washingtonen jaioko da, edo Medellinen beste leku batean uzten ez badigute. Begira gizontxo, Tesak nahi luke guztiaz libratzea, baina ia ezin du nahi bezala pentsatu. Hara! Zutaz gogoratzen da. Nahi luke zurekin hemendik alde egin. –Danik ezin zuen sinetsi.

–Tesa mesedez, libra zaituzte Ginaz.

–Berandu ari zara. Tesa garaitu dut eta zuk ezin... nauzu lagundu –Azkeneko hitzak Tesak aipatu balitu bezala sentitu zituen–. Bera agertzeko azken aldia izan da hau. Meza beltzetako odolez indartu naiz eta bera kontzientzia ahul bat besterik ez da.

–Ez dizut sinesten..., Gina. Tesa..., gu biok lagunak ginen, gehiago ere bai. Zuri ez zitzaizkizun iluntasuna eta krudelkeria gustatzen. Tesa, kontadazu zer gertatu zaizun! Nola laguntzen ahal zaitut?

–Ni ez naiz... Tesa, Gina baizik. Kaiku hori! –Haserre begiratu zion Daniri. Gizonak ezin zuen sinetsi hura Tesa zela eta era berean Gina. Ahal izan zuenean hitz egin zion.

–Ez dut Ginarekin mintzatu nahi. Tesa, hitz egidazu mesedez. Nola jasan duzu horrenbeste bortizkeria? Non zaude? –Danik gorrotoa nabaritu zion begiradan.

–Tesa aspaldian joan zen. Gorputz honetan bizi zen. Neska gaixoa zen Tesa. Haur handi bat zen, edozerekin beldurtzen zena. Ni haren buruan bizi nintzen, baina ezin nintzen atera. Ni naiz benetako pertsonalitatea eta lortu dut Tesa betiko baztertuta geratzea –Danik ezin zuen sinetsi.

–Zergatik horrenbeste krudelkeria. Zergatik torturatzen eta hiltzen duzue jendea? Zertarako horrenbeste gaiztakeria?

–Antikristoren etorrera prestatzeko. Zer garrantzia duen bizi bat edo beste. Benetako Jainkoaren legea da inozentea sakrifikatu behar dela gure nahiak eta atsegina bilatzeko.

–Sinestarazi nahi didazu zuen jokaera erlijioa dela? Haur inozenteak hil behar al dituzue?

–Bai. Mundu honetan ez dago lekurik onkeriarako. Egiarekin jokatu behar dugu eta indartsuenen atsegina da legea. Hipokresia eta ñoñokeria gorroto ditut. Ni eta gure lagunak onenak aterako gara ataka honetatik. Dirua dugu eta ezin izanen duzue Uxue hil nahi izan dugula probatu. Kolonbian nahi duguna egin dezakegu. Dani, ez izan tontoa eta etorri guregana. Ez al nauzu maite? Biok zoriontsu eta nahi duguna egiten bizi gaitzke.

Dani beldurtuta zegoen, berarekiko jarrera aldaketagatik gehien bat. Beraren aurrean Gina eder eta ezin erakargarriago bat agertu zen. Gonbitean eta Ginak errandakoan pentsatu zuen. Ikaragarria zen, baina ezin zuen sinetsi. Posible zen Gina eta enparauak libratzea. Ez zuen emakume harekin ezer nahi. Agian Tesa maite zuen, emakume-deabru hura, ordea, ez. Inola ere ez. Satanzale haien obsesioak gaixotasun eta gaiztakeriarik higuingarrienak irudituz zitzaizkion.

–Zoaz pikutara. Estradizioa eskatu dugu eta gure herrian eta Iruñean egindako erailketengatik auziperatuko zaituztegu –emakumea barrez lehertu zen.

– Ez...

–Tesa..., edo Gina, berdin zait. Erradazu zergatik deitu zenidan? Zergatik etorrarazi ninduzun?

–Biok deitu zintugun. Nik, zu harrapatzeko, Marisak eta Alejandrok egindakoen lekukoa izateagatik. Zu gabe libratuko dira.

–Eta Tesaren arrazoa?

–Tuntunak uste zuen zuk askatuko zenuela. Maite zaituela uste dut.

Berandu zen hotelera heldu zirenean. Uxue ospitalera eraman zuten. Ia ez zen ezertaz konturatu eta Lalak erran zionaren ondorioz bazirudien hasi zela sinesten orduko libre zegoela, edonori irribarrez eta begiak biribilduz “*aske naiz*” erraten zion. Ikertzaileak Ainarari berri eman zion Iruñeko laguntzaileak ere lasaitzeko. Lala pozik sentitu zen eta Dani jota, baina biak nekatuta zeudenez elkar agurtu eta lotara erretiratu ziren.

Maiatzak 24, ortziralea.

Gosaldu ondoren egongela batera joan ziren. Bertako poliziek kontatu zieten beraiek satanzaleak galdekatzen hasiak zirela eta bere momentuan epaitegietara eramango zituztela. Sagasti-Irisarritarrak, guztiaren erantzule izanda, denbora gehiagorik galdekatu ahal izateko poliziarren ziegetan zituzten. Edonola ere, haiei, bi baskoei, beste deabruzale eta sikario batzuek min egiten ahal zieten, hoteletik ez mugitzea aholkatu zieten. Uxue, bitartean, ospitalean zen onbideratzen.

Beraz, hotelean geratu ziren, orduan ere satanzaleek beraiek hiltzeko ahalegina egin ahal zutelako. Uxue bidaiatzeko moduan izanez gero, hurrengo eguneko hegazkina hartuko zuten; bestela egun batzuk behar izanen zituzten. Lalak, Ainara, Manu eta Jabier Lopezekin hitz egin zuen azkeneko orduetako berriak zehatzago kontatzeko. Bitartean, estradizio aginduaren esperoan zeuden. Burokrazia handia izaten zen Medellinen, baina bazirudien bertako agintariak ez zutelako karteekin eta eliteko deabruzaleekin zerikusirik nahi eta epaileek estradizioa ordu gutxitan emanen zutelako. Beranduago, polizia batzuen zaintzapean gaixoa bisitatzen joan ziren ospitalera. Uxue ongi zegoen, baina azkeneko probak egin behar zizkieten. Ahul egon arren, solastu egin ahal izan zuten. Uxuek kontatu zien bera bahitu zutenetik gertatu zena.

–Ez dakit zergatik bahitu ninduten: zergatik ni neu bahitu ninduten erran nahi dut. Ni ez naiz inor, baina etxera bidean harrapatu eta zerbait ziztatu zidaten. Konortea galdu nuen eta esnatu nintzenez gela itxi batean nengoan, ateratzeko aukerarik gabe. Orduak eta orduak pasa ziren. Ez dakit zenbat denbora, erlojurik edo eguneko argirik ikusten ez nuelako. Lotuta nengoenez, Jateko ematen eta garbiketak egiten zizkidaten. Ameriketara etorri baino lehen, behin baino ez zuten nirekin hitz egin. Bazekiten ni lesbiana nintzela eta galdetu zidaten gauza bakarra ea birjina nintzen. Beste interesik ez zuten eta emakume hark berak, Ginak, egiaztatu egin zuen. Ginak ez ninduen gaizki tratatu eta konbentzitu nahi ninduen beraien erlijioan sinesteko. Satanek jendarte osoa zoriontsu bihurtuko zuela zioen. Beldurtuta, berriro galdu nuen konortea eta berreskuratu nuenean beste leku batean nengoan. Orain badakit Medellinera ekarri nindutela. Hala ere, ez nekien ni sakrifikatzeko asmoa zutela.

–Uxue, beste inork hitz egin al zuen zurekin?

–Bai, Alejandro izeneko gizonak. Marisa edo Ama deitzen zuten emakumea behin edo bitan etorri zitzaidan beren sektan sartzeko konbentzitzeko, baina oso zakarra zen. Berak ere euskaraz egiten zidan. Emakumea aginduak ematen entzuten nuen, baina Gina zen denen nagusia.

Sagasti-Irisarri senar-emazteak atxilotuta zeuden, baita satanzaleen buru izandako garrantzitsuenak ere. Hurrengo egunean, larunbat goizaldean, Lalak eta Danik hegazkina hartu behar zuten. Eguerdian berri txar bat jaso zuten: Ginak ihes egitea lortu zuen. Jakin zutenez, komisariatik epailearengana eraman zutenean, poliziek beraiek askatu egin zuten. Auto ofizial batean agertu ziren kustodia-poliziek, paperak erakutsi eta zaintza-paperak ere sinatu zituzten. Handik ordu laurdenera, beste polizia talde bat agertu zen epaitegian gauza bera egiteko. Orduan egiaztatu zuten haiek zirela benetako poliziak eta behar bezalako paperak zituztenak. Askatze prozesua denborarik gabe egin zutenez, horrek esan nahi zuen prestatuta zeudela preso bat askatzeko. Denbora faltak ekarri zuen Alejandro Sagasti eta Marisa Irisarriren askapena gauzatu ahal ez izatea. Garbi zegoen satanzale eta gaizkile-mafia haren burua askatu nahi zutela, haren bigarrenak alde batean utziz.

Bestalde, Gina Irisarri ez zela existitzen Jakin zuten. Poliziek adierazi zuten gaizkile haren izena Maria Teresa Sagasti Irisarri zela, familia hartako alaba bakarra. Psikiatra batek adierazi zuen kasu hura ez zela besterik gabe bipolaritate kasu klasiko bat; buruko pertsonalitate anitz gaixotasunetan kasurik larriena baizik. Bi pertsonalitate erabat desberdinetan ematen zen: nahaste disoziala.

23 - Etxera bidean. Hauteskundeak eta amaiera.

Larunbat goizaldean hartu zuten hegazkina. Uxue zuzenean eraman zuten erietxetik eta egin beharreko tramiteak berehala egin ahal izan zituzten. Goizeko bostetan abiatu ziren eta zazpi orduan helduko ziren Madrilera. Teorian eguerdian helduko ziren, baina ordu diferentzia zela eta arratsaldeko zazpietan lurreratu ziren. Aldez aurretik antolatu zuten bezala lotara geratu ziren Madrilen, Atotxa tren-geltokiaren ondoko hotel batean. Bertan afaldu zuten eta goizeko bederatzietako trena hartuko zuten. Hiru bidaiariek etxeokoen eta Iruñeko poliziekien hitz egin zuten telefonoz.

Gaua nola edo hala pasa zuten. Beraiengatik izan balitz Iruñera joanen ziren. Gezurra bazirudien ere, lo Uxuek egin zuen hobekien, hartzen zituen lasaigarrien kariaz. Atotxara, trena atera baino ordu erdi bat lehenago heldu ziren eta arazorik gabe hartu ahal izan zuten. Bidaia arin egiten zen eta ordu bata eta hogeita bostean Iruñera heldu ziren. Haien zain Ainara, Lontxo, Manu eta Jaker agertu ziren. Ainarak eta Manuk aurretik prestatu bezala udaltzainek Uxue arin eraman nahi zuten bere etxeokengana eta lagunengana. Uxueren bahiketaren berri zabaldu zenez gero, jende piloak saihesteko badaezpada ongi etorri lasai eta pribatua egin zieten geltokiko agintaritzako gela batean. Han, solasean aritu ziren pixka batean, jendetza desagertu bitartean.

Igandea zen, maiatzak 26. Eguerdian egin zuten Iruñerako bidaia eta nor bere etxera joan zen. Foruzaingoan adierazpenak egitea eta sinatzea falta zitzairen. Dena amaituta zegoelakoan ez zuten ezer nabarmenik antolatu behar. Dena den, zaintzarik sinpleena eta diskretuena antolatu zuten Dani eta Uxuerentzat. Dani, foruzaingoan Jabier Lopez komisarioaren laguntzaz gertatutakoaren adierazpena egindakoa, Lontxorekin geratu zen bazkaltzeko eta lasai hitz egiteko.

Aste batean kanpoan ibili ondoren, Danik ahaztu zuen hauteskunde eguna zela. Lontxok herrira lagundu zion Daniri. Lontxok bozketa egin zuen goizean eta Dani ezagututa, bozkatu ahal izateko herrirako itzulia prestatu zuen. Eguraldi on samarra zegoenez bidaia gustura egin zuten. Azken momentuan heldu ziren Erburura. Foruzainak haien zain zeuden. Erburuko eskoletara sartu eta Danik bozka egin zuen. Ezagunek harrituta agurtu zuten gizona. Handik hurbileko eta ezohiko taberna batean lagun minenak, Ana eta Nekane zain zituen ongi etorria egiteko. Agurrak eta musuak elkarri eman ondoren hizketan aritu ziren labur. Zirudienez, azken aldian behintzat deabruzaleek ez zuten ekintza odoltsurik antolatu, haien ibileren arrastoren bat utzi bazuten ere. Horma pare batean ohiko pintadak egin zituzten.

Ana eta Lontxoren laguntzaz Iratzetan sartu zen Dani. Argitasun bereziak lagun, berari munduko lekurik politena eta lasaiena iruditu zitzaion. Hura bere betiko bizilekua zela sentitu zuen. Gurasoak agurtu eta berriro Medellinako egonaldia kontatu zuen, gurasoen aurrean larriena ezkatutuz. Momentuz, gizona lasai zegoen, foruzain bikote batek zaintzen baitzuen. Arratsa ederra ikusteko aukera izan zuten. Afaria baino gehiago *delicatessen* festa bat egin zuten. Luze jo zuen ospakizunak. Pozik eta gustura zeuden eta Daniren itzuleraz eta udaldiaz aritu ziren.

Edonola ere, hauteskunde-gaua zen. Afaldu ondoren emaitzei erreparatu zieten. Orokorrean, autonomien hauteskundeetan PSOE-k lortu zuen leku askotan lehenengo indarra izatea. Nafarroan, berriz, espero zitekeen bezala *Navarra*+k lortu zuen bozka eta legebiltzarkide gehien: 20; PSN-k 11; Geroa Baik 9; EH Bilduk 7; Podemos-ek 2 eta Ezkerrak 1. Gobernua PSN-ren esku zegoen, beste taldeetakoak konbentziturik gero. Gehiengo osoa 26 foru-diputaturen sostenguz lortzen ahal zen.

Konturatu orduko ordu bata zen. Berandu zen eta Dani nekatuta zegoenez atseden hartzeko prestatu ziren. Ana itzuli zen bere etxera eta Lontxok Daniren gelan pasatu zuen gaua.

Maiatzaren 27, astelehena.

Astelehenean Dani berandu esnatu zen, bidaiaren nekeaz gain bazuen loaldian defizit eta desoreka handia. Lontxo Iruñerako bidean zen. Gizonak ia lan-egun normaletan egiten zuena egin behar zuen. Eguerdia hurbil zenean heldu zen Dani bere supermerkatuara. Normaltasunera itzuli zela sentitu zuen. Nekanerekin lan egin zuen, nahiz eta bezeroekin bere ibilerei buruz zerbait komentatu behar zuen, ahalik eta gutxien. Bazekiten denek satanzaleekiko borrokan zerikusia zuela. Erran zien Iruñean ibili zela polizia laguntzen. Ia betiko bizitza egiten ari zela pentsatu zuen. Jakin bazekien ez zela arriskua erabat bukatu eta kontuz ibiltzen jarraitu behar zuen.

Arratsaldean Dani lagunekin elkartu zen. Betiko tabernan zeudela, bat-batean tiro bat entzun zuten. Ez zen deus ere, autoren batek motorearen erretze txarra edota ihes-hodia gaizki izanzen zuela eta tiro baten moduko eztanda egin zuen, handik segundo batzuetara berriro egin zuen denek entzun zuten bezala. Laster lasaitu ziren denak, Dani izan ezik. Danbatekoak balaseraz gogorarazi zion eta baita kontuz ibili behar zuela. Laster lagunak agurtu eta etxera itzuli zen.

Lontxori deitu zion Danik. Betiko gauzez, udarako planez hitz egiteak on egin zion. Gurasoekin afaldu zuen eta ia ezer gertatu izan ez balitz bezala sentitu zen. Gelan zegoela, telefono-dei bat jaso zuen.

–Bai? Nor da? –Erantzunik ez. Minutu eternala pasa zen. Danik ez zuen arnasa bota, ezta hartu ere egin. Ezin zuen momentuaren larritasuna jasan eta ultimatumak bota zuen.

–Moztu behar dut. Erradazu nor zaren. Zer nahi duzu? –isildu zen.

–Dani... –Tesa zen. Gizonari berriz haria galtzeko beldurra sartu zitzaion.

–Tesa, non zaude?

–Itzuli naiz, baina ez naiz ausartu denen aurrean agertzera. –Dani Ginaz gogoratu zen. Beldurrak zegoen.

–Tesa, Ginaz libratu al zara?

–Bai. Gurasoak atxilotzeak jota utzi zuten Gina. Ezkutatu zenean ni agertu ahal izan nintzen. Baina ez naiz ziur... Itzuli daiteke eta ni oraindik ez naiz behar bezain indartsua. Bihar edo hitz eginen dugu. Utzi behar zaitut. Agur. –moztu behar zuela jakinda, Danik azkeneko ahalegina egin zuen.

–Tesa, lagundu behar dizut. Non zaude?

–Dani, ez nazazu bila! Ni arriskuan nago eta zu ere bai. –Moztu egin zuenean, Danik igorlearen zenbakia bilatu zuen alferrik.

Gizonak ez zekien zer pentsatu. Tesa zen mintzatu zitzaiona, baina bizia arriskuan jartzeaz ez ezik, satanzaleen gorrotoa irabazi zuenez, min handiz sufriarazi nahi izango zioten. Ziur zen poliziez aparte deabru haien begiradapean zegoela, zelatatzen arituko zirela. Kanpora begiratu zuen. Mendialdetik ezkutuan edozein tokitatik kontrolatzen ahal zituzten herria eta guztien joan-etorriak.

Ordu erdi bat pasa zen. Gau lasaiaz gainera, Danik zerbait gehiago nabaritu zuen. Zer zen? Ez zekien, baina ez zen ezer onik. Iluntasunak zerbait txar zekarren. Argi bat sumatu zuen ondoko etxean, Argiñenean, irizartarren etxea izandakoan. Bazirudien norbait esku-argi batekin gelaz gela ezkutuan zebilela, zeren eta argiaren islada baino ez baitzen sumatzen. Beheko egongelan ere ikusi zuen. Posible ote zen Tesa handik agertzea?

Zalantzan zegoen. Tesak ez zuen nahi bera arriskuan sar zedin. Berak ez zion minik eginen, baina satanzaleek egiten ahal zioten. Bestalde, ondoko etxean zebilena nor izanen zen? Lapur bat, Tesa ala Gina izan zitekeen. Tranpa bat. Dani, hala ere, ezin zen besterik gabe geratu. Ezin zion poliziarri deitu. Zer erranen zien, Tesa izatea espero zuela eta ezin zela jakin gabe geratu? Momentu luze batean ez zen argirik ikusi, etxearen bestaldean ibiliko zen, sotoan agian.

Azkenean, gurasoak ez esnatzeko, zaratarik egin gabe jaitsi zen beheko solairura. Gauerdia izatekotan lorategira atera, ondoko etxekora pasa eta sukaldeko atea irekita zegoela egiaztatu zuen. Ilun zegoen. Kontuz sartu zen etxe hartan. Kanpotik sartzen zen argitasunaz lagundurik egongelara pasa zen. Euritako handi bat hartu zuen defendatzeko. Ordura arte ez zuen zaratarik nabaritu. Sotoaren ondoan zerbait sumatu zuen. Behetik argitasun piska bat eta altzari bat arrastatzearen oihartzuna heldu zitzaizkion. Norbaitek zer edo zerbaiten bila zebilen. Ezkutalekuren bat izanen zen han.

Isilik jaitsi zituen mailak. Sotoaren atera hurbildu zen, atea zabaltzen hasi eta fluoreszenteen argitasun itsugarrian norbait aldarearen atzean kukubilka zerbait bilatzen ari zen. Aterkia puntatik hartu eta kolpeak emateko moduan hartu zuen. Sarkinaren ondora hurbildu zen. Pertsona hura beste norbaiten presentziaz ohartuta, altxatu eta bueltatu zen. Tesa zen irribarrez hartu zuena. Begirada sarkorra luzatu zion.

–Dani... –Emakumea inoiz baino ederrago zegoen. Begirada animatua zuen eta poza adierazi zuen. Danik ez zekien zer pentsatu.

–Zu al zara Tesa? Nor zara?

–Zuk zer uste duzu? –galdera beste galdera batekin erantzuteak beldurtu zuen gizona. Jokaera susmagarria zen. Tesa ez zen hain jostalaria galde-erantzunetan, zuzen-zuzena baizik.

–Uste al duzu Tesak libratzea lortuko zuenik? –erantzuteko modua ez zen Tesarena. Berrito sartu zen tranpan sentimentalismo ergel batengatik.

–Gina, zer gertatu da Tesarekin?

–Tesa. Beti Tesaren bila. Tuntuna gailendu zen une batez, baina berriro bizkortu naiz. Zuk aukera duzu laguntzen badidazu, bestela... –Begiradak dena adierazten zuen, bat-batean irria mehatxu bihurtuz.

–Zer nahi duzu, hil ala bizi? Nahi duzuna lor dezakezu. –Emakumearen jarrera gaiztoa zen, lehengo gozotasuna ordezkatzuz. Dani haserre zegoen.

–Pizti nazkagarria! Odol egarria baino ez duen putakumea! Ez nizuke lagunduko ezta bizia arriskuan izanda ere!

–Zuk esan duzu! –Emakumeak haserre baino maltzurkeriaz erran zituen hitzok. Aterkiari begiratuta, itxi zuen lurrean irekita zuen kutxa baten tapa eta atzetik pistola bat atera zuen Daniri apuntatuz.

Orduan goian zarata handia entzun zen, batzuk arrapaladan sartu izan balira bezala. Segundo batzuetan bi foruzain uniformedun eta beste gizon bat agertu ziren sotoan pistolak eskuetan eta Foruzaingoaren izenean gelditzeko oihukatu zuten. Ramon Zudaire inspektoreak hitz egin zuen hurbildutakoan.

–Geldi, Gina. Utzi pistola lurrean eta altxatu eskuak. Zu, goian zain duzun laguna eta herri sarreran dituzunak atxilotuta zaudete. Dena bukatu da. Kuartelean deklaratu ondoren epailearengana eramanen zaituztegu. –Ginak gorroto begirada bota zien poliziari eta Daniri. Tiroka hasiko zela zirudien, baina pistola lurrean utzita eskuak altxatu zituen. Edonola ere, ez zen isilik geratu. Aurpegia aldatuz irri arraroa eginez hitz egin zien.

–Madarikatuok! Zuk, Dani, ehiztaria ehizatzen lagundu diezu ertzainei, baina gutxigatik libratu zara. Tesagatik ez balitz garbituko zintudan. Eta zu... ertzain jauna, jakin ezazu lokeroekin pixka batean egon ondoren libratuko naizela –Ramonek haserre erantzun zion.

–Andereño, ikusiko dugu zer gertatuko den! Momentuz..., erran behar dizut ez naizela ertzaina, foruzaina baizik.

Bazirudien, orduan bai, amets gaizto hura amaitu zela.

Epilogo

Joxepiri eta Antxoni buruzko berriak ez ziren oso esanguratsuak. Antxonen erailketari buruz ez zen gehiago jakin, ezta froga gehiagorik jaso ere. Joxepik, aldiz, konortea berreskuratu zuenean ez zuen gogoratzen kolpatua izan zeneko eraso, baina zerbait aipatu ahal izan zuenean zer edo zer adierazi zuen Marisari buruz: deus zehatzik ezin omen zuen aipatu, baina emakume hura gaiztoa zela zioen, bere begiradan deabruaren gaiztakeria ikusi zuela.

Bertzalde, giroa ez zen betikoa. Mesfidantza ez zen herrian erabat desagertu. Danik ez zuen hainbertze zalantzarik. Berak uste zuen dena bukatuta zegoela eta ez zuela Tesa berriro ikusiko. Gizonak uste zuen Tesarekiko erakarmena deuseztuta zegoela eta gainera ez zuen gaian gehiegi pentsatu nahi. Eskerrak Lalak, Ainarak, Jabier Lopezek eta Manu Elkanok edozertarako prestatzeko konbentzitu zuten. Danik ez zuen espero bera harrapatzen saiatuko zirenik, baina saiatuz gero merezitakoa jasoko zuten, txanpon berean. Edozein modutan, gehiago pentsatu behar zituen Tesarekin zituen sentimenduek sortutako ondorio pertsonalak: betiko inozo izanen zen ala normala ote zen halako erakarmena sortzen zuen emakumeak hainbertzeko babesa behar zuela sentitzea?

Medellinen psikiatreek kontatu zioten bezala, Tesak bazuen buruko gaixotasun larri bat: Pertsonalitatearen Identitate Disozioatiboaren Trastornoa deiturikoa. Gaixotasun hura ez zen eskizofrenia edo bipolaritate maniako-depresiboa bezalakoa, zeren eta horiek beren larritasunean ez baitziren disoziazio larrien mailara iristen. Tesak, txikitik trauma handi baten ondorioz, ziur aski meza beltz batengatik, bi pertsonalitate desberdin garatu zituen, bata sentibera eta beldurtia, eta bihozgabe eta odolzalea bestea. *“Jekyll doktorearen eta Hyde jaunaren kasu bitxia”* zen literaturan adibiderik ezagunena.

Nolanahi ere, egin beharreko galdera hauze zen: Danik maite al zuen Tesa? Dudarik gabe berak amestutako emakumea zen Tesa. Bere itxura eta dohaiengatik maitemindu zen. Maitasun platonikoa eta idealizatua zen Danirena.

Maria Teresa, Tesa, itxuraz zoragarria zen, ederra eta atsegina. Aurpegi polita zuen eta begi berde ederrek begirada sorgingarria ematen zioten. Dena den, eder-ederra izanda ere, Dani beldur zen harekin. Hasieran, Danik pentsatu zuen sentikorra eta beldurtia zela. Gauean, tentsio handiko momentuetan edo odola ikusten zuenean gaizto bihurtzen zen. Tesa apal eta otzanaren ondoan, Gina ausart, krudel eta odolzalea zen. Tesak normalean ez zuen bizi izaten ezta gogoratzen ere Ginak egiten eta sentitzen zuena eta berdintsu gertatzen zitzaion Ginari. Biek bazuten ingurukoen testigantzenatik beste pertsonalitatear enberri. Denborarekin ametsetan bizi izandakoaren sentimendua garatu zuten.

Edonola ere, Tesa-Ginak erakunde berezi batean beharrezko tratamendu eta isolamendua jaso eta izanen zituen eta Danik bizitza “normala” egin ahal izanen zuen. Iratzeta eta Arandi aparteko bailaran ere jarraituko zuten betiko bizimoduarekin. Momentuz, han, Iruñean eta Euskal Herri osoan libratu ziren satanzaleen arriskutik.